

Larresoro
Hizkuntza eta Pentsakera

Hizkuntza

Azala: Remigio Mendiburu

 ETORBIDEAN
KULTVRA

D. L. BI - 235 - 1972

© Argitaratzailea: Ediciones Mensajero - Ap. 73 - Bilbao

Irarkola: E. Belgas, Tercio Ntra. Sra. de la Cabeza, 2, Bilbao-12

Modaren partea bendurik ere, inportantzia handiko joeratzat hartu behar da estrukturalismoa XX-gn. mendeko ideien mailan. Eta hizkuntzaren gorabeherak azterterakoan areago, hizkuntzaren sinkroniari dagokionez estrukturalismoa bait da gure mendeko ekarri nagusia.

Hain zuzen ere, XIX mendea diakroniaren mendea izan zen bezalaxe (indo-europeoaren bilakaeraren teoria, hizkuntzen arteko ahaidetasuna, eta abar, Bopp eta Schleicher'en hildotik), XX-a sinkroniaren mendea da. Hizkuntzalarien iritzia honetara bil liteke: «Aski da, eta sobera, diakroniaz baliatzea hizkuntzaren gakoa azaltzeko. Bada garaia, ordea, sinkroniaren arabera, hau da, oposizio-sistema bezala egiteko». Hizkuntzen kondairatik hizkuntzen estrukturetara pasa gara. Baina hau eginez ez dugu hizkuntzen bilakaera edo eboluzioa ukatu edo ahaztu. Ikuspuntua aldatu dugu, hausnarpidea, jakintza-sailetan maiz gertatu ohi den bezala. Galderak aldatu ditugu batez ere. Estrukturalismoak problematika berezia ekarri du (hizkuntzaren arloan, bai; baina ez hizkuntzaren arloan soilik); eta problematika hori «sinkronia»ri datzeko.

Hau dela-ta, teoriaren hezurtzat diakronia duten mogimenduak oihuka hasi dira estrukturalisten kontra. Marxistek bereziki (gehienek, bederen) ahalegin handiak egiten dituzte aspaldisko honetan gazteria estrukturalismoaren «lilura» horietatik urrunarazteko. Estrukturalismoak ukatu egiten omen du gauzen eboluzioa, geldizale omen da; eta, hori dela bide, «statu quo»ren aldekoa omen; alegia, eskuindarra, atzerakoia eta erreakzionarioa. Pentsatzaile famatu batek honela ezagutarazi ditu berriki jorra horretako bere iritziak: «Estrukturalismoa ez da Marx' en kontra burjesiak altxa zezakeen azken presaburua besterik» (1).

Egia ote da hori? Ez, nik uste.

Estrukturalista guztiek, eta Saussure'k berak bereziki, garbiki oharrarazi dute: hizkuntzaren fenomenuetan, beste edozeinetan bezalaxe, bi azterpide-mota egin daitezke: bata diakronikoa, kondairazkoa; eta bestea sinkronikoa, estrukturala. Hori gauza jakina da estrukturalistentzako berentzako. Hizkuntzaren jakintzak sinkroniaren jokabide hori idarokitzean, aurrera beharrez egiten du, eta ez tema hutsez. Zergatik ez litzake bide hori bidezkoa?

Taxupide berbera hartu izan dute beste jakintza-motek ere. Fisikak, esate baterako: lotuta dauden lekugunea eta denbora, ez ziren lotzen hasi Einstein arte; baina mendetan barrena aukeratutako errazpide horrek, lagundu egin du luzaz, eta ez hondatu. Estatikak, era berean, denbora aipatu ere gabe aztertzen ditu indarren arteko gorabeherak eta ekilibrioa; baina Mohr'i edo Hardy Cross'i azterpide-«akats» hori egozten zaienik ez dut behin ere entzun...

Hildo beretik Saussure'k (eta geroko estrukturalistek) argi eta garbi esan dute: gu hizkuntzaren *sinkroniaz* arduratuko gara, diakroniaren kontra ezer izan ez arren.

Estrukturalismoak, beraz, Jakobson kenduz gero agian, hizkuntzen (eta gainerako seinale-sistemen) *sinkro-*

(1) L'Arc, n.º 30; 88 gn. orr. Sartre'ren deklarazioa.

nia aztertu ditu bereziki; eta azterketa-mota horretan egitamu edo «estruktura» horiek aurkitu ditu. Estrukturalistek ez dute lehenagoko linguistika ukatu. Beste problema mordo batez argi egiten saiatu dira.

Argitzapen hauek eman beharrezkoak zirela iruditu zait.

* * *

Orain dela urte pare euskaldun bat topatu nuen; eta beste eragozpena aipatu zidan: «Estrukturalismoa joana duk: orain Chomsky duk nagusi». Nere lagun hori Ameriketara dago irakasle, Chomsky-zalaren ikasgu batean. Gaur, eta Chomsky'ren izkribu batzuk irakurri ondoren, ordea, gauza bat esan dezaket: ez nagoela neure adiskide horrekin ados.

Dena dela, luzaroan egon naiz zalantzan: alegia, nola ez Chomsky aipatuko nere idazkizun honetan? Eta, halaz ere, bereziki ez egitea erabaki dut. Eta zergatik esan beharra dut.

Lehenik, Chomsky'k ez du bere burua estrukturalizatzen jotzen. Estrukturalismoa 'taxonomia' hutsa zaio, pittin bat banaketa-teoria. Eta Chomsky'k badaki zer dion: bai estrukturalismoaren aldetik, eta bai bere teoriaren aldetik ere. Zergatik nik, hortaz, bere buruarentzako nahi ez duen lekuan sarraraziko?

Eta bigarrenik, beste hau. Sinkronia eta diakronia Saussure'k berak garbiki berezi zituen bezala, geuk ere kontutan hartu behar dugu: gauza bat da «langue» (= hizkuntza), eta beste gauza bat «parole» (= hizketa). Hizkuntza sistema osoa da, bere horretan, herri guztiaren tresna, gure borondatek at sortua eta erabilia. Hizketa, aldiz, hitzegitea bera da, eleketa, solasa, lagun bat hizkuntzaz momentu batetan baliatzea, eta ideia batzuk hitzaldi konkretu baten bidez aditzera ematea.

Estrukturalismoa, betidanik, hizkuntzaz arduratu da batez ere, ez hizketa konkretuez. Martinet'en liburu berri

batek, hain zuzen, «La Linguistique Synchronique» hartu du izena.

Hots, Chomsky, iruditzen zaidanez, *hizketa* delakoaz arduratu da gehienik. Iritzi hauxe da Mitxelena'rena. Eta iritzi berbera eman zuen berriki J. Davy'k «The Observer» astekarian joan den udaran: «the ability to ACQUIRE and USE language is a very much more extraordinary thing than we had realised»; hizkuntza, alegia, IKASTEKO eta ERABILTZEKO dohaina zaio aztergai nagusia. Eta berriz zion «to speak and understand», HITZEGIN eta ULERTU. Mintzaira hitzegiteko eta ulertzeko gaitasuna zaio, beraz, aztertu beharrekoa: bere «performance» eta «competence» agertzen dira usuenik. Hots, horixe da HIZKETAREN arazoa bete-betean; eta ez hizkuntzaren sistemaren izana. Chomsky'ren problematika ez da hizkuntzaren sinkronia, HIZKETAREN erabiltzea baino. Xubereraz esateko, ez zaie mintzajea antsi, pheredikia baizik.

Chomsky, hortaz, ez dago berez estrukturalismoaren kontra: beste jakintza-maila batetan saiatzen da. Chomsky'k, hitz batez, ez du estrukturalismoa gainditu, bestez ari bait da bere liburu famatuetan.

Chomsky *esaldia edo frasearen izanaz* arduratzen da; eta horretan logikaren sustrai berbera aurkitu nahirik, «azaleko» estrukturak (gramatikari dagozkionak) eta estruktura «sakonak» (logikari dagozkionak) berezten ditu. Azterketa zail askoren ondoren (2) oinarri bakarra aurkitu uste du esaldien estruktura «sakon» (= deep) horietan. Hizketaren azken zoru horretaraino iritxiz gero, Chomsky'ren ustez, logikan pausa genezake oina; eta, hizkuntza bakoitzaren «transformazio-lege» bereziak ezagutu eta erabiliz gero, azaleko estrukturetara (alegia, egunero-ko hizketan entzun daitekeen mintzairara) igarotzeko aukera izango genduke. Funtsean, beraz, Chomsky'ren ustez,

(2) Ikus, esate baterako, «La Nature Formelle du Langage» delakoan eman dituen argibide ilunak.

arrazoina dugu gidari hizketarakoan eta aditzerakoan; eta ez azaleko estrukturak gramatiketan azaltzen direnak.

Hizketaren estruktura hauek eta *hizkuntzaren* estrukturak, kasu, nahiz hitz berberaz izendatuak, ez dira gauza bera. Elkarren ukatzailetzat aurkitzeak ordea, ez du sentidurik.

Chomsky, halaz ere, estrukturalista batzuen gehiegikerien etsai gertatu da. Zenbait estrukturalistaren ustez, esate baterako, logikarik ez dago: hizkuntza bakoitzak bere logika berezia du. Areago: logikarik ez dago hizkuntza-estrukturetatik at. Hauen ustez, logika estrukturen seme litzake osotara: «Aristoteles Dakota'rra izan balitz, bere Logika bestelakoa izango zitzakeen eskierki» (Mauthner).

Hots, azken idorokunde batzuek argiro aditzera ematen dutenez, nahiz hizkuntzen sinkroniak erakusten dituen estrukturak *oso funtsezkoak* izan, ez dira dena; batzuen ustez lehenago sortzen bait da logika hizkuntza baino: bai naturalezan bai gizonarengan. Estrukturalista batzuen absolututasuna, beraz, pitin bat apaldu beharra dagoela uste du zenbaitek.

Gauza ezaguna da, esate baterako, ez dagoela Izadian mintzatzen dakien abererik. Eta hau ez da, ordea, abotsa emateko organorik-eza soil.

Ondorio beretara iritxi dira psikologilariak ontogene-siaren aldetik: lehenago bide du haurrak logika apur bat, hizkuntza baino. Sinclair de Zwaart'ek, esate baterako (3) garbi erakutsi bide du lehenago lortzen duela gizonak adimena, mintzamena baino. Mintzamena, hitz batez, pentsamenaren sortzeari darraikiola, eta ez alderantziz.

Hau honela izanagatik ere, eta nahiz logika lehenago agertua izan mintzamena baino, ados dira gaurko jakintsuak puntu batetan: hizkuntza agertuz gero, pentsabidearen eustarri eta gidari bihurtzen dela oso azkar; eta hori dela-ta, *oso sakonki markatzen eta baldintzen dituela hiz-*

(3) Ikus «Acquisition du langage et développement de la pensée».

kuntza horretaz baliatzen direnak (eta baliatzen den herria, beraz). Eta hauxe da gure tesia.

Hori dela-ta, gaurko filosofiak gaur arte argitu ez duen problema nagusia (Piaget'en eta H. Lefèvre'ren ustez, esate baterako), horixe da hain zuzen: nola ezkonzen dira logika eta hizkuntza? Zeinek zein moldatzen du, eta noraino? Noiz arte da gidari logika? Noiztanik nagusitzen zaio estrukturen joera?

Estrukturalismo klasikoaren aurkikundeak, nahiz apal-kixeago onarturik ere, tinko daude hor; zenbait ikuskera abstraktoren kontrako hesi eskerga gisa (4).

Jakintza berrien aldetik egiten dugu, beraz, liburu honetan geure hizkuntzaren defentsa. Eta hau eginez, bai Euskal Herriari eta bai Kultura guztiari gorazarre eta mesede egin nahi diogu.

1970-ko Udazkenean

(4) Ongi biltzen zuen gaurko iritzia Jean Dubois'ek «La Pensée» aldizkarian (ikus 1967-ko Urrilaren zenbakian, 19-gn. orrialdean: «(Le structuralisme) a permis à la linguistique d'accéder à un réel statut scientifique et d'offrir aux autres sciences humaines, avec des techniques rigoureuses et explicites, une théorie du langage, des procédures de une perspective nouvelle de l'histoire de la langue qui marquent à son début la deuxième moitié du XXe. siècle. Et si aujourd'hui certains linguistes sont conscients des LIMITES d'une analyse structurale... et ils se tournent vers une nouvelle linguistique, GENERATIVE ET TRANSFORMATIONNELLE, l'erreur serait de croire qu'il s'agit d'un retour pur et simple à d'anciennes conceptions du fonctionnement du langage et aux précédentes descriptions des langues».

Hizkuntza eta pentsakera

1. Euskara estrukturalismo klasikoaren argitan

Saussure-ren ideia nagusiak

Gaurko Hizkuntzalaritzak (eta gaurko Estrukturalismo guztiek ere bai) izen bat aitortzen dute aitatxi gisa: Ferdinand de Saussure-rena.

Geroko urteetan eragin handia izango zuen Ginebratarrak, ordea, beste garaitako zenbait gizon apartak bezala, ez zuen gauza handirik idatzi. Haren lanik inportanteena Ginebran 1906-1907-an, 1908-1909-an eta 1910-1911-an azaldu zuen «Cours de Linguistique Générale» delakoa, ikasleek hartutako apunteen bidez moldatua izan da 1916-an. Zoritxarrez, beraz, sahetsetik besterik ez dugu ezagutzen Saussure-ren teoria. Eta, halaz ere, bide berrian barrena abiatu du Hizkuntzalaritza guztia; eta, honetatik at ere, Antropologia, Psikologia eta beste gizajakintzak. Saussure-k bizitutako ideia-erreboluzioa ez da oraindik agortu.

Saussure arte, Hizkuntzalaritzak helburu bakar bati buruz erakutsi zuen bere zientziatasuna: konparatismoan, filologian; hizkuntzen arteko ahaidetasunak eta ebolu-

zioak erakatsiz, indoeuropeoaren teoria ezaguna moldatuz, eta abar. Saussure arte Hizkuntzalaritza eboluziozalea zen, kezka nagusitzat bilakaera edo eboluzio-legeak aurkitzea eta finkatzea zitzaion.

Saussure-k, aldiz, ordurarteko Hizkuntzalaritzaren balioa ukatu gabe, beste azterpide eta kezka berria erantsi zion: estruktura bilaketarena. Saussure-k ez zuen, beraz, hararteko kondaira-hizkuntzalaritza «gainditu» edo «superatu»; ezta gaur Chomsky-k Saussure. Oso modan dago, badakit, denean *eboluzio bakarra* antzematea; eta aldi edo fase bakoitzak, beraz, aurrekoak «gainditu» egiten dituela pentsatzea, zahartzaroak gaztaroa gainditzen duen modura. Transformismoak sustrai sakonak utzi ditu gure gizartean, baita desegokia den jakintza-ataletan.

Monismo hori, ordea, ez da beti egia. Konparatismoak eta kondaira-filologiak beren balioa dute gaur ere. Saussure-ren teoria dela-ta, zentzugabekeria litzake ordurartekoa faltsua edo baztergarria dela pentsatzea. Kondairazko hizkuntzalaritza mintzairen zientziaren atal argitsua da; eta Saussurek ekarri duen estrukturalismoa (sinkroniazko hizkuntzalaritza) beste atal argitsua. Azterbide desberdinak dira biak, baina ez elkarren gainditzaile eta ez ukatzaile. Azkeneko modaren bila herio-suhar ari direnek, egia baino snobismoa dute helburuago eta funtsean beti berriak lehenagokoa «gainditzen» duela sinistuta, berriketan ari zaizkigu eten gabe, modan (eta egian, omen...) egoteko nahi errabiatuak eraginda.

Chomsky aipatzen dute gaur horrelakoek, eta ez besterik (Chomsky ezagutu gabe, gainera, eta ez besterik...). Azkeneko kapituluari agerraraziko dudana bezala, ordea, Chomsky-k ez du, artez batez ere, sinkroniazko hizkuntzalaritza ukatu. Chomsky-k beste ikuspuntu batetik begiratu ditu gauzak, eta beste problema batzuk argitzen. Saussure-ren ekarria zibilizazioaren aurkikundeetatik bat da, Einstein-en edo Freud-en ekarriak bezala.

Sinkronia eta diakronia

Biketa hau argitzeko, har dezagun geure hizkuntza bera aztergaitzat. Bi modutara azter daitezke haren gorabeherak.

Azterketa *diakronikoa* egin daiteke, eta hizkuntzak urteetan barrena jasan dituen aldakuntzak agerraraz daitezke. Fonetikaren aldetik, esate baterako, /j/ soinuaren aldaketak eta bilakaera har daitezke ikasgaitzat; eta gipuzkerak ematen duen /j/, espainieraren kidea, soinuaren sarrera eta hedaera mendeetan barrena ikus. Mitxelena-ren «Fonética Histórica Vasca» liburuak, esate baterako, azterketa diakronikoa egiten du fonetikaren mailan; eta Mitxelena berak azaltzen digu: «La lingüística *diacrónica* vasca lleva un considerable retraso... Se intenta... señalar el sentido *de los cambios de sonidos* y precisar sus condiciones». Azterketa diakronikoa, beraz, *kondairazko* azterketa da funtsean. Hizkuntzalaritza klasikoa diakronikoa da.

Baina egin daiteke ere azterketa sinkronikoa. Saussure arte, ordea, ez zuen nehorik somatu, antza, sinkroniak ere Hizkuntzalaritzan (eta Giza-Jakintza guztietan) aurre-rapen handirik ekar zezakeenik. Saussure-ren joera, ordea, eta estrukturalista guztiena, *sinkroniaren* aldeko joera da. Euskara aztertzean, adibidez, ikaspen sinkronikoa egin daiteke. Atsular-en hizkuntza hauta daiteke aztergaitzat, eman dezagun; eta fonetika-estrakturak bila daitezke. Fonetikaren mailan, kontsonanteetan adibidez, B-D-G, P-T-K eta PH-TH-KH hirukoteak aldera daitezke. Eta, era berean, semantikaren mailan, «galdu» eta «errebelatu» hitzen semantika-eremua azter daiteke. Hitz batez, *garai bateko* hizkera hauta daiteke aztergaitzat, eta hizkera horretan barne-orekak edo estrukturalak bilatu, bai fonetikaren mailan (soinuei buruz) bai semantikaren mailan (adierazkizunei buruz).

Saussure-k eta estrukturalistek azterketa sinkronikoak egiten dituzte.

Hizkuntza eta hizketa

Saussure-k beste biketa funtsezko bat proposatu zuen: «*langue*» (hizkuntza, mintzaira) eta «*parole*» (hizketa, hitzegitea bera). Saussure-ren biketa hau bestea bezain inportantea da.

Gauza bat da hizkuntza: euskara, esate baterako, euskaldun guztiok konturatu ere gabe dakigun eta darabilgun hitz eta arau-sistema, sufijo-mordoa, fonetika-legemultzoa, edo abar. Hizkuntza, hortaz, etniaren ondasuna da, belaunez belaun moldatua eta helarazia. Euskara, esate baterako, euskal etniaren ondasun funtsezkoa da, euskaldun guztien artean —lehenagokoen eta oraingoen artean— oratua eta mamitua eta horretaratua bait da; eta, geografiazko eskualdea bezala, guk aukeratu gabe alegia, guri utzia. Gizarte-ekarrietan nagusia da hizkuntza.

Eta beste gauza bat da hizketa: alegia, zuk eta nik, eta Urliak edo Berendiak, hitzegiten hasten garenean sortzen dugun frase edo esakuntza ilara. Hizketa, hortaz, ez da gizarte-ondasuna, pertsona *bakoitzaren* dohainaren fruitu baizik: hiztegi batek, edo gramatikarik onenak eta osoenak berak, ez dute sekula hizketarik ematen, hizkuntza biltzen baizik. Hizketa giza-dohainari datxeko.

Hizkuntzalariek maite duten bezala esateko: hizkuntza «*code*» da, hiztegi eta erregela-bilduma gordea; hizketa, berriz, agiriko «*message*», soinu-ilara baten bidez jakinarazten dugun mezua, albistea, gaztigua.

Estrukturalistak *hizkuntzaz* arduratzen dira. (Chomsky ez; baina Chomsky ez da estrukturalista, eta ez omen du nahi horien artekotzat har dezaten ere).

Adierazkizuna eta adieraz-hotsa

Saussure-k bi maila berezten ditu osoki hizkuntzan: adieraz-hotsa (alegia, «*signifiant*», ahoaz ematen dugun soinu-segida); eta adierazkizuna (alegia, «*signifié*», soinu horien bidez hizkuntza horretan aditzera ematen dena).

Esate baterako: /aintzira/ soinu-ilara (= /a/ + /i/ + /n/ + ...); eta «aintzira» ideia (alegia, ur-eremua; handierari dagokionez, goitik «itsaso»k eta beheitik «putzu» k mugatua, eman dezagun).

Edozein adierazkizuni edozein adieraz-hots dagokioke. «Beso» giza-atalari, gonbarazio batez, edozein adieraz-hots erants dakiok. Guk /beso/ diogu; baina españeraz /brazo/ soinu-ilara erabiltzen da, frantsesez /bras/ (edo /bra/ nahiago bada), eta abar.

Alderantziz: /beso/ soinu-ilarak adierazkizun desberdinak izan ditzake: guk giza-atala ulertzen dugu soinu-ilara horretan; baina espāñatar batek «musu» ulertuko du. Aldera ditzagun, era berean, euskarazko /garra/ eta erdarazko /garra/ (= «atzaparra»); euskarazko /gorra/ eta erdarazko /gorra/ (= «txano»); euskal /ola/ eta erdal /ola/ (= «uhin»); euskal /baso/ eta erdal /baso/ (= «vaso», «ontzi»). «On ne voit pas —dio Saussurek— ce qui empêcherait d'associer une idée quelconque avec une suite quelconque de sons» (Cours, 110). Eta beste leku batetan: «il n'y a aucune ressemblance, aucun rapport culturel entre un cheval qui broute dans un pré, et les vibrations qui correspondent à ce que nous transcrivons (saval)» irakurtzen dugu Martinet-en lumatik (Linguistique Synchronique, 14).

Adieraz-hotsak («signifiant») eta adierazkizunak («signifié»), beraz, ez daude ezinbestean modu horretara loturik, hautaz edo aukera hutsez horretara egokiturik baizik. Hizkuntza bakoitzean hitzaren bi aurpegiak lotuka agertzen zaizkio etniako hitzunari, hori bai: euskaldun barentzako /beso/ soinu-ilara eta «beso» giza-atalaren ideia guztiz agertzen zaizkio loturik; baina lotura hau ETNI-KOA da, ez logikoa. Giza-atal horri ez datzeko, nahi ta nahiez, edo metafisikaz, /b/ + /e/ + /s/ + /o/ soinu-ilara; eta alderdi honetatik hitzaren bi aurpegien arteko lotkia hautazkoa da («arbitraire par rapport au signifié», dio Saussurek, Cours, 101).

Hitza, beraz, «hizkuntzazko ikurra» hobeki esateko («le signe linguistique») SINBOLO berezia da, haren so-

rrerak berak erakusten digun bezala. Bai hotsen mailan, bai adierazkizunen mailan, hizkuntza bakoitzak (hizkuntza horretan mintzo den etniak hobeki) hauta bana egin du, aukera bana. Hizkuntza-sinu horietan ez da inolaz ere banaketa unibertsal baten banakorik bilatu behar. Hizkuntza bi aldiz gainera, hautazkoa da: hauta-kera hutsa, «kera» hutsa (= «forme, pas substance»).

Hizkuntzak ez dira, beraz, taxuketa «logiko» BAKAR baten itzulpenak, TAXUKETA DESBERDINAK baizik. Jatorriz desberdin diren hizkuntzetan, batez ere hau nabarmena da. Saussure ederki mintzo zaigu honetaz, eta haren ideiak euskaratzea dukegu onena: «Zenbaiten ustez, hizkuntza, funtsera bilduz gero, hitz-mordoa besterik ez da; alegia, gauza-pilo bati datxekon hitz-piloa. Ideia hau jorratu beharrekoa da alde askotatik. Aldez aurretik, eta hitzak sortu baino lehenago, ideiak ondo berezirik daudela adierazten du horrek... ez digu azaltzen hitza ahozkoa ala psikologikoa den, zeren-eta «arbor» bai ikuspuntu batetik eta bai besterik azter bait daiteke; aditzera ematen du, azkenik, gauza bat eta hitz bat lotzen dituen lotkia oso gauza ximplea dela; eta hau egia izatetik arras urruti dago... Hizkuntza-sinuak ez ditu gauza bat eta hitz bat lotzen, kontzeptu bat eta sinbolo akustiko bat baizik» (Cours, 97-98).

Aurrerago Hjemslev-en eta Whorf-en ideiak azaltzean, berriz bihurtuko gara problema hauetara.

Puntu bat, beti berbera, eta hemen eta han mundu bakar hori modu liferentetara bataiatua. Hjemslev-ek eta estrukturalista guztiek behin eta berriz azaltzen dute hau: «Selon la théorie traditionnelle, le signe est «L'ESPRESION d'un CONTENU *exterieur* au signe lui «même; au contraire la théorie moderne, formulée en particulier par F. de Saussure et, ensuite, par L. Weisgerber, conçoit le signe comme UN TOUT formé par une expression et un contenu» (Prolégomènes, 71). Eta orrialde batzuk aitzinago: «(Il faut éviter) le risque de provoquer ou de favoriser, consciemment ou non, la méprise fort répandue selon laquelle une langue n'est qu'une NOMENCLATU-

RE pure, une réserve d'ETIQUETTES, destinée à être attachée à des OBJETS PREEXISTANTS» (Prolégomènes, 83).

Esate baterako. Eman ditzagun hiru euskal esakuntza hauek:

etxe-TIK etorri naiz
 etxe-KO andrea
 etxe-Z beterik dago

eta eman ditzagun orain ondoko bi erdarez:

he venido DE casa / je suis venu DE chez moi
 la señora DE la casa / la maîtresse DE la maison
 está lleno DE casas / il est rempli DE maisons

Semantikaren mailan garbiki berez daitekeena, gure ondoko erdarek ez dute itxuraz berezi; eta denerako «de» erabiltzen dute. Ez dago, beraz, honetan —berriz diogu— semantikazko taxuketa LOGIKORIK, eta honi legokiokeen bataiaketa *aldatu-ezinezkorik*.

Fonetikaren mailan —eta gauza bera honi buruz semantikaren mailan— fonema ez da ezer «berez». Ezin daiteke haren definiziorik edo mugaketarik eman beste fonemen arabera edo kontra baizik. Hauxe da, hain zuzen, fonologiaren gakoa: ez zaigula axola FISIKAZKO fenomeno, HIZKUNTZAZKO BALIOA baizik. Hau oso inportantea da; eta gero ere itzuliko naiz.

Eman dezagun /e/ soinua. Gure ustez, euskaldunon ustez, /e/ ez da ezer positiborik, bere buruz muga edo ezagutaraz daitekeenik, gure /a/ eta /i/-ren artean berez-ten dugun fonema baizik (fonema hau ez da gainera, beti berbera: pertsona batengandik bestearengana gerta daiteke liferentzia nabarmen-xamarrik). «Les phonèmes ne sont ce qu'ils sont que PAR OPPOSITION aux autres phonèmes de la langue. Chaque phonème contribue à déterminer la nature phonologique de ses voisins, et voit la sienne propre DETERMINÉE PAR EUX» (Linguistique Synchronique, 53).

Are gehiago: nahiz bi soinuren artean liferentzia egiazkoa eta objetiboa izan, hizkuntza batetan soinu-liferen-

tzia horri inoiz semantikazko berezpiderik ez badagokio, bertako hiztunek ez dute azkenean «erreparatu» ere egiten beren hizkuntzan agerrarazten ez den doi hori, eta bukatzeko «logikoa» ere ez zaie iruditzen horrelako «bitxikeriak» aipatzea.

Oso etsenplu gogoangarririk ematen du Sapir-ek honi buruz (ikus «Le Langage», 55-56). Charlotte-erreginaren uharteetako indiar hizkuntza batetan («haida» izenekoan) bi /t/ daude: bata normala, bestea aspiratua; baina /d/rik ez dute. Hori dela bide, /t/ eta /th/ ederki berezten dituzte hango indioek; baina /t/ eta /d/ ez: berdintsu zaizkie. Nahiz berez ahal izan (bi berde-motaren artean geuk ere, izen bereziz bataiatu ez arren, berez ditzakegun bezalatsu) ez dute «kasorik» egiten: «Je découvris qu'il était difficile ou impossible d'apprendre à un Indien à établir des distinctions phonétiques qui ne correspondaient à rien dans le système de son langage, même si ces distinctions frappaient nettement notre oreille objective».

Hau guztia OSO INPORTANTEA DA. Eta ongi jabetu artean, hobe du irakurleak astiro hausnartu.

Etnia bakoitzak hautaketa edo taxuketa desberdinak egiten ditu

Liburu honen irakurlea gehienetan hizkuntzalaritzan trebaturik ez dagoen ustean, luzaroago mintzatuko naiz semantika-mailako estrukturez (adierazkizunen banaketaz, alegia), fonetika-estrukturez baino. Lerro batzuk idatziko ditut halere hauei buruz.

Har dezagun bokaleen saila. Irakurleak berak bere buruz froga dezakeenez, /a/ soinutik hasi eta, etendurarik gabe, ebakidurarik gabe, /ä/ /è/ /é/ /i/ eta abar, mordo ugaria eman dezake sorta jarraikian. Zenbat bokale guztira? Kontuz! Galdera horrek ez du erantzunik. Bokaleen sail horretan hizkuntza bakoitzak —etnia bako-

tzak hobe, hizkuntza ez bait da bizi etniako lagunetatik at— bere banaketa edo taxuketa berezia egin du.

Españeraz, esate batarako, bost bokale berezten dira: eskuarki a, e, i, o, u idatzi ohi direnak. Horien arteko soinuak (ä, ö, ü, eta gainerakoak) ez dira espāñeraz erabiltzen: espāñeraz *ex-ikusia* egiten zaie. Horregatik, hain zuzen ere, espāñeraz mintzatzen denak gorriak ikusi ohi ditu frantsesezko «*matin*» hitza edo inglesezko «*cup*» hitza behar den bezala esateko. Bi bokale horiek espāñeraz ez daudelako.

Inglesez, alderantziz, bederatzi bokale berezi ohi dira: i, a, ae, â, ɔ, o, u, ʌ, eta ə Eskimalen bokale-estruktura, beste muturrean, hirukuna da: i, u, a (ikus Hjemslev, *Prologomènes*, 79). Eta, hitz batez, nolanhiko bokale-taxuketa aurki daiteke munduan barrena.

Euskaraz (Iparraldeko euskalkietan gertatzen dena oraingoz alde batera utzita) bost fonemak osatzen dute euskal bokaleen saila: a, e, i, o eta u; espāñeraz bezalatsu (batzuen ustez, hain zuzen, euskaratik hartua du gaztelarak bere bokale-estruktura). Itxuraz, beraz, antza sakona da biena: «La semejanza entre las vocales vascas y las del castellano no se limita al sistema, sino que se extiende también a las realizaciones fonéticas» (Mitxelena, *Fon. Hit. V.*, 47). Baina badago horretaz zer erantsirik, Mitxelenak berak segidan azaltzen duenez: «A pesar de la semejanza de ambos sistemas vocálicos, el margen que separa algunos fonemas (/e/ e /i/, /o/ y /u/) es menor que en vascuence». Zergatik? Puntu honetara bihurtuko naiz arestian. Garbi geldi bedi oraingoz ideia bakar hau: bokaleen sail etengabe eta jarraikian, hizkuntza bakoitzak bere modura egiten duela bere zatiketa berezia, bokale-estruktura desberdin bana sortuz. Estruktura horiek ez direla logikoak, etnikoak baizik. Ez dela bidezkoago edo logikoago bost bokale bereztea, hiru, sei edo bederatzi bereztea baino. Eta ez alderantziz ere: taxuketa horiek guztiak hautazkoak dira.

Ikus dezagun orain semantikaren mailan, bide bere-tik, nola taxutzen diren fenomenoak. Har dezagun adibide

ezaguna: koloreena. Zer da funtsean koloretasuna? Onda edo uhin elektromagnetikoen frekuentzi edo maiztasun-kontua. Maiztasun txikia dagoenean, irrati-ondak ditugu; handiago denean, geure begien aurrean ikus ditzakegun koloreak; eta are handiago denean, ultrabioletak, Röntgen-errainuak, eta kosmikoak. Fenomenu bakar horretan, beraz, ez dago «logika»ren arabera mugarik jartzetik: badago hor etendurarik gabeko kolore-segida bat. Fisikak erakusten digunez, eskuarki gorri deritzagun koloreari $\nu = 0,37 \cdot 10^{15}$ Hz-etako frekuentzia dagokio; eta urdin gaur deritzagunari $0,75 \cdot 10^{15}$ Hz. Bi frekuentzia horien artean, kolorea aldatu egiten da ezari-ezarian, ortzadarrean bezala, gorritik urdinera frekuentzia emendatuz.

Zenbat kolore dugu tarte horretan, ortzadarrean, espektroan? Galdera honek, berriz ere, EZ DU ERANTZUNIK; edo badu bat, izan: nahi hainbat, edo hauta hainbat. Ez dago koloreen taxuketan «logiko»rik batere. Hizkuntza bakoitzak bere banaketa berezia egin du; eta banaketa hau, egiazki esan daiteke, etnikoa da; ez logikoa.

Entzun dezagun Hjemslev, Kopenhagen-go maisua: «Alors que cette zone (des couleurs) est dans l'ensemble découpée à peu près de la même façon dans les langues de l'Europe moderne, il n'est pas difficile de trouver autre part des découpages différents» (Prolégomènes, 77). Eta frantsesa eta kymru hizkuntza (Gales-koa) alderatuz, diagrama hau ematen digu:

gwyRDD	glas		llwyd
vert	bleu	gris	brun

Ederki dio André Martinet hizkuntzalari famatuak: «La façon dont nous analysons le spectre ne correspond pas à une réalité physique universellement valable, mais à une TRADITION CULTURELLE transmise par la lan-

gue que nous parlons depuis l'enfance» (La Linguistique Synchronique, 6).

Argiaren antzekoa da soinuaren fenomenoak: soinu baten nota frekuentzi-kontua da. Segidako bi «do» (=«ut»)en artean, frekuentzien arabera *bi* da ($f_1/f_2 = 2$). Alegia, «octava, octave» baten frekuentzi-tartean, bi-koiztu egiten da ozilazioaren maiztasuna. Funtsezko soinua La-435 Hz-etakoa da; gorako lehen oktava, beraz, 870 Hz. Bach-ez geroztik tarte hori 12 partetan zatiturik erabiltzen dugu (15.000 Hz. etatik gora ez, ultra-soinu horiek ez bait ditu aditzen gure entzumenak).

Bach-en «eskala»ren bidez egin dago gure musika guztia: alegia, Bach-en estruktura onhartuz. Baina Asian badaude bestelako musikak ere; eta ez inondik ere gurea baino txepelagoak. Hango musikariak beste «hizkuntza» batez mintzatzen dira. Ekialdeko musika hori ezin daiteke inolaz ere itzul gure moldeetara, oinarrizko soinu-estrakturak desberdinak dituztelako. Ez da, bide beretik, haiena baino «logiko»agoa gure musika. Hitz batez: bi musika dira, ez bat, ez elkarren itzulpen. Itzulpen hori arras ezina da, hain zuzen.

Gauza bera lumeratzeari buruz. Guk hogeita-hiru keta hau, 23 idatzi ohi dugu oinarri 10 harturik ($= 2 \times 10^1 + 3 \times 10^0$). Baina beste modutara ere idatz daiteke: oinarri 2 hartuz gero, esate baterako, 10111 ($= 1 \times 2^4 + 0 \times 2^3 + 1 \times 2^2 + 1 \times 2^1 + 1 \times 2^0$). Adibide honetan, dena dela, KANTIDADE BERBERA idazten da modu desberdinetara.

Esan dezagun, semantika-barneari dagokionez, hizkuntzaren sinbolismoa bien artekoa dela. (Puntu batzutan bederen).

Hizkuntzak beraz taxutu egiten du adierazkizunen mundua bere gisara. Geure aurrean topatu dugun ezagutzaren nahaspilan eta 'kaos'ean, taxuketa erasten du gizonaren Inkontzienteak; eta taxuketa horri esker eta horren arabera pentsatzen dugu gero: «il n'y a pas d'idées préétablies, et rien n'est distinct avant l'apparition de la langue» (Saussure, 155). Gauza bera fonetikaren mailan:

hizkuntzak elkartzen eta berezten ditu soinuak, elementuak arrimatzen eta banatzen. Psikologia goraki mintzaturiko zaigu ideia hauen alde. Edo Martinet-en hitzez esateko: «La façon dont s'analyse l'expérience humaine diffère d'une langue à une autre» (L. S., 5); eta: «(la langue) par une analyse particulière à chaque communauté, elle établit ses valeurs propres» (Ling. Synch., 27). Ia hitzez hitz dio Saussurre-k zion gauza bera: «Les moeurs d'une nation ont un contrecoup dans sa langue, et, d'autre part, c'est dans une large mesure la langue qui fait la nation » (Cours de Linguistique, 40). Eta Hjemslev, Glosematikaren aita: «Onerako eta txarrerako, nortasunaren ezagugarria da hizkuntza, sorterriaren eta nazioaren marka, gizonaren dinatasunaren ikurra. Hain dira hertsiki loturik hizkuntzaren eta pertsonaren gorabeherak, sorterriarenak eta nazioarenak, hau ere galda daitekeela: horren guztiaren irudia edo erreflejoa ote den hizkuntza; ala, alderantziz, ez ote den hizkuntza giza-biziaren bihotza eta muina bera» (Prolégomènes, 10).

Beste ohar batzuk semantikari buruz

Demagun orain ahaidetasunaren fenomenoak. Ahaide-tasuna edo ahaikoa modu askotara taxu daiteke. Har dezagun gogoan, esate baterako, guraso berberen haurrideen multzoa. Nola antola daiteke elkarrekiko kidetasun-mordo hori? Erantzuna laister doa niketz: ez dago taxuketa edo taxukera logikorik. Eman dezagun lau seme-alaba direla: bi mutil eta bi neskatxa. Frantsesez eta españeraz ez dira berezten mutilen arteko ahaidetasuna eta neskatxen artekoa: beti «frère, soeur» edo «hermano, hermana». Euskaraz, berriz, ez da horrela. Bizkaieraz (eta euskara zahar osoan lehen, Lhandek bere Hiztegian adierazten duenez, Dict. 772) lau partetan (eta lau hitzen bidez) zatitzen dugu ahaiko-mordoa: neba, anaia; arreba, ahizpa. Eta hau ez da bitxiago bikuna baino, kasu! Ezta gaur Gipuzkoan erabiltzen den hirukuna (anaia / arreba, aizpa) ere.

«Erdarakada» esan ohi duguna, estruktura-aldaketa da: geure estruktura alde bat uzten dugu, bitxikeriatzat jorik, eta atzerritar estruktura «logikoa» onartzen, bai fonetikan bai semantikan. Hau guztia, jakina, oharkabean gertatzen da: hizkuntzaren erroa Inkontzientean dago, aurrerago erakutsiko dugunez. Baina oharkabean gertatuegatik eta gertatzeagatik, pentsakera-aldaketa sakon baten zantzua dira. Alegia: atzerritarrek berezten dutena, berezkuntza logiko eta egokitzat hartzen dugu, eta eutsi egiten diogu; atzerritarrek berezten ez dutena, aldiz, bai fonetikan eta bai semantikan (eta honi buruz ari naiz bereziki liburu honetan), «beharrik gabeko berezkeriatzat» hartu eta bazterrera. Hau gertatzean, beraz, geure etnia-pentsakera berezia galdu, eta hizkuntza berriari lotzen gatzaiarkiola esan daiteke.

Esate baterako: «dijo que VENDRIA» / «si tuviera dinero, VENDRIA». Berebat frantsesez: «il avait dit qu'il VIENDRAIT» / «s'il avait de l'argent il VIENDRAIT». Alegia: hauzoko erdarek ez dute errelazio horien artean berezkuntzarik egiten. Badago, ordea, logikazko liferentzia; eta euskaraz kontutan hartu dugu gaur arte: etorriko ZELA esan zuen / dirurik balu etorriko LITZAKE (Bigarren esakuntzan baldinkizuna dago, lehenengoan ez). Hots, gaur, erdaraz pentsatzen dugulako, berezkuntza horri «zozokeria» deritzagu; eta sasi-euskaldunek nahasi egiten dituzte biak, ERDARAZ BEZALAXE: «etorriko ZELA esan zuen / dirurik balu etorriko ZEN». Funtsean hau dago: erdara iruditzen zaie logikoa; eta euskara berri «arkaikoa» edo «zentzugabea»... Erdararen estrukturak zaizkie «logikoak»... Erdaldundu egin bait dira logikan bertan! Gisa da: pipa hortzen artean ez atxikitzekotan ez dugu garbi ikusten euskaldunok behar den bezala nola esan daitezkeen ingleseiz «comfortable» edo «earl» hitzak. Fonetika hori «absurdoa» iruditzen zaigu, eta gogotik farregiten dugu. Gauza bera, ordea, guhaurena ingleseiz, noski: zein inglessek xuxen esango Gaintxurizketa?

Semantikaren mailan gertatzen dena (eta Logika-tik hurbil, beraz) oso gauza sakona da, eta arras oharkabea. Agertzea, beraz, lehen urratsa da.

Estrukturen barne-oreka edo plomua

Orain azalduko dudan puntu hau oso inportantea da.

Eman dezagun bokale-sistema edo estruktura bat: /a, e, o, u, ü, i/. Estruktura seikuna. Eta demagun /ü/ hori garai batez galdu egiten dela, beste sistema emanaz: / a, e, o, u, i / (boskuna hau). Gertakari honek estruktura GUZTIA dardaraziko du: / o / batzuk / u / bihurtuko dira; eta / ü / zirenek, aldiz, aldiz / u / eta aldiz / i / emango dute. Diagrama batez mintza nakizun:

(zaharra)

a	e	o	u	ü	i
a	e	o	u	i	

(berria)

Estruktura batetan, beraz, elemento bakarra galtzea edo erastea aski da, estruktura guztia alda eta arramolda dadin. Martinet-en hitzez esateko: «chacun des éléments linguistiques n'est pas conçu comme autonome, mais comme solidaire d'autres éléments de même type fonctionnel, de telle sorte qu'on ne doit pas voir dans une langue un simple CONGLOMERAT D'UNITES INDEPENDANTES dont on pourrait étudier la nature et les avatars sans s'occuper de ceus de leurs voisins» (Ling. Synchr., 61).

Fenomeno bera gertatzen da semantikaren mailan, Euzkal adibidea emango dugu, gipuzkeratik hartua hau:

zah.	anaia (mutila/mutilak)	neba (mutila/neskak)	arriba (neska/mutilak)	ahizpa (neska/neskak)
ber.	a n a i a		arriba	ahizpa

Hitz batez: bai fonetikaren mailan eta bai semantikaren mailan, estrukturako elementoen hedadura edo zabalera aldatu egiten da.

Beste adibidea:

baserritarrek	lizar	haritz	makal	arte	pago	haltza
kaletarrek	z u h a i t z					

Alegia: kaletarrak ez du berezkuntzarik egiten: semantika-hedadura handi baterako, ez du hitz bakar bat baizik erabiltzen. Begien aurrean zuhaitz-mota horiek baldin baditu, berezi egin ditzake, jakina; hostoen berde doi liferenteak berez ditzakegun bezala. Alegia: berezten ez dakienari PENTSAKERA EDO AZTERBIDEA ALDARAZTEN BALDIN BAZAIZKIO, orduan berez ditzake, ez lehenago. Haritza eta pagoa aisa berez daitezke, bai; baina kaletarrak ez ditu berezten.

Eta, kasu (Whorf-ek gero honi helduko bait dio): baserritarrarentzat esakuntza honek mamia du: «haritza ez da pagoa». Baina kaletarrarentzako ez: «zuhaitza ez da zuhaitza» (?). Hitzen «falta» hau ez da gauza arina, sakona baizik.

Elementoen balioaz

Bai fonetikaren mailan, bai semantikarenean, estruktura bateko elementoak ez du BEREZKO BALIORIK: balioa beti ESTRUKTURA-KIDEEK MUGATZEN DIO-TE. Ez du berezko balio metafisikorik, *oposizioko* balioa baizik.

Zer da, eman dezagun, / e / fonema? Estrukturalisten ustez galdera horrek ez du erantzunik, ez bait du funtsik. Euskarari eta ingelesean, gonbarazio baterako, erantzun liferenteak lituzke. Euskarari dagokionez hau erantzun genezake, eta ez besterik: / a / eta / o / delakoen arteko fonema dela. Besterik ez.

Gauza bera semantikaren mailan —eta honek ondorio larriak ditu, gero azalduko denez—. Zer da «laranja» kolorea, gaur bederen? Ez da beti eta hizkuntza guztietan gauza bera. «Laranja», bestalde, /e/ fonema bezala, mota edo bariante MORDO BATEN EREDU EDO SINBOLOA da: ez dago laranja bakar bat (ezta /e/ bakar bat ere). «Laranja», gaurko euskaraz, «horiak» eta «gorriak» mugatzen dute. Hein batetaraz gero, egokiago dirudi «gorri» esatea; eta, beste alderditik, egokiago ere, puntu edo kolore-doi batetaraz gero, «hori» esatea. Muga hau, ordea, ez da batere garbia edo hertsia. Alegia: estruktura batean *elkarren oposizioak* ematen die balioa eta funtsa elementoei. Hizkuntza beti, eta denean, *diferentziala* da; elementoen balioa hizkuntza bakoitzean, estruktura-kideek finkatzen dute, eta ez metafisikazko arrazoinek: «les mots n'ont pas de sens par eux mêmes», dio Saussure-k.

Badago, beraz, inmanentzia gisakoa hizkuntzetan. Gure «laranja» eta gure «anaia» hitzak, esate baterako, *berenez* dira beste hizkuntzetara xuxenki eta guztiz zehatz itzuli ezinak. Funtsean hizkuntza batetik bestera igarotzea ezina da. Gutxi gorabehera itzul daiteke, ez osoki; Bach-en eskalaren arabera idatzitako musika, beste eskala baten bidez itzul ezin daitekeen bezalatsu.

Sapir-en eta Whorf-en erakaspenetan agertuko zaizkigu ongienik honen ondorio larriak. Hizkuntza *diferentziala* izanik, nekez onar dakiok Logikari *absolututasunik*. Oso sustraitutako moldea ez bada,

Euskararen bokale-estruktura

Gaur arte eskuarki onartua izan den iritzia hauxe da: euskarak bost bokale dituela gaur, eta bost zituela lehen ere. Iparraldeko /ü/ delakoa, Zuberoan batez ere bizirik, antzinako /u/ delakoaren ondorio dela pentsatu izan da, eta zein kasutan hetsi den /ü/ emateko xehetasunez azaldu digute euskalari batzuek, Lafon-ek eta Mitxelenak esate baterako (ikus Fonética Hist. V., 51-57). Era berean, aspaldiko /o/ delakoak /o/ eta /u/ eman dituela onartzen da eskuarki. Ongi biltzen du joera hau Mitxelenak honetara idatziz: «No parece que ni el número de ejemplos ni su distribución geográfica basten a justificar la admisión de un sexto fonema vocálico para un estadio antiguo de la lengua» (F. H. V., 73).

Hizkuntzalari izan gabe harrokeria litzake ene partez iritzi horiek ukatzea. Ez dut ezer ukatuko, beraz. Baina hizkuntzalari ez naizelako, hain zuzen, eta hipotesi gisa, galdera hau egingo dut: ezina ote da benetan gauza bestaldera aztertzea? Zergatik ez pentsatuko gure bokale-estruktura gaur Xuberoak gorde duen seikuna dela, eta ez gure boskuna?

Euskararen fenomeno askotan, gordetzaileago agertzen zaizkigu Iparraldeko euskalkiak (eta xuberera batez ere) besteak baino. /ü/ fonema gure bokale-estrukturan berria dela sinesteko, beraz, berritasuna kasu honetan Iparraldean, eta Xuberoan batez ere, gertatu dela pentsatu behar da. Hau ez zait oso bidezkoa iruditzen; eta Mitxelenari berari ere ez, nik uste: «no es seguro que en éstos, como en otros casos concretos, sean los dialectos occidentales los más conservadores» (FHV, 57). Hizkuntzen joerak, bestalde, eta Mitxelenak berak esaten duenez,

fonema-kopurua GUTXITZERA ohi darama eskuarki. Zuberoa-ko bokale-estruktura seikuna, hortaz, zaharrago dela antzeman daiteke berriz ere: «La mayor parte sin duda de las lenguas de historia algo conocida, ha ido con el tiempo REDUCIENDO el volumen de sus significantes, Y NO AUMENTANDOLO CON DESDOBLAMIENTO DE VOCALES» (FHV, 372).

Nola uler, hortaz, Mitxelenaren beraren iritzia? «Dentro del suletino, el conjunto de fenómenos que afectan a (o) y (u) puede caracterizarse brevemente como una redistribución de variantes de los fonemas /o/ y /u/, con la APARICION de un NUEVO fonema».

Badirudi ez dela hau oso bidezkoa.

Eta Mitxelena ohituta bait dago funtsik gabeko hipotesiak ikusten, ene galdera hau barkatuko duen espero dut: zorakeria ote da ziurki fenomenoa bestaldera ikustea?

Eman dezagun, beraz, hipotesi gisa, geure egiazko eta jatorrizko bokale-estruktura seikuna dela (Zuberoa-koa). Estrukturaren aldakuntza hau izan liteke gutxi gorabehera:

euskal estr.	a	e	i	ü	u	o
erdal estr.	a	e	i	u		o

Ezina da ene ustez (eta honetan estrukturalista naiz berriz ere) /ü/ ren fenomenoa soilki aztertzea; gutxienez /i, ü, u, o/ eta /i, u, o/ taldeak behar dira alderatu. Gure diagrama begiratu, eta baldinkizunaren ondorioak nabarmen agertzen zaizkigu:

- A - Zuberoa-ko /ü/-k, batzutan /u/ eta beste batzutan /i/ beste euskalkietan.
- B - Zuberoa-ko /u/-k, batzutan /u/, batzutan /o/ beste euskalkietan.
- D - Zuberoa-ko /o/ beti /o/ beste euskalkietan.

Beste fenomenoa: erdarazko bokale-estrukturari geure fonetika bortxatzean, nahaspila franko aurkituko dugu, antzinako dokumentuetan batez ere, Zuberoa-ko /u/ eta /ü/ delakoetan: gure /ü/ erdal dokumentoetan (baita geuretan, euskal letrarik ezaz!) aldiz «i» aldiz «u» idatziko da; eta gure /u/ aldiz «u» aldiz «o».

Mitxelena bera (FHV) hartuko dut argi-iturri:

A)	bühürtü	bihurtu
	zübü	zubi (zíbi, R)
	dütüt	ditut
	güti	guti (gitxi, B)
	ülhün	ilhun (ulun, R)
	ürün	irun (urun, R)
	ützi	utzi (utzu R, itxi B)
	üthürri	iturri (uturri, R)
	ütsü	itsu (utsi, R)
	ützüli	itzuli (utzuli, R)
	xümür	ximur (txumur, R)
	üngürü	inguru (unguru R, ingiru B)
	züzü	zuzi (zuzu R)
	gültzürün	giltzurdin (gultzurrun B)
	hüme	ume (ime B)

gü	gu
hür	(h)ur
ürzo	uso
ürhe	urre
güzi	guzi
hüts	huts
üstel	ustel
hün	un

B)	hírur	hiru(r)
	hur	(h)ur
	úrde	urde

úrdirin	urdin
úrthe	urt(h)e
úste	uste
ikhúsi	ik(h)usi
húnki	ongi
hun	on
gízun	gizon
ezkúntü	ezkondu
uhún	ohoin

Ez hori bakarrik. «No es infrecuente la vacilación gráfica entre *o* y *u* en Dechepare y Leizarraga, como ya observó Uhlenbech, y esa vacilación refleja sin duda hechos de pronunciación» (Mitzelena, FHV, 56).

Tartas edo Oihenarte irakurri besterik ez dago, irakurleak berak zalantza horiek berehala nabaitzeko. Gauza bera Urtzi/ortzegun bikotean. Eta beso/besua, esku/eskia (esküa), eta abar, fonetika-fenomeno honen aztarnak direla pentsa daiteke.

Argi ikusten da erdal estroktoretan erabilitako grafia (boskuna) gaizki egokitzen zaigula; baina euskal azterketa sakonik eta ausartarik ezaz, gutxi gorabeherako itzulpen «kolonial» bat besterik ez zaigu gelditu; eta irentsi egin dugu eta ontzat eman. Eta azkenean Zuberoa-ko hizkera «bitxi» gertatu zaigu. Areago: xubereraz egokiro idazteko Gavel-ek eta bestek idaroki dituzten grafia-aldakuntzak ez dira onartu. «H»a osoki baztertzearen aldekoak ez bait ditugu falta...

Gauza bera gertatu zaigu betidanik beste puntu batean: gure prosodia, gure azentoa, ez bait dira erdararen batere kideak, edo alde batera utzi ditugu osotara idazterakoan, edo-ta erdal itzulpen kaskar bat besterik ez dugu eman; txineraren itzulpena gure grafiaz emango litzakeen bezalatsukoa (Lhandek berak, xuberotarra izanagatik ere, ez die azentorik jarri xubererazko hitzei).

Gisa da hau guztia. Gauza bera gertatuko litzaioke Asia-ra joan eta hango folklore-musika Bach-en eskalari lotu nahi liokeen musikalaria.

Gaur arte geure estrukturen arabera euskararen problemak ikusteko eta garbitzeko barne-ausardiarik ez dugu izan. Xuberera ez da, ene ustez, bitxikeria, euskalkirik euskaldunena baizik! Roman Jakobson-ek afasiari buruz egin dituen aurkikundeak hauxe sinestera bultzatzen gaituzte, ene ustez.

Ez dut nik Jakobson-en razionalismoa oso gogoko (Martinet-ek «dogmatismoa» ere ikusi uste du batzutan). Baina puntu batzutan, hizkuntzalariek diotenez, xuxen ikusia da, esate baterako, bokaleen sorreraren eta galeraren legea. Jakobson-ek erakatsi duenez, /ü/ fonema ez da inoiz agertzen haurraren hizkeran /i/ eta /u/ fonemak baino lehenago; eta, alderantziz, afasiak jotzen duen hiztunarengan, lehenago itzaltzen da /ü/ soinua, /i/ eta /u/ baino.

Jakobson-en hipotesi hau (Martinet-ek batez beste onhartua; ikus Ling. Synchr., 100-101) ezaguna da: afasian eta hizkuntzen kondairan agertzeko eta suntsitzeko ilara hori BERBERA DELA. Hitz batez: /ü/ lehenago galtzen da (afasian eta herrietan) /i/ eta /u/ baino. Edo-ta beste modu batera hitzeginez, zaharrago da /ü/, /i/ eta /u/ baino, Jakobson-en arabera. Zubererak ez du «berritu», GORDE baizik. Euskaldun jokabide batetik, hortaz, xubereraren estrukturak (fonetikari buruz ari gara hemen) ahalik eta osokienik atxiki nahi ez izatea, analfabetismoaren sinale da.

Kontsonanteen euskal estrukturak

Bide beretik, ene ustez, kontsonanteen eskualdean ere argi egin daiteke. Hemen ilunago dago dena, galerak zaharrago balira bezala.

Har ditzagun bi hirukote hauek / d, t, th / eta / g, k, kh /. Norbaitek aspaldidanik azaldu duenez gero (Kruttwig-ek uste dut) talde edo hirukote horietatik bikunetara pasatzean / d, t / eta / g, k /, funtsezko erdalkeria legetu dugu; gure euskal estructures zaharra (Iparraldeko

euskalkietan gaur arte bizirik) hirukuna izan bait da, ez bikuna. (Hirukuna omen da ere, bidenabar esan dezagun, Kaukaso-ko hizkuntza batzuen bederen).

Bi diagrama hauek egin ditzakegu:

euskal		d		t		th
erdal		d		t		

euskal		g		k		kh
erdal		g		k		

Euskalkietan barrena fenomeno hauek azal litezke:

A - Aspaldian /t/ idazten zena, orain aldiz /t/ eta aldiz /d/

B - Iparraldeko /th/-ari, bestaldetan /t/ bihurtua.
(eta antzekoak bigarren hirukoteaz)

Mitxelenak dionez «el rendimiento de esta oposición (t/th, p/ph, eta abar) es siempre extremadamente bajo y en alguna ocasión hasta nulo». Zuberoan eta aspaldiko euskalkietan, halere, aspirazioa berezpide izan dela dirudi: bero / berho (sasi), belar / belhar (kopeta), zori / zorhi (suerte), bati (dat.) / bathi (erabaki), ote (cnj.) / othe (landare), merkátü (prezio) / merkhátü (azoka), óker (aupets) / ókher (makur), eri (gaxo) / ethi (behatz), ala (conj.) / alha (damu), eta abar.

Baina erdarak ez ditu fonema horiek berezten: beraz, guk ere ez! Eta erdal estrukturaren alde gehienak! Joanak joan, noski. Baina sustraia bera joandakotzat alde batera utziko ote dugun bildur naiz ni. Ortografiari buruz, errealismoa eta errazkeria gidari, bideetan erdaldunena ari gara onartzen. Jakinarazteak ez digu kalterik ekarriko

Euskarazko kolore-taxuketa

Gauza ageria da gaurko euskal kolore-izendia eta antzinakoa ez direla gauza bera. Mendebaldeko zibilizazioak taxuketa bakar bat erantsi digu europar guztioi; eta antzinakoa, «logika-gabe»tzat ahaztu egin da.

Zenbait izen berriren erdal jatorria gogorazi besterik ez da behar hori sinesteko. Gure «berde», «azul», «laranja», «more», «blü», «brioleto», eta abar, nabarmen mintzo zaizkigu azterkera-aldakuntza horren lekuko gisa. Hitz batez, ontzat eman dugu erdal (edo mendebaltar) koloreen semantika-taxuketa, europar gehienek bezala; eta gune berrietarako, hitz berriak hartu ditugu, denen semantikazabalera aldatuz.

«Berde» hitza eta «orlegi» hitz berria, esate baterako, zaharra eta berria, BIAK dira funtsean erdaldunak eta kideak, kolore-taxuketa kosmopolita BAKAR bati bait dagozkio. Hots, izkutuan eta atzean utzi ohi den semantika-taxuketa hori onartzean datza pentsakera-aldaketa. Izen hau edo hura hautatzea bigarren mailako arazoak dira. Itzalduraren aurreko «soraboak» (Polonia ondoko eslabo-hizkeltzia) semantika-taxuketa bakar bati, hitz-zerrenda bikoitza erasten zion, azkeneko sorabotarrek alemaneraz pentsatzen zutelako. «Orlegi» eta «berde» hitzak (eta ez bi hauek soilki) «sorabo-aldian» abiatuak garela adierazten dute: semantikazko onartu ondoren, abarkak eta kaikua jantzi: «orlegi»...

Jakina: gaurko kolore-taxuketa (mendebaltar zibilizazioarena) ontzat ematea normala da.

Baina fenomenoaren sustraia bilatzen hastea oso beharrezkoa iruditzen zait; koloreen taxuketa berriaren gakoak ulertuz, besterik ere ongi konprenitzeko bidea dugu-ta.

Zein ziren jatorrizko euskal hitzak koloreei dagokienez?

Gure hiztegi-egile zaharrenak (N. Landucchio-k) hauek zekazkien 1562-an, Araba-ko euskalkian:

- Gorria: 1/ bermeja; 2/ ruujo encendido; 3/ colorado
 Baina «arrauntza korrinkoa» ere bazekarren
 (baita «arrauntza zurinkoa», jakina).
 «Urregorria» = oro, metal.
- Oria: Ruujo («gauza oria = ruuja cosa»).
- Azul: («Gauza azul = azul cosa»).
- Urdin: 1/ cano («cana cosa = gauza urdina»);
 2/ moho («moho de pan = ogian urdina»);
 3/ pardo («pardo color = kolore urdina»;
 «pardo animal = abere urdina»).

Erdarazko «verde» itzultzeko hitzaren gunean, zuri dago. Alegia, Landucchiok ez zuen ezer jarri. Baina «hojaldre» euskaratzeko, «orri berdea» dakar.

Beraz: «berde» eta «azul» erdara huts. «Urdin» ez zen Araban inolaz ere guk gaur «azul, bleu» erdaraz esaten duguna; eta «ori» eta «gorri»ren arteko muga ez zen ere gaurkoa.

Larramendik, berrehun bat urte geroago, bide beretik bultzatzen gaitu (ikus haren bigarren hiztegia):

Oria: amarillo.

Urdina: azul, cano («urdindu» = encanecer, dio).

Morea: morado, cárdeno.

Gorria: colorado, rojo, tinto.

Ubela: descolorido, pálido.

Ubelurdina: cárdeno, cetrino.

Balzgorritua: amaratado.

Bermejoa: bermellón.

Belarrurdina: añil.

Oihenartek hau dio: «Goizerria denean gorriago ezen ez hori» (Atsotitzak, 612).

Azkuek, bizkaierari buruz ari delarik, azalpen gogoangarria eman digu erdal «amarillo, jaune»-ari dagokionez. Eta hau dio: «Se distinguen tres matices en el color amarillo: ORI, amarillo del canario; BEILLEGI, amarillo muy vivo de color vaca; LARU, amarillo pálido, gualdo»

(Dicc. 530). Halaz ere, «abelgorri», ganado vacuno, dakar (Dicc. 7); eta bizkaieraz ere erabiltzen dela dio.

Jakina denez ere, bestalde, koloreetatik at ere erabili ohi da «gorri» hitza: Aizkorri, larru-gorrian, lur gorrian lo-egin, eta abar.

Ikus dezagun orain «azul, bleu»-ren kolore-gunea. Gaur «urdin» erabiltzen dugu horretarako; baina «azula» ere esan ohi da. Horrez gainera, besterik ere bada «urdina» gaur bertan: «ilea urdindu» esaten dugu, zeharo zuritzen hasi aurretik; eta «mutxurdin» hitz gordinak sentidu bera du irakurleak asma dezakeen bezala. Azkuek «dundu»(R) aipatzen digu (Dicc. 368). Euskal Herriko Ekialdean, bestalde, «urdin» gure «ur arre»aren antzekoa da (alegia, agua turbia, eau peu claire). «Urdin», beraz, bertago bide dago azkenean hauetan erdal «gris, gris» hitzetik, erdal «azul, bleu» delakotik baino. Zer koloretakoa da «gibel-urdina» ziza-mota? Azaldu didatenez, ez oso «bleu, azul». Ezta oso «azul, bleu» ere gure «urdin-sagarra» eta «urdintxa» onttoa, uste dudanez. «Urdin» hitzak, hitz batez, espektro-zabalera handiagoa du gaur bertan erdarazko «bleu, azul» delakoak baino. Lhande-k «urdin-gris» dakar; eta segidan bost landare-hitz, bostak urdin-dunak.

«Berde» hitzaz hau dio Azkuek: «Il est étonnant que ce vocable, étranger comme tout le monde le pense, n'ait pas d'autre mot que sa variante «ferde» pour désigner cette couleur si commune» (Dicc. 153). Landucchiok ere, esan dugunez, ez zuen ezer jarri. Ez da hau, ordea, BATERE HARRIGARRIA! ERDAL ESTRUKTURA ONARTZEN DUGULAKO ZAIGU BITXI! Zuberoa-ko /ü/ edo Bizkaiko «neba» bitxi zaizkigun bezalaxe!

«More» hitz berria da; baina Azkuek berak dionez, aldiz «azul, bleu» itzultzen da, eta aldiz «morado, violet» (Ikus Dicc. II, 44).

«Ubel» hitzaz zer esan? Kolpatu ondoren larruan agertzen den moretasuna bide da zabalkienik «ubela»; eta horretatik «ubeldu» eta «ubeldura» (cardenal, echymose; Azkue, Dicc. II, 349).

Oso gogoangarria da honi buruz aspaldiko dokumentoen azterketa egitea. Ricardo Zierbide-k berriki erakutsi duenez (ikus «*Fontes Linguae Vasconum*», 6 gn. Znb., 290-291, 1970), XIII mendean gutxienez «*Urdin*» erabiltzen zen («*Domenca beguyurdina*», Iratxe XIII), eta begiei buruz denez gero «*ojos azules, yeux bleus*» itzuli behar dela dirudi. Zer dira, ordea, artxibo horretantxe Zierbidek aurkitu dituen «*Miquele hurdina*», eta Herri-berri-koan (Olite-koan) «*Garcia ordynn*»? Ba dirudi, MENDE BEREAN ETA EUSKALKI BEREAN, bi kaso hauetan «*canoso, chenu*» ulertu behar dela.

Badirudi beraz euskal kolore-estruktura zaharrea hitz batzuk daudela erdal (rojo + amarillo: rouge + jaune) koloreguneak betetzeko; eta (verde + azul: vert + bleu) gunerako ez dagoela euskaraz hitz bat baizik: «*urdin*» hain zuzen.

«*Gorringo*» eta «*abelgorri*», bestalde, zantzu bikainak dira. Baita «*urdin*»ek atxiki duen adierazkizun-multzotasuna.

Entzun dezagun orain Martinet, eta gure «*bitxikeria*» horiek batera bitxi ez direla ulertuko dugu: «*Là où un Français a le choix entre «bleu», «vert» ou «gris» pour traduire ses sensations, un Breton ou un Gallois devra se contenter du seul mot 'glas' qui recouvre les trois domaines du bleu, du vert et du gris. Dans beaucoup de langues, la zone du spectre solaire où nous distinguons du bleu, du vert et du jaune correspond à deux couleurs seulement, de telle sorte que ce que nous désignons comme vert reçoit une épithète différente selon que le vert se rapproche plus du bleu ou plus du jaune*» (Ling. Synch., 6).

Badirudi, beraz, euskal estruktura zaharra eta zelti-koak ez direla oso desberdinak. Eta diagrama hau egitea zilegi dela iruditzen zait:

Mendebalde	rouge rojo	naranja orange	jaune amarillo	verde vert	azul bleu (+ gris)	morado violet
Eusk. zah.	gorri		hori	urdin		ubel

Arrautzaren gorringoa «gorri» da; behiak «gorri» batzutan; ontto batzuk «urdin», zerua ere «urdin»; eta zahartzerakoan ilea «urdindu» egiten da.

Hizkuntza etnia-olerkimenaren ekarri berezia

Hizkuntzak gertakarien eta ideien nahaspilan ezartzen duen taxuketa berezia, behin eta berriz esan dugu, ez da logikoa, etnikoa baizik. Etnikoa, herri horren belaun guztien arteko moldaketa delako. Hizkuntza da, horretara, herri baten kultura-sorkari nagusia: denetan osoena, sakonena eta herritarrena.

Zerk eragin du, ordea, herri bat munduaren fenomenoak honetara edo hartara taxutzera? Erantzuna ez da zalantzakoa: herriaren olerkimenak sortu du hizkuntza; edo gure lagun batek erdaraz esan ohi duen bezala: «El idioma es una Poética popular».

Xuxen ikusia. Hizkuntzaren taxuketa analogiaz, oposizioz, idurikuntzaz egiten da. Hots, hauxe da Olerkiaren bidea. Hizkuntza bakoitzean, eta honen taxuketa berezi horietan, gauza bat ageri da beti: antzekoen elkarketa, aurkarien hautaketa, metaforaren erreinua; hitz batez, Olerkikuntza ageria eta izkutua. Sapir-en hitzez esateko: «hizkuntzaren giharra logika-gabe eta metaforaren aldeko isuria da» (Le Langage, 99).

Argi eta garbi azaldu zuen hau aurrenik Benedetto Croce-k (ikus haren «Estética»); eta geroztik ez da gogoe-ta hau ukatua izan. Sapir-ek berak hori aitortzen du: «Pentsamentu argituan eraginik izan duten gaurko idaz-

leen artean, hizkuntzaren funtsezko gakoa somatzen, Croce izan da bakanetakoa. Hizkuntzaren arazoa eta Artearen arazoa noraino diren elkargandik hurbil agerrarazi bait zuen» (Le Langage, Hitzaurrean). Eta Emerson-ek: «Fosildutako poesia da hizkuntza».

Hizkuntzen estrokturerek eta «Logika» abstrakto delakoak (zer da hori?) ez dute lotura handirik elkarrekin; hizkuntzazko estrokturakuntza bertago bait dago olerkigintzatik, logikaren araberrako moldaketetatik baino. «Il n'y a aucune interdépendance nécessaire entre les catégories logiques et les catégories linguistiques» (Martinet, Ling. Synch., 62).

Unibertsaltasunaren mugak

Orain artekoan ageri denez, hizkuntzak pentsakera berezia ematen du, azterkera berezia, taxukera berezia. Hizkuntza ez da axaleko jazkera. Hizkuntza ez da mundu eta ideia-multzo logiko eta berezko BERBERARI legokiokeen HIZTEGIA.

Hiztegiak (eta hizkuntzaren araudiak berak) baldindu egiten du gure azterkera; eta gure 'Logika' bera. Hizkuntza aldatzean, beraz, soziologia-mailako ondorio ezin larriagoak aipatu gabe, Inkontzientean bertan finkaturik daukagun pentsakera edo hausnarpidea egiazki aldatzen dugu. Horregatik da oso zaila, ia-ia ezina, bigarren hizkuntza batez arras ongi mintzatzea; batez ere bigarren honen estrokturak, fonetikazkoak eta semantikazkoak, guztik desberdinak direlarik.

Geure azterbidea «logiko» iruditurik, oso nekez egokitzen gara soinu eta ideia-berezketa «bitxi» edo «zentzugabe» berrietara. Inglesez ikastean, esate baterako, ez dugu aisa antzematen «read» eta «read up»-en arteko diferentzia; ezta «I have come» eta «I came»-ren artekoa. Frantsesek, esate baterako, gorriak ikusi ohi dituzte «if» eta «whether»-en arteko desberdintasuna ulertzeko («si/si»). Guk euskaldunok aldiz ez dugu horretan ezer gogo-

rrik ikusten, «etorri bada» eta «etorri den» era berberean berezten ditugulako (kontutan har, halere, kaletarrak hasiak direla nahastutzen, eredutzat erderaren bakuntasuna hartuz: «ez dakit etorri bada»...).

Hizkuntzak azterpide berezia ematen dio etniari: «Nous mesurons jusqu'à quel point c'est la langue que nous parlons qui détermine la vision que chacun de nous a du monde. Nous découvrons qu'elle tient sans cesse en lisière notre activité mentale, que ce n'est pas une pensée autonome qui crée des mythes que la langue se contentera de nommer... mais que les mythes bourdonnent sur la langue» (Ling. Synch., 35; Martinet). Eta beste leku batetan: «De façon générale, les structuralistes contemporains estiment que c'est la forme de sa langue qui tendrait à imposer à chaque peuple ses mythes et ses croyances plutôt que les croyances et les mythes qui fournissent à la langue ses catégories... Je reste convaincu que le point de vue du structuralisme contemporain représente une très saine réaction contra le psychologisme des générations antérieures» (Lyng. Synch., 184). Eta Sapir-ek: «Orain dela berrehun urte baino ulert-errazago zaigu gaur pentsamenturik abstraktoena ere izan daitekeela, eta aisa, hizkuntzazko sinbolismo oharkabe eta inkontzientearen axal kontziente hutsa» (Le langage, 20). Filosofia, alegia, askotan izaten dela hizkuntzaren sinbolismo izkutu horren azalpen soila.

Hein batean, beraz, baldindu egiten du hizkuntzak gure pentsakera. Eta hizkuntza etniaren oinharria denez geroz, etniaren funtsa, herriaren herritasunaren sostengua, horretara, gaurko estrukturalisten iritziz, hizkuntza da.

Azken oharra, dena dela: hizkuntzak ematen duen pentsakera hori ez dela, noski, ez burjesa, ez langilea, eta ez deus horrelakorik. «Koska» hau ere jarri bait didate batzuek! Behin eta berriz liburu honetan agertzen den bezala, pentsakera hau ez da politikaren mailakoa, LOGIKAREN MAILAKOA BAIZIK; askoz ere sakonagoa, beraz. Gero logika-atomo gisa erabiltzen duguna, hizkuntzaren taxukeraren ondorio da; eta maila honetan eta alde

horretatik, hizkuntza da pentsakeraren moldea eta baldinkizuna. Ez naiz ni neure buruz mintzo, beraz. Gaurko Hizkuntzalaritza eta Filosofia daude horretan.

Hizkuntza pentsamentuaren arau eta funts-emaile

Orain artekoa esanik, goazen aurrerago.

Hitzik gabe pentsatzea posible dea? Alegia, hizkuntzarik gabe pentsa ote dezake gizonak?

Baietz dirudi haseran: hitzik erabili gabe ere, gure «Logika» famatu horrek aurrera eraman dezakeela bere eginkizuna. Bertatik eta xehetasunez aztertuz gero, ordea, ez da hori agertzen; eta psikologiak ondorio beretara garamazki.

Har dezagun adibidea. Matematikak aurrera joan dira matematikazko sinbolismoa bazutelako: «ezina da ematea giza-izpirituak matematikazko problema zailak sinbolorik gabe ez asmatu eta ez garbitu egin zitzakeenik» (Sapir, Le Langage, 19).

Gauza bera esan daiteke musikari buruz: aurretik eskala eta soinuen taxuketa, sinbolismo osoa hitz batez, aurretik aurkitu ez balira, ez Bach-ek ez Beethoven-ek ez Débussey-k ez zuketen beren musika ospatua sortuko.

Era berean gure pentsamentua eta kultura bera: aldeztatik hizkuntza den sinbolismoa gabe, ez bata eta ez bestea zirakeen jaioko. Hizkuntza pentsamentuaren araua eta moldea da egiazki. Analfabetismotik irten nahi dutenek ez dute amor eman nahi, eta hizkuntza pentsamentuaren «jazkera» edo «arropa» hutsa dela diote; alegia, giza-soinari jantzia dagokiona. Hizkuntzaren arropa axaleko horien atzetik Adimena, Logika, eta Pentsamendua sendo eta libro beleude bezala. Eta, jakina, pentsakera eta azterkera batek ere, hizkuntzaren «axal» horietatik at balego bezala. Sasi-razionalismo hauek erauzi egin behar dira: hizkuntzari esker pentsa dezake gizonak; eta gizonaren pentsabidea hizkuntzak baldintzen dio hein batez: «hizkuntza, estruktura den aldetik, barne aldetik

pentsamentuaren moldea da» (Sapir, *Le Langage*, 25).

Badago funtsean, ez da dudarik, hizkuntzaren sorreran, hauen guztien sinbolismoaren erroetan beretan, hizkuntza-tasunaren iturrian bertan alegia, giza-izpirituaren TAXUTU-BEHARRA (Inkontzientea, hain zuzen, gaurko psikologilarien iritziz). Taxumen edo ordenatu-nahi hori hizkuntza bera baino sakonagoa da gizonarengan: taxumen horrek eman ditu mitologia eta hizkuntza, ametsak eta utopiak.

Oso ezaguna da psikologian Sapir-ek aipatzen duen jokabidea. Alegia, edonori bi hitz elkaturik esanez gero, konturatu ere gabe entzuleak, ulertu-nahiz, TAXUTU egin nahi ditu, nola edo hala bikote horretan «mezu» bat aurkitu nahiz. Munduaren fenomenuak TAXUTUZ argitu nahia: honatx hemen beharbada gizonaren isuririk sako-nena.

Baina oharbabeko taxutu-nahi eta taxutu-behar horretatik kulturara igarotzeko, Inkontzientziatik Kontzientziara pasatzeko, HIZKUNTZAK, ez bestek, eman dezakeen sinbolismoa behar da. Eta Sapir-ek bezala esango dut nik ere: «pentsaeraren barrutira iristeko ez dugu bide bat baizik ezagutzen: hizkuntzarena».

Bide hau, ordea, ez da gardena: bere kutsua uzten du. Eta Sapir eta Whorf hizkuntzalariek agerrerazi dute hori garbikienik.

Itzul gaitezen berriz ere koloreen taxuketara; adibide klasiko horretan argi agertzen bait da hizkuntzaren taxuketa berezia zertan datzan. Mendebaldeko kolore-taxuketa modernoan, zer da «laranja» adjetiboa? Kontuz! «Laranja» kolorea ez da ezer, izan. Laranja-kolorea ondoko koloreen bidez mugatzen da; alegia, «gorri» eta «hori» delakoen artean dagoen kolore-guneari (kolore mordoa, bestalde) «laranja» deritza. Frekuentzi-banda osoa «laranja» bataiatu dugu. Baina taxuketa hori ez da guztiz xehea eta ongi mugatua: muga-inguruko kolore-doia bi ikusleri erakutsiz gero, bion artean eztabaida gerta daiteke: batak «gorri» esango dio, eta besteak «laranja» oraindik.

Era berean, euskarari gagozkiolarik, fonetikaren mailan, /e/ ez da ezer, /a/ eta /i/-ren arteko soinuen arteko sinboloa baizik. Ez du «izanik» edo «izakirik». Errelazio edo oposizio hutsa da; eta oposiziotasun horretan du oinharri bere sinbolotasunak.

Molda dezagun orain esakuntza mordo hau: «liburu honen azala laranja da. Gorria ahal da? Ez da gorria, laranja baizik», eta abar, gramatiketan bezala. Esakuntza horiek guztiak oso errelatiboak dira; eta beste hizkuntza batera itzuliz gero, hizkuntza honek kolore-estruktura berbera ez izatekotan, **GUZTIK ZENTZUGABEAK EDO TAUTOLOGIKOAK ERE.**

Hitzen izana («esentzia» esango lukete batzuek) ez da EZER. Hitzen balioa, hizkuntza bakoitzean OPOSIZIO-GISA sortzen da. «L'indépendance de la langue vis-à-vis de la réalité non linguistique se manifeste plus encore par le choix des signifiants, dans la façon dont elle interprète en ses propres termes cette réalité, établissant en consultation avec elle, sans doute, mais non souverainement, ce qu'on appelait ses concepts, et QUE NOUS NOMME-RIONS PLUTOT SES OPPOSITIONS» (Martinet, Ling. Synchr., 34).

Ideien «esentzia» hori, beraz, unibertetsala, eta abar, MITOA DA; eta mitozat salatu behar da. Ideien funtsa bera hizkuntzaren taxuketa bereziak ematen du. Etniak osatutako hizkuntzak markaturik eta baldindurik gaude denok: haren gramatikari eta kategoria izkutuei datxeken moldaketan hoziturik abiatzen gara denok, nahi ala nahi-ez.

Oso gogoangarriak dira, honi buruz, Whorf-ek «Language, Thought and Reality» deritzan liburuan egin zituen azterketa argitsuak. Problema hau benetan garbi ikusi nahi duenari, ez zaio Whorf-en lanetara joa damutuko.

Martinet-en iritzi batzuk

Hizkuntzak pentsakera moldatzen duela ez dute gaur hizkuntzalariek zalantzan jartzen. Ondoko kapituluan

Whorf-en ideien laburtzapena eman aurretik, bil ditza-gun hitz gutxitara Martinet-en ideia nagusiak, joera berrien erditsuan Martinet delako. (Ikus, batez ere, *Linguistique Synchronique*, 196... 205; eta segidan, eta adibide gisa, euskararen «ergatibo»ari buruz idatzi dituen orrialde gogoangarriak, L. S., 206-222. Teknikoak ez diren kapituluak ere oso mamitsu dira Martinet-en *Eléments de Linguistique Générale*, 9... 51 batez ere).

Eman dezagun —dio Martinet-ek— euriaren fenomenoa. Euria, berez, ez da «gauza» (pianoa, harria edo katu «gauza» diren modura), «bilakaera» edo «procès» baizik. «Euria ARI du», diogu euskaldunok; eta egoki esan, euria beti ari bait du, ez bait da geldirik dagokeen edo bere buruz higi daitekeen «gauza». Frantsesek, horretara, «pluie» (euri, gauza) eta «il pleut» (euria ari du) berezten dituzte estrukturakiro; baina fenomeno berberari buruz mintzo dira.

Indo-europatar hizkuntzak mintzatzen dituztenen iritzi, gauza «garbia» da eta guztiz «logikoa» izaki-mordo nabarmena osatzen dutela «gauzek» (izen edo 'sustantibo'en oinarri), eta beste izaki-mordo nabarmena ere osatzen dutela «bilakaerek» (berboek).

Halere hau ez da horren egia garbia; eta «logikatasun» hori ez da indo-europatarkeria baizik. Argiro guk ez erreparatzeak ez du joeraren desegokitasunaren funtsa ukatzen.

Martinet-ek hiru irizpide nagusi somatu uste ditu (izen/berbo) bitasun «logiko» horri buruz. Talde batekoek hau diote: mundua hala da; eta, zernahi eginik ere, biketa hori *kosmoan* dagoelako, gizon guztiek onartzen dute, eta hizkuntza-estruktoretan sartzen. Beste talde batekoek, aldiz, «ernexeago» direnek Martinet-en ustez, hau diote: ez da kosmoa bera biketa horretara behartzen duena; baina *giza-izpirituak*, ezin bestean, bitasun hori ezartzen du. Eta badago hirugarren talde bat (eta Martinet-ek hauen artekotzat dauka bere burua, «les sceptiques») eta hauek ez dute sinesten ez bata eta ez bestea: «biketa hori gizon guztiei nahi ta nahiez eratzekitzen zaiela, oso zalan-

tzan jartzen dute hauek; eta, aitzitik, beste hau sinesten dute: pertsonak bere gizaro edo girotik jaso duen HIZKUNTZA-ESTRUKTURA dela, funtsean, munduari buruzko bere ideia nagusiaren moldakeraren kakoa».

Estruktura antzekoa duten hizkuntzen arteko gorabeherak ez dira beraz larriak (geroxeago Whorf bezalaxe mintzatzen zaigu orain Martinet): «lorsque le linguiste traite de sa propre langue, ou d'idiomes de structure analogue, il peut paraître inutile de se poser des problèmes à ce sujet».

Baina estruktura desberdinetako hizkuntzataraz pasaz gero (eta euskara aztertzerakoan, beraz, M. Molho-k behin eta berriz eskatu ohi didan bezala) geure Subkontzienteraino sartu zaigun sasi-Logika hori —alegia, indo-europatar erdaren estrukturari dagokiena— erauzi egin behar dugu. Hots, hau ez da batere erraza: «Le schème linguistique familier exerce sur la pensée du chercheur une **PRESSION CONSIDERABLE**. La tentation de repenser le monde en d'autres termes ou bien n'existe pas, ou n'aboutit qu'exceptionnellement à déformer sans remède la représentation du système de la langue».

Areago —dio Martinet'ek— baita bilinguismo edo elebitza osoa dagoen kasoetan (eta hau ez da maiz gertatzen) elebidunak, bimintzodunak; beti ere gizarte-aipamena edo ohorea duen hizkuntzaren estrukturak hartu ohi ditu oinarriztat bi hizkuntzetan. Eta hitzez hitz hau dio: «Le Basque, à qui l'usage de l'espagnol ou du français, sinon les exhortations du maître d'école, a appris à distinguer sujet et objet, perd le sens de la valeur particulière de son ergatif». Egia hutsa: sasi-euskaldunetan eta sasi-elebidunetan sarri entzuten ditugu honelakoak: «Zein jan du hau? Nere laguna esan zidan atzo. Zenbat esan du hori?», eta abar. Jokabide horren kakoa, gorago ere esan dudanez, hau da: «Zergatik -K hori? Ez da logikoa. Aski da sujetoa zein den asmatzea». Alegia: erdal estrukturak dira onak, logikoak eta gogoangarriak... Euskararenak, berriz, bitxiak, arloteak, zebreak, arkaikoak, nik dakitaz zer besterik?

Hau guztia erdi-ilunpetan gertatzen da, ongi dakit; baina gure tenperaturaren termo-regulazioa, esate baterako, ez da oso argitan eta konturaturik gertatzen. Alta, grado pare baten gehiegia aski da sukarrak honda gaitzan. Hizkuntzari dagozkion jokabideek gure izpirituan aztar-nak uzten dituela «gauza zihurra da» Martinet-en ustez.

Eta, berriro ere (izen/berbo) edo (gauza/bilakaera) biketa sasi-logikora itzuliz, hau dio: «il est vraisemblable qu'une communauté n'atteint à une claire conception de l'opposition entre objets et procès QUE LORSQUE LA LANGUE QU'IL EMPLOIE lui en donne les moyens, en distinguant formellement entre les uns et les autres». Alegia, ageri denez, etnia bateko lagunek ezin dezaketela argiro egin (gauza/bilakaera) biketa hori, erabiltzen duen bere hizkuntzak bien artean gramatika-liferentziarik gar-biki egiten ez badu.

2. Whorf-en errelatibitate-oinarria

Hizkuntzak pentsakera baldintzen eta mugatzen duela ez dute gaurko hizkuntzalariek zalantzan jartzen. Humboldt-ekin lotura eginez, Saussure-ren zientzia-bultzada berriak indartu egin du haren soka nagusia: alegia, giza-talde baten pentsakera berezia dela hizkuntza. Hizkuntza «herriaren arima» dela ez dute gaur erromantikoek esaten, hizkuntzaren jakintsuek baizik! Jean Lacroix filosofoak horri buruz idazten zuenez: «Egungo Hizkuntzalaritzak zalantzan jarri du hain zuzen giza-izpirituaren batasunari dagokion oinarria. Aitzitik, hizkuntza bakoitzari munduaren ikuskera berezia dagokiola erakutsi du» (Le Monde, 17-V-1964). Georges Mounin-en izkribu bikainak irakurri besterik ez du irakurleak hau egiztatzeko.

Ez da joera hau denen gogokoa. Eta etsita zeuden razionalista «abstrakto» batzuk piztu egin dira azkeneko urte hauetan, pitin bat aurrenik R. Jakobson-en ideiekin, eta askoz piztuago Chomsky-renekin. Bilakaera edo eboluzioaren alde aipatzen den guztia ez bait da beti eboluziotasun fina eta egiazkoa, ez urrik eman ere, eta estaltzen

ere gaituen eboluziokeria lagun, leloa ez dute luzatu: hori «gainditua» da, «estrukturalismoa joana da», eta abar.

Humboldt-engandik hasita, ordea, Korzybski-ganaino badago hats bakar baten ekarri etengabea, argi egile: «hizkuntza bakoitza munduaren ikuskera jator eta berezia da».

Joera honetan ausartena beharbada Benjamin Lee Whorf dugu (1897-1941).

Judua, bizipidez urte askotan ijeneru batetik, eta horren gazterik hil zelako bestetik, ez du Whorf-ek ahal zukeen guztia eman. Ondikotz! Sapir famatuaren ikasle, baita Unibertsitatean ordezko ere 1937 eta 1938-an, Whorf Arizona-ko azteka-mintzairen espezialista izan zen. Hopi-hizkeraz, batez ere, lan bikainak utzi zituen, Hopi-tarren gramatika eta hiztegia bereziki.

Whorf nor zen somatzeko aski izango da haren bi eza-gutarazleen izenak ematea.

Aipatua dut lehenengoa dagoeneko: Edward Sapir, Amerikak gaur arte eman dituen hizkuntzalarien artean, handienetakoa. Hots, Sapir-ek berak joera berriei bide irekiz, hau idatzi zuen orain dela mende erdi bat: «Ez dira gizakumeak soilki mundu objetiboan bizi; ezta, eskuarki uste dugun modura, gizarte-ekintzetan ari ere. Beroien gizartean mintzabide bihurtu den hizkuntzak baldintzen ditu txit. Guztiz oker daude, beraz, ia-ia hizkuntzaren artekotasunik edo kutsurik gabe munduari itsasten edo egokitzen gatzaiykiola uste dutenak. Oker daude oso, mintzatzeko edo pentsatzeko askatu behar ditugun korapiloak askatzen, hizkuntza bigarren mailako tresna besterik ez dela uste dutenak. Besterik da egia: «egiazko mundua» deritzana, oro har, geure taldearen hizkuntzaren arabera eraikia dugu oharkabea... Hein batean, gutxienez, geure zentzuen mezua hartzeko era (ikusmen, entzumen, eta abar) geure giza-multzoaren hizkuntza-ohiturek horretaratua da. Hizkuntza-molde gorde horiek irizkera berezi batetara bultzatzen gaituzte» (Sapir, Whorf-ek aipatua, Ling. et Anthr., 69).

Bigarrena USA-ko aleman bat: Franz Boas, hizkuntza-lanetan ausarki ari izanagatik ere, antropologozat eza-

gunago, eta ez beti Sapir gogaide. Aski da Kardiner irakurtzea, esate baterako, Boas-en balioaz eta zientzia-gotor-tasunaz ziur egoteko: «Boas-ek finkatutako errelatibitatearen balioaz ez dago dudarik. Indoeuropatar eta semita hizkuntza-familia nagusietan baliiodunak ziren esturkturak eta kategoriak, ez zituen Boas-ek haintzakotzat hartzen jatorrizko hizkuntza arrotzak aztertzeke. Hizkuntza bakoitza beraren esturkturen arabera azertu nahi izaten zuen... Hizkuntzaren ezaguera sakona guztiz beharrezkoa iruditzen zitzaion soziedade baten etnologia egiteko» (Introd. à l'Ethnol., 215).

Aburukide C. Levi Strauss ere: «Argitasun miresgarrian idatzitako orritan, Boas-i dagokio kultura-fenomenoen funts gorde eta inkontzientea lehendabizikorik salatu izana. Fenomeno horiek hizkuntzaren fenomenoen kide eginez, hizkuntza-pentsaerak gero ezagutu duen hazkunderaren aintzindari agertu zen, baita etorkizuneko etnologiarene mailan bertan somatu besterik egiten ez ditugun zientzia-agintzen igarle» (Anthrop. Structurale, 26). Eta beste leku batetan: «Boas-en jokabide teorikoa zertan izan den gauditua ez zait agertzen» (Anth. Str., 16).

Benetako igarle baten kera du Whorf-ek batzuten. Zientzia-bideetan sartzen lagundu zuten Sapir eta Boas ez ziren oker ibili, itxura denez; eta gaur bertan ere argi-iturritzat du Whorf hizkuntzalari askok.

Esaera bikain batez azaltzen digu Whorf-ek egiazko gramatikalariaren eginkizun nagusia: «Hizkuntzalaritzaren izpiritua ikur, adigarri edo zinifikazioen bilaketa da funtsean... Hizkuntzalaritzaren egiazko helburua hauxe da: hizkuntzaren itzalguneak argitan jartzea» (LA, 35).

Eta bestetan ere ematen dituen adibide ederren lerrotik, Whorf-ek argi eta garbi utzi nahi du berezkuntza bat. Gauza bat da —dio— hizkuntza *erakastea* (mintzatzen ikasteko, eman dezagun), alegia, hizkuntza horretaz *baliatzen* erakasten duena. Eta beste gauza, guztiz beste maila batekoa, hizkera baten hizkuntzalaria, ikertzailea, hizkera horren gako gordea eta xoko bitxiak argitzen dituen. Gauza bat da —dio— bilarreko bolak egokiro joka-

tzen jakitea, eta beste gauza bat bola horien mogimenduei dagozkien mekanika-legeak bilatzea.

Whorf-en ustez, beraz, eta gero ere Levi Strauss-engan joera berbera aurkituko dugu, funtsezkoena hizkuntzaren jakintzan ez da ageri dena, ezta hiztunari baliagarrri zaiona ere; *izkutuan* datzan sinbolismoa eta estruktura baizik. Askoz ere sakonago eta zaharrago zaizkio Hizkuntzari datxekon taxumena eta sinbolo-sormena, material-lanketa baino (Ikus Ling. et Anthr., 107).

Era berean, Whorf-ek inportanteagotzat eta barnagotzat dauka Inkontzienteak agerrarazten duen estruktura-keta gordea, axalean aurki daitezkeen erregelak eta sasilogika baino. Hizkuntzaren arazoan, Inkontzientearen nagusitasunaz sinistuta dago Whorf. Ez du zalantzarik: «Hizkuntzaren sistemaketa edo erabidearen arabera iritz daitekeenez, Papu buru-ehiztari baten izpiritu gorena edo Inkontzientea, Einstein bera bezain aisa eman dakieke matematika-gogoetei» (LA, 195).

Herririk «atzeratuene» hitzegiten dituzten mintzairak Whorf-ek aztertu zituelarik, gauza bat agertu zitzaion: haien hizkuntza-estruturaz izkutueta jakinduria zorrotza zetzala beti, logika hertsia baten ondorio den Inkontzienteak sortuko balitu bezala. Logika arkaiko honek, ordea (arkaikoa sortu dituen sinbolo-ataletan, kasu!) ez ditu gure fenomeno-zatiketa elementu edo atal berberak erabiltzen eta taxutzen, analogiaz eta sinbolismo estetiko bidez hautatutako elementu edo atalak baizik. Horregatik, hizkuntzaren estruktura logika izkutua (gero Lacanek ametsen estruktura logikaz dion bezalaxe) bilatu egin behar da; gaurko gure zatiketa kontzienteak, edo Mendebaldeko giroak kutsatuak, eta aspaldidanik Inkontzienteak gure hizkuntzetan egin zituenak, ez bait dira gauza bera. Gogora bedi irakurlea, hau guztia ulertzeko, koloreen taxuketez esan dugunaz: gure kolore-bandak eta antzina-koak (Aristoteles-ek *hiru* kolore aipatzen ditu!) ez dira zabalera berekoak, behin eta berriz esan dudanez.

Lanean ari da, beraz, Logika bera; baina EZ GAUR ERABILTZEN DITUGUN ZATIKETA-ATAL BERBE-

REKIN. Levi Strauss-ek (eta Whorf-ek gauza bera, kapitulo honetxan azkenerakoan agertuko denez) Levy Bruhl-en kontra gogorkiro hitzegin duelarik, beti agerrerazi du estrukturalisten ideia nagusi hau: izkutuan ari den Inkontzientea, taxumen edo ideia-antolamen LOGIKOA dela, bai; ez dela mistikoa axalean baizik. Baina, berriz diot, darabilzkien elementoak edo «hitzak» ez direla, semantika-muinez, guk gaur erabiltzen ditugun elemento berberak. Hortik gure harridurak.

Irakur dezagun Whorf: «Lilura bitxia atxiki du buxuan Mendebaldeak. Gure ustez, Algebra asmatu zuten antzinakoek aurkikunde miragarria egin zuten. Uste okerra da hau, ordea; milaka urtetan barrena horixe egin izan bait du gizonaren Inkontzientek» (LA, 197).

Whorf-en ustez, horretara, ez da inon hiztuntza arlote edo arkaikorik. Hizkuntza guztietan dago azterketa zorrotzik; nahiz azterketa edo taxuketa horiek denetan ere desberdinak izan.

Ez dago, beraz, ez hizkuntza aurreraturik ez atzeraturik. Hizkuntza guztiak dira, zein bere erara, giza- esperientziaren taxuketa oharkabe edo inkontzientek; baina denak sakonak eta funtsezkoak. «Hizkuntzaren sailean zientzia-HAUSNARKETA zinezkoa egiten hasiz gero, eta tema guztiak bazterrera utzita, gauza bat ageri zaigu: itxuraz intresik ez duten kulturetan eta herrietan, harritu ere egiten duten azalpide zientifikoak, eder eta pizkor, aurkitzen direla, Mendebaldeko indo- europatar hizkuntzetan ez-ezagunak. Algonkin deritzaten hizkuntzetan, esate baterako (ehizeaz eta arrantzaz bizi diren oso indio apaletz hitzeginak) analisiaren eta sintesiaren eredu zorogarri diren azterpide franko dago» (LA, 207-208).

Sapir bezala (ikus «Le Langage», 120) eta estrukturalista guztiak bezala, Whorf ernegatu egiten da sasi- eboluzionismoaren iritzien kontra; zeren-eta hizkuntzen sailean aurrerik eta atzerik ez bait dago, pentsakera edo azterkera logiko berberaren «aurrerapen»ik ere ez dago. Hizkuntzek ez dute elkar garaitzen, ez dira logika-lerro bakar batean segida bereko kate-begi; gero eta hobeak eta osoa-

goak. Homo Sapiens Pithekanthropoa baino «gorago» den modura (Homo Sapiens-en iritziz, jakina!). Kosmoa eta giza-bilkuntza edo esperientzia guztia errotik modu desberdinetara eratutako sinbolo-sistema berezi mordoia dira. «Hizkuntza-zientziaren ulertzeak tokian tokiko kulturaren mugetatik at eramaten gaitu, nazioetatik at, «arraza» baitaiatutako berezgarri fisikoetatik at; eta hizkuntza-sistema horien taxuan eta elkarketan (beti ere desberdina), denon zorrotzasun jatorrean, errealitatearen azterketaren sakonean, gizon guztiok *berdinak* garela erakusten zaigu» (LA, 205).

Whorf hemen, besterik esan beharrik gabe, eta gidari duen ideia oinarri harturik (Levi Strauss-en obra guztian bezalaxe) genozidioaren eta ethnozidioaren etsai porrokatu gisa agertzen zaigu. Ez dago ez «goiko» eta ez «behereko» kulturarik: funtsean denak dira KIDE haien desberdintasunean, denak ANAIA edo HAURRIDE; eta azterkera edo taxukera jator diren aldetik, denak, errespetagarri eta lilurapide: «Honek ez du batere loturarik ez eboluzio-mailarekin, ez materiazko kulturarekin, ez basakeriarekin, ez zibilizazioarekin, ez hazkunde moral edo etikoarekin. Honek, noski, harritu eta mikaztu egiten du europatar ikasia; eta garratza izan ohi zaio pilura hau irentsi-beharra» (LA, 205-206). Eta ekiten: «Salbairik basenak berak erabil dezake, ohartu ere gabe eta batere nekatzeke, hizkuntza-sistema zail, nahasi eta anizkor bat. Hots, bizi osoa behar izaten dute gure jakintsurik argienek haren erabil-araua azaltzeko» (LA, 206).

Zerk moldatu ditu, beraz, azterketa sakon zorrotz horiek? Beti Whorf-ek azkar erantzuten: gizonaren Inkontzienteak.

Beharrezkoa da, hortaz, lehenago azaldu dudanez, gorderik datzaten estrukturetara jotzea: hauetan dago hizkuntzaren egiazko gakoa. Berezi egin behar dira azaleko gramatika pratikoa eta barneko gramatika teorikoa; edo, Whorf-en hitzez, «fenotipo» ageriak eta «kriptotipo» izkutuak. Whorf-en ustez arrazionalago dira kriptotipoak hain zuzen, fenotipoak baino: «Maiz gertatu ohi da ka-

tegoria izkutuak arrazionalago izatea kategoria ageriak baino» (LA, 48).

Hizkuntzaren azterketan bi maila ikusten ditu Whorf-ek. Eskuarki ikasten ditugun gramatikek —dio— *fenotipoak* azaltzen dituzte (paradigmak, eman dezagun: bai deklinabidean bai konjugabidean). Baina kriptotipoak ilunpeetan uzten dira, gehienetan fenotipo horiek baino sakanagorik ezer izan daitekeenik ere somatu gabe.

Hots, dio Whorf-ek, kriptotipo edo kategoria gorde hauetxek aztertu behar ditugu, benetako hizkuntzalari-lana egingo badugu. Areago: fonetika bera ez zaio *semantika-estrakturaketa izkutu* hori bezain inportantea iruditzen. Argi dezagun hau etsenplu batzuez.

Honela berezten ditu Whorf-ek bi sailak: «Kriptotipoz bestaldera, ageria den kategoriarri deritzakegu fenotipo; eta, nahasteko beldurrik ez dagoelarik, esakuntzan laguntzen duen sinu edo ikur berezleari» (LA, 68). Eta beste batetan honela azaltzen du «fenotipo» delakoaren izana: «Multzo-adigarri edo multzo-funts guztiz ageria duen hizkuntza-kategoria, forma-ikur edo morfema markatua» (LA, 33). Alderantziz, «multzo baten semantikazko barnea edo ezagugarria, baita itxuran ere, beti ere itzurtzen bide zaigu, ikerpide eta araka-sare guztietatik ihesi» (LA, 32).

Euskaraz, esate baterako, «ergatibo» deritzan kategoriak (aditzaren ekintzaren egileak) «k» darama ezagugarritzat: «gizonaK ekarri du, zakurraK jan zuen, niK esan nion». Kaso hau ageria da oso, bai semantikaz bai fonetikaz, bai adieraziaz bai adieraz-hotsaz, «markatua» delako maila honetan ere («*marqué*» esan ohi da frantsez). Deklinabideko paradigmagan agertzen da. Hitz batez, euskal «ergatiboa» fenotipoa da.

Abereen motaz edo sexoaz ez da hau horren garbiki agertzen. Semantika-Funtsa (emetasuna) agerian dago. Baina semantika-berezkuntza horri datxekon «marka»-rik ez da beti ageri. Batzutan bai: katuar/katueme; zakurrar/zakurreme; hartzar/hartzeme, eta abar. Bestetan, ordea, ez dago horrelako berezkuntza-ikurrik fonetika edo adieraz-

hotsen mailan: zaldi/behor, zezen/behi, ordots/urrix, eta abar. Semantikaren aldetik hitz mordo horren adigarria edo sinifikazioa garbi dagoenez gero (denak emeak dira; edo arrak) halaz ere hau ez da kriptotipoa. Zergatik esaten dute lapurtarrek, ordea «jan dut» eta «edan dut»; bainan «gosaldu naiz», «bazkaldu naiz» eta «afaldu naiz»? Zergatik «eskatu naiz», baina «galdegin dut»? «Bildur naiz» baina «herabe dut»? «Mintzatu naiz» baina «hitze- gin dut»?

Gorderik kriptotipoa dagoelarik, gramatikaren «bitxikeriak» agertzen dira. Hitz batzuek badute, Whorf-en hitzez, «reaktantzia» besteekiko; eta ez dira nolana- hi ezkontzen besteekin. Euskara zaharrak badu horrelakorik asko; gaur askoz ere gutxiago, gure hizkuntza «bitxike- ria» horietarik «garbitu» bait dugu, «razionalago» eginez (alegia: erdal estrukturen eta logikaren arabera...).

Inglesez horrelako asko dago, eta Whorf-ek badakar piloa. «She» (emetasunaren ikur gisa) izenordeaz mintzo zaigu, eta horretan kriptotipo nabarmena aurkitu uste du. Inglesez emeak dira kotxea, ontzia eta katua; baina arra- noa eta zakurra arrak dira... Zergatik? Ezen inglezeko hitz horiek ez dute fonetika-ikurrik batere berezirik. Fran- tsezsez, era berean, kopeta arra da (gazteleraz alderantziz); baina ezpain, hortz, eta erloju, eme. Navajo-eraz, era be- rean, oinazea «borobil»en multzoan dago! Kaso mutur hauetan garbi agertzen zaigu estrukturalistek behin eta berriz agerrerazi duten fenomenoak: fenomenoak taxuketa EZ DELA OBJETIBOA, ETNIKOA BAIZIK. Ez da- goela taxuketa logikorik. Honela balitz «bitxikeria» horiek ez lukete sentidurik ez azalpenik.

Hots, aipatu dugun etsenplu bakar horretan, liferen- tzia ttipia da, doi bat da. Hizkuntza guztiaren eremuan, ordea, doia meta bihurtzen da; doi horiek denean pilatzen bait dira.

Esan ezin daitezkeen gauza horiek, Whorf-en «reak- tantzia» horiek, argi- iturri dira sarritan, hizkuntzaren kriptotipoak eta logika izkutua (sinbolaketa jatorraren lo- gika) aurkitzeko.

Zergatik zioten gure idazle zaharrek «Jesus joan zedin», baina «ene adiskideak etorri ziren»? Zergatik «aharra ziten altsonak, ager ziten gazna ohonak», baina «ene emaztea eta arreba atzo agertu ziren etxera»? «Bitxikeria» hauek aztertuz aurkitu dut nik, hain zuzen, Whorf eta Sapir lagun, euskara zaharrak, beste zenbait hizkuntza urrunek bezala, denbora alegiazkoa (mitikoa) eta egiazkoa (kondairakoa) berezten zituela. (Ikus Oihenarte-ren argitaraketa berria, edo «Sustrai Bila», II). Mintza bekigu Whorf, euskararen kasoaz ia berariaz ari izan balitz bezalaxe: «Objetibotasunaren eremua edo hedadura, ikusleagandik hasi eta neurtu-ezinezko luzera batetaraino doa, bai espazioaren aldetik bai denboraren aldetik. Beraz, momentu batetaraz gero, dena gesaltzen da urruntasun neurrigabea, eta zehetasunak ez dira aurrerakoan berezten. Hortik aurrera, ustezkoa, subjeliboa, eta atzean kokaturik zegoen gauzakoa, objetiboa, nahasi egiten dira, elkar biak osotara bilduz. Urruntasun horretan —ikuslearentzat ulertu edo neurtu ezina— gauzen haserak eta bukaerak bat eta berbera dirudite; eta subjeliboa eta objetiboa galdu eta gesaldu egiten dira izatearen beraren ideian... Denborren gaua dugu hor, mitoek aipatzen dituzten denbora eta leku alegiazkoak: hauetaz ez dugu ustezko ezaguera baikik. Erreparatu egin dute hau Hopi-tarrek; eta haien gramatikan garbi agertzen da mitoen eta alegien denbora horrek eta egunetako egiazkoak ez dutela haien ustez egiazkotasun eta balio-maila berbera» (LA, 17-18). Gure ondoko erdarek ez dute berezketa hori egiten, ordea. Hortaz: euskaldunok ere ez! Horra hor, garbi, estructuresaldaketa bati dagokion pentsakera-aldaketa.

Hizkuntza bakoitzak, beraz —dio Whorf-ek— bere pentsakera berezia, bere azterpide bakarra, bere taxuketa desberdina ematen digu. Hizkuntza ez da hitz-zaku hutsa, ez da pentsamenaren lanabes garden eta koloregabea, arau moldatzaile eta mugatzailea baikik. «Gizonak bere adimeanean txertaturik daraman 'buruzko kosmoa' da hizkuntzaren mikrokosmoa. Honetxan bidez hain zuzen 'neurtzen' eta ulertzen saiatzen gara makrokosmoa» (LA, 93). «Gure

jokabidea, eta Hopi-tarrena, gure hizkuntzari dagokion mikrokosmoaren arabera egokitzen da» (LA, 94). Hizkuntzak guztiz sakonki markatzen du gizonaren pentsakeraren edo hausnarkeraren hildoa.

Honetan Whorf-en oihartzun zehatza dirudi Martinet-en esanak: «Munduaz dugun ikuskera, hitzegiten dugun hizkuntzak noraino mugatu eta baldindu digun, orain ikasi dugu ongi neurtzen». Eta Benveniste-k era berean: «Gure ideietako kosmoa, gure mintzairak moldatu du aurrenik... Adimenduaren kategoriak eta pentsamenduaren legeak ez dira, hein batez bederen, hizkuntzak berak dituen barne-pleguen eta kategorien antolamenduaren eta banaketaren irudia baizik».

Bide horretatik jo dute beste anitz hizkuntzalarik eta filosofok: Ulmann, Vendryes, Cassirer, Mauthner, M. Oursel, Trier, Sommerfelt, Wartburg, eta abar. Bakar baten hitzak birlandatuko ditugu beren horretan, Georges Mounin saiakeralari ezagunak inork baino hobeki eman bait du joera berri honen nagusitasuna: «Cette idée, que chaque langue découpe dans le réel des aspects différents (négligeant ce qu'une autre langue met en relief, apercevant ce qu'une autre oublie), et qu'elle découpe aussi le même réel en unités différentes (divisant ce qu'une autre unit, unissant ce qu'une autre divise, englobant ce qu'une autre exclut, excluant ce qu'une autre englobe), est devenu le BIEN COMMUN DE TOUTE LA LINGUISTIQUE ACTUELLE. Quand Masson Oursel, entre autres philosophes, écrit que 'chaque société a pour logique les raisonnements que lui inspire la syntaxe de son langage'; et quand Marcel Cohen reprend cette affirmation pour préciser que 'chaque peuple a la logique que révèle la syntaxe de son langage', ils admettent, tous deux, que les langues, malgré certaines apparences, N'ANALYSENT PAS DE LA MEME MANIERE UNE MEME DONNEE OBJECTIVE... C'est notre langue qui organise notre vision de l'univers; nous ne voyons littéralement de celui-ci que ce que notre langue nous en montre» (G. Mounin,

«Les Problèmes théoriques de la traduction», 1963; 48-gn. orr.).

Ez dago, beraz, kultura bakarria hizkuntza askotara itzulia; hizkuntza hainbat —edo hizkuntza-sorta hainbat bederen— kultura KIDE baizik. «Hopi-tarren munduaren ikuskera —dio Whorf-ek— eta gurea ez dira berdinak» (LA, 7); eta aurrerago: «Orduan konturatu ginen hizkuntza-estruktura (gramatika, beste hitz batez) ez dela soilik gure ideiak azaltzeko «tresna» hutsa, baina haien moldea bera ere ematen diela» (LA, 125).

F. Boas-ek bezalaxe Whorf-ek kulturen arteko errelatibitatea defenditzen du; eta nolana hiko kultura-gailentasunak oro gaitzesten. Kultura-Errelatibitatea, Relativismo Cultural, Relativisme Culturel: horra hor Whorf-en ekarri nagusia. Gero xehekiago azalduko dudanez, Levi Strauss-ek ez du hau ukatuko: «Hizkuntzaren estruktura hiztunarekiko gorderik eta ez-ezagunik egoten dela erakutsi ondoren —zientziazko gramatika agertu arte— eta, baita orduan ere, pentsamentuaren isuria hiztunaren oharmentetik at hizkuntzak moldatzeari ekiten diola zion Boas-ek, kategoria objetibotzat hartzen diren ideia-moldeetara jo-araziz» (Anthr. Struct., 26).

Whorf aurrerago joan zen bide honetatik; eta, Einstein-en teoriak argibide eta jarraipide hartu zituen. Einstein-ek 1905-ez geroztik esan bazuen: «ez dago soegile-sistema abantailaturik: ikusle guztiak, fenomeno berberaren ikuskera desberdinak izan arren, maila bereko kideak dira denak egiari buruz»; Whorf-ek, bide beretik, «Errelatibitatearen Oinarri-Berria» ezagutarazi zuen 1940-an modu honetara: «Fisika-itxurak ez dira beti berberak ikusle edo soegile guztiekiko. Hau dela bide, hizkuntza-estrukturaz antzekoak bederen ez badira, ez dute ikusle guztiok kosmo-iduriketa berberera heltzen, hizkuntza horien arterako nolahi hiko elkarpede edo normalizazio-araua eraikitzen ez bada» (LA, 126).

Zergatik ez gara, hortaz, Errelatibitate Oinarri gogor honetaz lehenago jabetu? Whorf-ek garbiki somatu uste zuen horren gakoa: gure artean nagusitu den zibilizazioa,

sorkuraz greziarra eta italiarra (indo-europatarra, beraz, hizkuntzaren aldetik) beti ere hizkuntza adar berean mamitu delako. Gaur arte, dio Whorf-ek, baita europatarrak ez diren zientzia-gizonek (nahiz txinatar edo turkiar izan, dio) «haintzakotzat hartu dute Mendebaldeko Kulturaren arrazoin-bidea» (LA, 127). Eta honengatik, sistema bereko soegile garelako, ez dugu etendurarik edo arraildurarik gure artean nabaitu.

Bi argibide bikain ematen dizkigu Whorf-ek hau ulertzeko. Grabitazioarena bata: denok gara grabitazioan murgilduta, baina nekez asma genezake bestelako mundurik, grabitazioak ezarri dizkigun baldinkizunak gure haragiaren haragi bihurtu direlako. Azken hilabeteetan egin dugu egia honen frogantza, Armstrong-en misilo-barruan Ilargirakoan grabitaziorik eza herri xeheari ezin azaldurik: gauzak ezin «eror», ezin deusik edan, eta abar. Nola hori entzun da behin eta berriz? Ez zaigu «logikoa» horrelakorik.

Eta bestea kolore urdin bakarrarena. Gure munduan dena urdina balitz —dio Whorf-ek— nekez ulertuko genduke bestela izan zitekeenik ere. Kolore bat zertsu ote konprenitzeko... aski lan! (LA, 120). Gisa da, beraz, dio Whorf-ek —gure hizkuntza-estrukturen baldintasunaz, gure hizkuntza guztiak (Mendebaldeko Jakintzan) «urdinak» direlarik, gu ez ohartzea. Bestelako ikuskerak diren hizkuntza urrunen bidez, hain zuzen, froga dezakegu gure ikusmenaren itsutasun «urdina».

Hala ere, estruktura-etendura hori —eta datxekon Kultura— —Errelatibitatea— gauza ageriak zaizkio Whorf-i semitiko, txinatar, tibetar eta afrikar hizkuntzetan. Areago Ameriketakoetan, «orain dela zenbait mila urtez geroztik, hizkuntza giza-multzo bereziak beren buruaz ari bait dira, ez elkarrekiko eta ez Europa-rekiko inolako loturatan. Hauetan da gauza nabarmena hizkuntzek, zeinek bere erara, zatitzen eta taxutzen dutela naturaleza. Ideia-sistema guztien errelatibitatea, guhaurena barne, eta hizkuntzarekiko dugun mendekotasuna, gauza nabarmena da han» (LA, 127).

Areago: Whorf-en ustez, baita Mendebaldeko teoria-rik sakonenak eta filosofiaren parte handia, ez dira indo-europatar hizkuntzen estruktura-metafisika baizik: «Zientzia modernoaren mundua ez da Mendebaldeko indo-europatar hizkuntzen hazkunde edo azalpena baizik» (LA, 139).

Mendebaldeko kultura-gizonek —dio— Einstein'ek besterik erakatsi arte — Newton-en denbora, espazioa eta materia onartu dituzte, esate baterako: denbora eta espazioa bi gauza ziren ideia horien arabera, elkarri ezertan ez lotuak; eta gauza bera materia ere biokiko. Hots, gaur jakina denez Einstein-i esker, hiruen arteko lotura funtsezkoa da arras: denbora polikiago isurtzen da grabitazio bizi edo larriko eskualdeetan (neutronezko izarrez gogora gaitezen), denbora-bateratasunik ez dago, denbora eta espazioa loturik daude, espazioaren kurbatura materia-trinkotasunari datzeko, Kosmoa hitxia da, etar abar. Gure «intuizioek», beraz, okerrera garamazkite. Baina, kasu: Whorf-en ustez «intuizio» hauek ez dira gure hizkuntzen estrukturen errainua baizik. Newton, hitz batez, gure hizkuntza-estrukturen teorizalea izan zen, beti hauen morroin. Eta Einstein-en argitasun aparta behar izan dugu geure estruktura-lotura izkutuetatik azkenean askatzeko.

Eta iritzi honi heldurik, beste hizkuntzaz mintzatzen diren jakintsuen etorrera eskatzen: «Zientzia-ikertzailetzat ez da behinere deitzen Ameriketako indiorik, bere amahizkuntzaz besterik deus hitzegiten ez dakien indiorik alegia. Hau zorakeria hutsa da» (LA, 127).

Hizkuntzaren eragin horretaz sinisturik, hizkuntza-estrukturen eta kulturaren arteko lotkia bilatzen saiatu zen Whorf (Sommerfelt, Levi Strauss, eta beste anitz bezala). Whorf-en ustez lotkia bat segurua da: «Badago hizkuntzaren eta kulturaren artean lotkia bat mintzaira batez baliatzen den gizartean» (LA, 115).

Hausnarkizuna, ordea, ez da erraza; eta, asmo gaiztoz kanpo, ezin dakioke inolako ximplekeriarik ezar Whorf-i honi buruz. Berak ipini zituen bi baldintza kultura eta hizkuntzaren arteko lotkia hori aurkitzeko:

1. Kultura eta hizkuntzaren artean badago hartu-emanik, badago lotkiarik, hau bai, eta beti; baina ez «korrelazio» hertsirik, ez elkarrekiko erreflejo xinplerik.

2. Lotkia horiek aurkitzeko, hizkuntza eta kultura osoki hartu behar dira, batetik, sistema oso diren aldetik, ez atalka; eta, bestetik, azterketa horrek ez du gauza handirik ematen ahal, herri edo etnia hori luzaz («durant une longue période historique» irakurtzen dugu frantsez) berex bizi izan ez bada.

Ez hori bakarrik. Hizkuntza, ametsak eta bezala, giza-ahalmen SAKONAGO baten frutua da. Bereziki aitor-tzen zuen hau Whorf-ek: «Nahiz-eta hizkuntzaren eragina guztiz lehen mailakoa izan, hein batez bederen, pentsamenaren aurrerabide sakonago baten azaleko apaindura dirudi hizkuntzarenak. Sinbologintza sortzen hasi baino lehenago beharrezko da beste hori» (LA, 166). Honen alde mintzatuko zaizkigu Goldstein, Gelb eta Lacan, gero agertuko denez. Baina ez du honek ukatzen Errelatibitatearen oinarria, behar den bezala ulertarazten baizik.

Whorf-ez trufatzea litzake, beraz (eta ez gutxiago Sapir-ez, «Le Langage»ren 10-gn. kapituluan argi eta garbi irakur daitekeenez) hizkuntza eta kultura *hertsiki* loturik, mokoz-moko estekaturik, daudela esatea. Ez zuen Whorf-ek horrelakorik esan. Mouloud-en azkeneko liburuan («Langage et Structures») esate baterako, Whorf-en alderdi hau besterik aipatua ez delarik, Whorf-i buruz ideia faltsua atera dezake irakurleak.

Whorf-ek, bestalde, oso ohar argitsua egin digu honetaz. «Gauzen» munduari dagokionez —dio— etxe, zakur, zubi, hosto, eta abar, hizkuntza guztietan funts berbera, edo oso antzekoa, aisa aurki daiteke. Baina bilakaera, aldakuntza, EBOLUZIOA eta etengabetasuna diren fenomenoetan (alegia: DENBORAN BARRENA gertatzen diren fenomenoen azterketan; eta berboaren mailan, beraz, oso bereziki) taxuketa egin behar dute hizkuntzek, horietan benetan hemendik edo handik ebaki-beharra dago, elementoak ez bait dira inola ageri. Whorf-en ustez, beraz,

DENBORAREN AZTERKETA da hizkuntzen funtsaren argitzaile nagusia.

Hots, jakina denez, euskal gramatiketan, erdal eraginaz berriz ere, atzo/gaur/bihar, joana/etorkizuna, eta abar, hartu ditugu euskal estrukturen oinarritzat, erdara hauzoak eredu. HONEK EZ DU FUNTSIK. Geroago eta garbiago iruditzen zait neri, euskal berboan ekintzaren «itxura» = «aspect») dela gakoa («manifestant»)/«manifesté»; alegia, berboaren ekintza BURUTUA ala EZ BURUTUA izatea; denboraren EGIAZKOA ala ALEGIAZKOA; eta abar); eta ez ekintza joana ala etorkizuna izatea, euskal gramatikari ez dagokion denboratasunari atxikiz.

Dena den, lehen-lehenengo puntua erdara ahaztutzea da. Areago: sasi-logikatzat itsatsi zaizkigun erdal esturkturatik geure burua zeharo erauztea. Ez bait da batere erraza!

Honetan guztian agertzen denez, «multzo-pentsakeraren errainua da hizkuntza» (LA, 110). «Elle est la base d'une PHILOSOPHIE INFORMULEE, et dans elle est contenue la PENSEE D'UN PEUPLE, d'une culture, d'une civilisation, voire d'une ère» (LA, 14).

Paul Ricoeur-ek gaitzetsiko ez duen azken ondorioa bukatzeko: Whorf-en ustez, gizadi guztia hizkuntza bakar batetara lerratzea, kaltegarria litzake, ATZERAPENA, eta Kultura guztiarentzako galera handia.

Esan duguna esanda, errazki uler daiteke Whorf-en iritzi honen gakoa. Hizkuntza guztiak KIDE direnez gero azterketa gisa, eta denak beraz ELKARREN OSATZAILLE, hizkuntza bat itzaltzeari Kulturaren adar bat ihartzea deritza Whorf-ek: «Honengatixek uste dut geroko mundaurentzat hizkuntza bakar bat proposatzen dutenak —berdin izaki inglesa, alemanera, errusiera edo beste edozein proposatzea— oker daudela. Giza-izpituaren eboluzioari buruz, traba larria izango litzake hori» (LA, 174).

Alderantziz, hizkuntza arrotz eta urrunei dagozkien estrukturen desberdintasuna mesedegarri oso izan dakio-

ke Kulturari, eta gizonari beraz: «Ausaz, argigarri gerta lekizkiguke beste logika-moldeok; eta elektronak, argiaren habaila, edo materiaren beste atalak, zergatik agertzen zaizkigun horren «bitxi» edo logikagabe ulertzen lagun» (LA, 164).

Whorf-en kapitulu mamitsu horietan badago zer gogotan harturik. Agian egingo euskaltzaleek! Ez zaie egina damutuko, nik uste.

3. Levi Strauss ethnologilariaren iritzi nagusiak

Gorago azaldu dugunez, Hizkuntzalaritzan jaio zen Estrukturalismoa; eta hizkuntzalariek bultzatu dute 30 bat urtez. Oposizioen bilaketa, Inkontzienteari dagokion logika izkutua (estrukturamena bataia genezake zehazki ahalmen hori), fenomenoak mordotan aztertu beharra, nagusitu egin dira hausnarpide gisa; orain dela ehun urte Filologia Gonbaratzailea nagusitu zen bezalaxe. Alde honetatik Saussure ez da moda-izen aldakorra, ez da Newton eta Lavoisier-enak baino igarokorrago. Ez gaitzala snobismoak itsu!

Levi Strauss-ek ethnologian erabili ditu Estrukturalismoaren teknikak; eta, honengatik, «Estrukturalismoaren aita» ez izanik ere, Estrukturalismoaren bigarren zabal-kundearen eragilea izan da. Hizkuntzaren jakintzetan arrakasta handiarekin erabili den azterpide berria baliatu du Levi Strauss-ek; gaur arte azaldu-ezina zen ethnologi-ara-zo morderoa harrigarriro argituz.

Ohar batzuk egin behar aurrenik neure asmoez.

Levi Strauss-en lana osoki aztertzea ez zaio zilegi ethnologilari iaioa ez deni. Ethnologia hutsari buruz idatzi

dituen liburu trinkoak («Le Miel et les Cendres» edo «Le Cru et le Cuit» esate baterako) ez dira ene ikerkizuna. Jakina. Levi Strauss-en etnologia-lan hutsa alde batera utziko dugu. Alde honetatik, gainera, «estrukturalismoa ez da filosofia, azterpidea baizik», esana du Levi Strauss-ek berak.

Baina, beste izkributan («Anthropologie Structurale» artikulua bilduman, eta «La Pensee Sauvage» liburuko kapitulutan batez ere) Levi Strauss-ek bere teknikak eta bere teoriak azaldu ditu xeheki. Eta hauek izango ditugu haren tesien argitzailatzat; eta geure liburuan bidezko den neurrian azalduko.

Hirugarrenik eta azkenik, Levi Strauss-ek liburuska mamitsua argitara zuen 1952-an lehenengo aldiz («Race et Histoire», Arraza eta Kondaira, laister euskaraz agertze-koa); eta bertan ethnia, pentsakera eta zibilizazioaren arazoez bereziki ari zaigunez gero, hurbildik jarraituko dugu liburu horretan estrukturalista ospatsuaren filosofia-hiltoa.

Levi Strauss-en oinarriak

Levy Bruhl-en iritziei buruz arras kontra (honek zionez herri arkaikoek eta herri zibilizatuek bi modu eta logika desberdinetara aztertzen dute mundua), Levi Strauss-ek hau erantzun du: gizon «arkaikoek» eta gizon «modernoek» adimen-mota berbera, adimen berbera hobe, erabiltzen dute, haiek eta hauek Logika-bide berberetik ari dira. Zer da adimena funtsean? Gauzak taldekatzeko, taxutzeko eta banatzeko ahalmena batez ere. Herri arkaikoetan ahalmen hau magiazko izakietan erabiltzen da, eta absurdoa iruditzen zaigu batzutan (honetantxe Levy Bruhl-en lerraerak). Adimena, ordea, zuzenki ari da, eta kontradizioaren hastapena ez du inoiz ukatzen. Baina, hau bai, guk ontzat eman ezin ditzakegun elementoak edo taxuketa-atalak darabilzki: «Pentsakera magikoa ez da hasera, lehen urratsa, oraindik mamitu edo burutu gabe dagoen

osatasun baten atal hutsa: ongi lotutako sistema gauzatzeko du» (PS, 21).

Ahalmen hau, oso berandu arte, munduari zentzu baten bilaketan erabili du gizadiak, mithologia eta erlijio-gintzan.

«Pentsakera mithikoaren logika, pentsakera positiboaren logika bezain hertsia iruditu zaigu, eta, funtsean, ia berbera. Bien artean dagoen liferentzia areago da, gure ustez, pentsaketa-hildoan barrena erabiltzen diren gauzen edo atalen ondorio, adimen-azterpidearen nolatasunaren ondorio baino... Pentsakera mithikoan eta pentsakera zientifikoko logika berbera ari da lanean: gizonak beti pentsatu du gaur bezain xuxenki» (AS, 254-255).

Gure jokabideari eta izadiari esan-nahi edo adierazkizuna aurkitu beharra, sinboloen bidez fenomenoak taxutzeko eta ulergarri egiteko egarri osoa, kosmoa «estrukturatzeko» behar hertsia: horra hor mendetan zehar adimenaren eragile nagusia. Edozer baino beharrago bait du gizonak mithologia argitzailea, nahiz honen argia sasi-argitasun ubela izan. Mithoek eta sinboloek lekua ematen diote gizonari munduan, biziari eta giza-ekintzari zentzua erantsiz («zentzu» hitzari adierazkizun edo norako funtza eman nahi diot hemen); eta gertaerak logika-ilara batean ipiniz. Adimena, horregatik, gizonaren estrukturamena izan da aurrenik.

Taxutu-behar gorri hau inkontzientea da; eta taxutzeko erabiltzen ditugun moldeak edo eskemak ere erreparazinak edo inkontzienteak zaizkigu. Gizonaren pentsa-moldea, beraz, funtsean, inkontzientea da.

Hots, hizkuntzaren giltzarria azaltzean agerrerazi dugunez, estrukturamena sinbolamena da: **SINBOLOREN BIDEZ MUNDUA TAXUTZEKO ETA PENTSATZEKO GURE AHALMEN BEREZIA**. Inkontzientearen ekarriak, estrukturaketa eta sinbolakuntza beraz, gauza bakar bat eta berbera dira hein batean.

Hizkuntza gizonaren lehendabiziko sinbolakuntza denez, gizonaren izpirituen gakoak da. Hortik jo behar da gizona ulertzeko.

Ohar bat aurrerago segi aurretik: sinbolakuntzaren ahalmena den Inkontzientea eta gure oroitzapen ahaztuen muinetako tegia den Subkontzientea ez dira gauza bera. Kontuz! Levi Strauss-en izkribuetan Inkontzientea estrukturamena da, giza-ahalmena; Subkontzientea, berriz, barnegune ahaztuetan zokoraturik datzan oroitzapenen multzoa.

Hariari jarraituz, gizon arkaikoen eta gizon moderno-en artean, ez dago benetako liferentziarik. Haiengan pentsamena «basa» da, «sauvage» frantsesez; eta estrukturaketa helburu pratikorik gabe egiten da. Gizonari dagozkion lekua eta patua mithologia baten bidez aurkitzea aski.

Gizon modernoarengan pentsamena, edo pentsabidea hobeki, ez da aldatu; baina «eskolatu» eta «hezi» egin da («domestiqué» dio Levi Strauss-ek). Eta azkeneko mendeetan, teknikaren zerbitzutan ere erabiltzen da, hein batetan bederen: hau da, helburu pratiko eta teknikotan; eta ez taxuketari buruz egindako mithologiatan eta sinbolakuntzatan bakarrik. Mithologi-gintzan ere erabiltzen da gaur, dudarik gabe. Baina ez ditugu guk geure mithoak aisago somatzen, Athenas zaharreko Athenastarrek, Athenas zaharreko mithoak ezagutzen zituzten baino.

Gizona, teknikaren azal mehearen azpian, berbera dago. Inkontzientea du nagusi, herri arkaikoetan nabarmen agertzen zaigun bezalaxe; baita pentsatzeko ere.

Herri «arkaikoetan» helburu teknikorik ez dagoenez gero, errazkiago ager dakiguke guri haien adimenaren tapupide izkutu eta inkontzientea; eta geronena argitu. Hau-xe da, dio Levi Strauss-ek, egiazko ethnologiaren helburu isila.

Ethnologi-gintzan, zer hartuko eredutzat? Hizkuntza-ren jakintza; hizkuntza, hain zuzen, estrukturaketa oharkabe edo inkontziente guztien eredia bera delako. «Bere pentsabideak dituen giza-pentsamena da hizkuntza. Hots, gizonak ez ditu haiek ezagutzen» (PS, 334).

Idea bera azaldu du berrikiago Saclay-ko Biltzarrean («Colloque sur le Structuralisme», 1970-ko Urrian). Ez

du Levi Strauss-ek uste estrukturalismoaren teknikak edozein jakintzatan erabil daitezkeenik, literaturaren kritika-gintzan esate baterako. Baliagarri izan daitezen, Inkontzienteak libroki moldatutako eremua behar da aztergaitzat. Hauxe da, ekin du Levi Struss-ek, Hizkuntzaren eta Ethnologiaren jakintzen egoera; eta horregatixek izan ditu ondorio oparoak bigarren honen arazoen argikundean.

Joera ez du Levi Strauss-ek asmatu, eta jator aitortzen du Boas izan dela antropologia berriaren egiazko aita. Baita zordun zaiola Marcel Mauss-i bide honetatik. Hots, dio Levi Strauss-ek, hizkuntzaren azterketek erakutsi dutenez, estrukturalisten bilapideak erabiliz aurkikunde ederrik egin daiteke.

Hitzetan edo soinuetan bezala —dio— ez dira ethnologiako datoak banan-banan aztertu behar, sailetan baizik. «A» soinua, E, I, O, Ö, eta abarren ondoan eta arabera aztertu behar da; alegia, bokale-estrukturan hizkuntza bakoitzean duen betekizunean. Era berean, totemismoaren fenomenoaz azaltzeko, gonbarazio baterako, ez da leinu baten totema soilik hartu behar, herri horren totemen eta leinuen multzo osoa batera baizik. Gauza bera egin behar da ametsekin. Alegia: fenomeno bakoitzean *sinbologia* bilatu behar da multzo baten barruan; eta ez bakan-ka, edo «berez» adieraz dezakeena. Sinbolo-mordotan egin behar da lan. Letrak eta koloreak elkarren oposizio gisa mugatzen diren bezala, gauza bera mithoak, totemismoaren sinboloak, eta abar, elkarren oposizioan mugatzen eta funtsatzen dira.

Levi Strauss-en beraren hitzak erabiliz, osotasuna ikusi behar da, «sistema»; eta honen atalak aztertzean, «bizitua alde batera utzi behar da» (= «*écarter le vécu*»). Sistema-barruan, atalen multzo osoan, atal bakoitzari dagokion «lekua» hartu behar da kontutan («*la position*»). «Estruktura bat agerrerazteari lotzean, gramatikaren eta joskeraren mailan jarri behar da, ez hizketa mintzatuaren mailan» (PS, 335).

Beste oharra, maiz berritua: euskaraz mintzo denak,

gonbarazio baterako, ez daki euskararen estrukturak nolakoak diren: ezagutu gabe erabiltzen ditu. Alegia: euskal estrukturak oharkabeak zaizkio, izkutuak, kontzientzigeak. Ez dira halere itxurakoak edo alegiazkoak! Erdaraz mintzo denak daki ongienik!

Honela jokatzaz azaldu zituen Levi Strauss-ek hastapenetan, ezkontza eta ahaidetasunezko legeen aniztasun harrigarria; eta, funtsean familia-moldaketa ugari horiek oso mota gutxitara bil daitezkeela frogatu.

Bide beretik jokatu du Dumézil erlijio-ikertzaileak ere; eta Levi Strauss-ek bezala, «inbariante» bila abiatu da. Hots, erakatsi duenez, oso iraunkorra bide da mendetan zehar Jaungoikoen hiruketa edo hirutasuna. Badi-rudi gizonaren adimenak, oharkabeki, azalpen hirukuna bilatzen duela, fenomeno nagusitan hiru partetan taxutuz; jainkotasunean, beraz, hiru betekizun antzeman-uste bali-tu bezala. Jainko hirukun horren itxurak eta azaleko izanak aldatu egiten dira zibilizaziotik zibilizaziora; baina hirukuntasunak, erlijio-estruktura hirukun horrek, beti irauten. Hirukuntasun-behar hau, jakina, inkontzientea eta erreparatuezina zaigu: sinestunek ez dute ezagutzen. Dumézil-ek egindako alderaketak erakutsi digu joera hau; ez geronen barruan psikologiazko ikerketa batek.

«Horixe ikusi du Georges Dumézil-ek guztiz ongi —dio Sebag-ek—. Kondaira-momento batez, egoera berezi batetan, kosmoaren ulerkera bat sortu da, eta honek bere horretan iraun du guztiz gizaro desberdinetan barrena. Baina iraun duena batez ere hau izan da: materiak oro, barnez zer ere izanagatik, zenbait irizpideren arabera taxutzea (hirukuntasuna, agintaritzaren bikuntasuna, eta abar), haien obrakundea eta mamitzea gizarte batetik bestera erruz aldatuz. Badago beti mamiaren logikazko erakera bakar bat, erakera edo moldakera horretan taxutzen diren izakiak zein-nahi izan arren. Errelazioa edo taxukera izakiei edo atalei nagusitzen zaie... Ideiazko moldeak irauten du, hitz batez... nahiz mezuak, nahiz atal horien barne-mamiak, indo-europatar erlijioetan desberdinak izan». (Lucien Sebag, Marx. et Struct., 121-122).

Horretatik, beraz, estrukturalistek salatuta, «askatasunaren lilurak». Alegia: geure buruz eta loturarik gabe aukeratu uste dugularik ere, geure adimenari datxezkon estrukturamenaren arabera jokatzeko dugula; hau da, eskema urri batzuen azalpide-hutsuneak bete behar bagenitu bezala. Kant-en kutsua somatzen zaio honi, jakina. Baina Levi Strauss soziologilaria da. Etnologiaren ikerketak horretara du, ez filosofia hutsak.

Kontuz! Askatasun osoaren ipuina estrukturalistek salatu dutelarik (Michel Foucault-ek bereziki), ez dute politika-mailako askatasuna maiseatu. Hau ere entzun bait da! Gauza bat esan dute bakarrik: gure adimenak ez duela nolana ere jokatzeko eta hautatzeko. Inkontzientek gure oso sakonean ezarritako molde aldagaitz batzuen arabera baizik. Estadistikek diotenez —antza apur bat duen etsenplua emateko— X-kilometro berebil istripua gertatzen da. Honek ez digu askatasun izpirik ere kentzen geure gidoinean; baina gure gidaerak ez du hain lege estadistiko hori hautatu. Libro gara, baina ez osoki. (Hau argibidea da, ez besterik, kasu). Beste argibidea emateko, Gauss-ek aspaldidanik erakutsi zuenez, Zori hutsak, mentura hutsak, lege hertsia hertsitara darama matematiketan...

Estrukturalisten iritziak direla-eta, soinekoak urratu beharrik ez dut nik ikusten.

Eman dezagun berriz totemismoaren fenomenoak.

Totemismoa, Levi Strauss-en iritziz (ikus «Le Totémisme aujourd'hui») gizartea PENTSATZEKO modua da. Soinuen arteko oposizioak hitzegina ahal izateko baliatzen diren bezala, gizartea taxutzeko eta ulertu ahal izateko, abere-moten arteko oposizioak baliatu izan dira. «Gizarte-berezkuntzak ezin ziren ongi ulertu, nortuak eta erabiliak izan, aurrenik pentsatuak izan gabe», dio Levi Strauss-ek. Totemismoa, beraz, gizartearen antolaketa iduritzeko edo sinbolatzeko tresna izan da. «Otso» klana, eman dezagun, ez da inondik ere otsoaren segida, edo otsoaren haragikundea, nahiz leinu horretakoek beharbada hori sinistu; baizik-eta «azeria» totemizat beste bati bu-

ruz, otsoa eta azeria elkarren ukatzaile eta elkarrekiko DESBERDIN diren modura, leinuaren gizarte-antolakera zer den adierazteko. Garbi ikusten eta pentsatzen lagun dezake totemismoak, hizkuntzak bezala. Giza-talde baten totemak, hitz batez, sinbolo-sistema dira, soinuak edo hitzak bezalaxe: «Totem-idurikuntzetan somatu uste diren antzak eta loturak, bi liferentzia-sistemaren artean, bi oposizio-mordoren artean ezartzen dira» (TA, 115). Totem bakar baten gakoa, dagokion klanaren presunen usteetan bilatzea zorakeria zaio Levi Strauss-i; «etxe» soinu-ilararen kakoa, etxearen gorabeheretan bilatzea zorakeria izango litzakeen bezala. Gizarte arkaikoa gizonek zatiturik eta taxuturik dago, geure giza-esperientzia guk zatitzen eta taxutzen dugun eran: taxuketa horri, «abereak» dagozkio totemismoan, «hitzak» hizkuntzan. Totemismoa eta hizkuntza adimenaren taxuketa-mota berberaren bi sinbolakuntza dira.

Azalpen bera eman du geroago: «Homologia ez da egiten gizarte-multzo eta abere-mota baten artean, baina beroien liferentzien artean: alde batetik, multzoetan bere-tan somatzen diren desberdintasunak, eta bestetik abere-moten artean daudenak» (PS, 152).

Levi Strauss gogorki mintzo da ekonomikeriaren kontra: totemismoaren gakoa ez dira ekonomiaren beharrak, esate baterako. Eta esakuntza honetaz gaitzesten du joera hori: «hautatzen diren abere-motak ez dira 'jateko onak', 'pentsatzeko onak' baizik» (TA, 131).

Estrukturak eta kondaira

Eboluzioa ukatzen ote du Levi Strauss-ek? Gure askatasuna lilurazkoa baldin bada; eta, funtsean, beti ere tin-ko dirauena gure barne-estruktura inkontziente batzuk baldin badaude, eboluzioa, noski, itxurakoa da, alegiazkoa. Ez da zail somatzen Levi Strauss-en gainera alde honetatik berehala erori den eragozpen-zaparrada.

Ez dago dudarik: gainerako estrukturalistek bezala, Levi Strauss-ek eboluzioa eta aldakuntza ukatu ez baditu ere (nola uka?), mugatu egin ditu oso. «La Pensée Sauvage» liburuan kapitulu funtsezkoa eskeini dio arazoari (ikus PS, IX, «Histoire et Dialectique», 324-357); eta harrigarria da —irakurleak berak ikus dezakeen bezala— eboluzioaren problema honi buruz Levi Strauss-ek eta Whorf-ek, eta beste anitzek gaur, duten eitea: «eboluzioa bai, baina».

Levi Strauss-en pentsakeraren gakoa berriz ere hizkuntzaren gorabeheretan behar da bilatu. Hizkuntzaren eboluzioa dagoela ukatzea, zentzugabekeria litzake. Baina hizkuntza guztiak ez dira liburu honen lehen partean azaldu dugunez, Logika Bakar baten «aldiak» edo «faseak». Aitzitik, eta hein batean, hizkuntza bakoitzari Logika-taxuketa berezia dagokion bezala, Logika Bakarrik eta letra nagusikorik ez dago. Hizkuntza guztiak dira hein berean logikoak. Ez dago, logikaren arabera beti, batetik besterako «aurrerapenik»: «bestetasuna» dago soilik. Hizkuntza bakoitza, beraz, bere logikaren barruan bilakatzen eta aldatzen da; eta ez kanpotik letorkiokeen Logika Bakar eta Absolutu baten hildo batetan.

Martinet estrukturalistaren irizpidea eman daiteke hemen, Martinet-ek hizketaren «ekonomia» aipatzen duelarik (alegia, hizkuntza-tekniken eta bideen urritasuna, baita hitzegitearen nekerik txikienaren bilaketa oharkabea) hizkuntzaren eboluzioaren eta *hobetzearen* bultzatzailetzat, urrun dago Logika Bakar horretatik.

Hori esanda, filosofo izan ez arren, berehala dator izen bat gogora: Hegel-ena. Estrukturalismoa funtsean berean da anti-hegeldarra. Penagarria da 1964-an Lucien Sebag-ek idatzi zuen liburu bikain eta argitsua, gure artean batere ezaguna ez izatea.

Sebag-ek berehala somatu zuen eztabaidaren sakona. Eta marxistek ere berehala somatu dute, hastapenetik etsai gisa agertuz. Levi Strauss-en beraren esanak (marxismotik bertago dagoela uste den baino, eta abar) ez dituzte marxistek sinistu; eta egia dute ez sinistuz ene

ustez. Levi Strauss marxismotik ezin urrunago bait dago funtsean.

Hegeldarren ustez (eta marxisten ustez gauza bera, jakina) bakar bat da Kondaira; anizkorra, aldiz, estrukturalisten ustez. Geroxeago agertuko dugunez, ethnien izana bera, munduaren bakuntzarako bidean «igaroko den zerbait» da marxistentzako.

Estrukturalistentzako, aldiz, gizadiaren gako bera da aniztasun hori. Levi Strauss-en ustez ez dago gizadi bakar bat aurreruntz eta gero eta razionalagoa; hizkuntza bakar bat aurreruntz eta gero eta razionalagoa ez dagoen bezalaxe. Gizonaren mintzamina hizkuntza desberdinetan mimitu da; eta gizadia ethnia desberdinetan. Elkarrekiko errespetua ez da txikiekiko gupida, edo «dezentralizazio» esku-zabala (!), gizadiari berari zor zaion errespetuaren giltzarria baizik.

Itzul gaitezen harira.

Ez dakit, irakurle, aspaldiko kontuak irakurtzeko ohitura duzun. Baiezkoan, berehala konprenituko zenduke Levi Strauss-en ideia nagusi hau.

Eman dezagun —dio Levi Strauss-ek—1789-ko gertaerak irakurtzen ditugula (ikus PS). Zer zaigu ageri? Ekintza hartan «logika» ikusteko, orduko ideiak eta baloreak onartu behar direla. Egitekotan, 1789-ko gertaerak badute sentidua. Bestela ez dute.

Piskanaka, hitz batez, kondaira-garai bateko baloreak eta ideiak eiharturik eta bazterturik gelditu ala, garai hartako ekintzek sentidua galtzen dute guretzat. Hitz batez: «Aski da kondairako gertaera bat gugandik denboraren aldetik urruntzea, edo pentsaeraz gu hartatik urruntzea, gertaera hori aurrerakoan barnagarri, barnetik ulertzeko modukoa, izan ez dadin, bere konprenigarritasuna gal dezan: konprenigarri izatea, barnegarri, ulergarri izatea, gertaerarekiko gure barnetasun edo hurbiltasun igarokor horri bait datzeko» (PS, 338).

Mendeak elkarri darraizkio, bai; baina, funtsean, jauzika darraizkio, ez ibaiaren uren antzera.

Eta, eboluzioa? Eboluzioa badago, bai. Baina gure artean horrenbestetan aipatu ohi den «aurrerapena» zer da?

Balore-maila mordo bati buruz hurbiltzeari deritzagu «aurrarapena». Hots: balore-mordo iraunkorrik eta absoluturik ez dago; eta hau Kondairaren ulertu-ezintasun horretan agertzen da ongienik. Ez dago, beraz, aurrerapen oso eta guztizkorik: aurrerapena beti ere helburu eta balore-mordo BATI BURUZ egiten da, eta letra txikitan idatzi behar da. Beste hitz batez: Kondaira aurreruntz doala GUK uste dugu, guk gaur oharkabean bederen onartzen dugun helburu bati buruz (makina gehiago, garbitasuna, berebila denentzako, eta abar) tartreak txikituz doazelako: gero eta makina gehiago dago, gero eta garbiago daude bazterrak, gero eta berebil gehiago dago, eta abar.

Baina gure balore-mordoa, gure zibilizazioari sentidu ematen dion xedea, GURE MITHOLOGIA IZKUTUA, hitz batez, hondatu eta ezabatuz gero, aurrerapenik ez dute ikusiko gure ondorengoek edo beste zibilizaziotako gizonek.

Hain zuzen, horretantxe datza mithoen gakoa: berriz ere diogu, gizonaren ekintzari eta jasan-beharrari, bolada batez bederen, sentidua, adierazkizuna, ematen diotela. Baina, dio Levi Strauss-ek, «Fraintzia-ko Iraultza ez da, kondatzen zaigun eran, inoiz gertatu» (PS, 342).

Denborari dagokionez, guk ezartzen dugu, helburu bat gidari ageri edo izkutu, taxuketa bat. Eta aurrerapena eta eboluzioa ORDUAN aurkitzen ditugu. Ez dago bestelako eboluziorik ez aurrerapenik.

Berriz ere: guk taxutzen ditugu denboran barrena izan diren gertaerak, batzuk nabarmeneraziz, beste batzuei ezikusia eginez, hau aipatuz, baina hura izkutatuz edo ahan-tziz; hitz batez: gezurra da gero «aurkituko» ditugula legeak, GERONEK ERABILI BAIT DITUGU LEHENIK gertaera horien antolaketan eta aukeraketan. Kondaira famatu hori, beraz, taxuketa da aurrenik, eta hizkuntzaren taxuketaren *kide butsa*. Kondaira aurkitu uste duguna, beraz, geronek erantsi diogu haseran: gertaeren taxuketa egiterakoan.

Horregatik eman daitezke gertaera-sail berberari buruz anitz azalpen «logiko». Kondaira-mota eta azalpen guztiak «maila berean bait dira egiazko» (PS, 341).

Kondairaren Azalpen Logiko Bakarrik ez dago: AZALPEN BAKAR ETA OBJETIBOAREN TEORIA MITHO HUTSA DA.

Ez da egia gertaera-segida nagusia dagoenik: taxuketa hainbat kondaira idatz daiteke: «Kondaira arras guztizko eta osoa egin nahi izanez gero, hutsera bihurtuko litzake dena, Kondaira guztizko horren ekarria hutsa izango litzake, 'égal à zéro'» (PS, 341).

Levi Strauss-ek, hortaz, Kondairaren azterketa «objektiboak» oro salatzen ditu batetik. Baina, areago, Kondaira oinarritzat eraiki nahi diren teoriak ere gezurrezkoztat salatzen ditu. Kondaira-azalpen GUZTIEN FUNTSEAN, dio, «code» bat dago. Alegia: taxukera eta gertaera-hautaketa berezia nagusi eta gidari. «Fetxa horiek —dio— ez dira zerrenda edo sail berekoak: mota desberdinetako mugarri dira (PS, 342). Geuk sarrarazten ditugu lerro berean; geuk hautatzen, baztertzen eta agerrerauzten, «kondairazko sasi-jarraitasun» (PS, 345) delakoaren zerbitzari gisa. Honela jokatzeko dugulako, «ez dugu beste jakintzen kaltetan edo zerbitzutan gailendu eta goratu behar Kondaira» (PS, 348). Kondairaren bidez eraiki daitezkeen teoriak ez dira sendoago Ethnologiaren bidetik eraiki daitezkeenak baino. Koroa kendu behar Kondairari, errege ez bait da.

Ez dago, hitz batez, Kondairaren azalpen «objektibo»-rik. Marxisten «kondaira-materialismoa» ez da zientifikoa, mitoa baizik.

Lehenengo galdera berriz, hortaz. Eboluziorik ba ahal dago? Bai —dio Levi Strauss-ek— eta gorago dago; baina zerbaiti buruz, ez absolutuki. Kondaira beti da «zerbaitentzako kondaira» ('histoire-pour'). Mitho eta ipuin asko dago kondairatasunari buruz; eta Levi Strauss-ek salatu egin ditu beldurrik gabe: «l'historien et l'agent historique choisissent, tranchent et découpent, car une histoire vraiment totale les confronterait au chaos» (PS, 340).

«Arraza eta Kondaira» (1952, Race et Histoire)

Liburu hau zaigu gogoangarriena euskaldunoi, nik uste; xehetasunez ematen bait du Levi Strauss-ek bere iritzia, etniaren eta kulturaren arteko korapiloak askatuz. «La Pensée Sauvage»n gero emango zituen iritziak, 1952-an azaldu zituen lehenengo aldiz.

Gizadia ez da behinere izan —dio— giza-talde bakar eta koloregabea: betidanik izan da herri eta ethnia liferenteen kopurua. Eta inoiz ere aldatuko denik ez da gauza segurua; ezen herriek berdintzeko joera erakusten baldin badute ere (hizkuntzek bezala) elkargandik berezteko, eta zeinek bere nortasunari eusteko, joera badute; eta ez bestea baino ahulagoa: «elkarren kontra jokatzeko, elkar-gandik berezteko, zein bere burua izateko» (RH, 17).

«Halere —dio Levi Strauss-ek— bakanka besterik ez zaio agertu gizonari kulturen bestetasun hori den moduan: alegia, fenomeno berezko gisa». Betidanik, eta besterik sinistarazi nahi izanagatik ere, gizonak «munstroke-ria edo eskandaloa somatu du bestetasun, desberdintasun sakon horretan». Gaitzi zaio gizonari errelatibotasuna: ez du bere burua eta bere bidea beste askoren pareko ikusi nahi. Errelatibotasunak larritu egiten du muinetaraino. Gizona Ptolomeo-zale da.

Horretatik heldu da betiko jokabide ezaguna: «ar-buiatu egiten ditugu argi eta garbi, eta osoki, geure mol-deetatik urrutienik dauden bestelako kultura-motak (mo-ralak, erlijiozkoak, gizartekoa, eta abar); eta geureei eus-ten diegu, hauek eta geure burua bat eginez». Bestelako kultura horiek nazkatu egiten gaituzte benetan; hizkun-tza arrotzaren fonetikak eta gramatika-lege 'bitxiek' naz-katzen gaituzten bezalaxe. Bitxi eta funsgabe zaigu dena haietan: «Beti ere, kulturen arteko bestetasuna bera onartzea gaitzesten da» (RH, 20).

Ez da jokabide hori, kasu, gaurko gizonaren ezagu-garria bakarrik: «gizon basen beren ezagugarririk nabar-menena eta jatorrena, jokabide horixe da» (RH, 20).

Herri arkaikoetan, hain zuzen, ez dago gizadi osoaren ideiarik: beti gizadia eta gizatasuna bera leinuaren edo hizkuntzaren mugetan bukatzen da. Haruntzago zer? «Gazitoen» herria, «tximu»en herria, eta abar. Bestetasuna, beraz, betidanik gaitzetsi da. Ez da gaurko kontua. Liferentetasuna aberetasun bihurtzen da: «tximuak» dira besteak. Kultura bakar bat bait legoan: guhaurena! Horra chauvinismoaren sustraiak. Kultura desberdinekiko joera hori gizadia bezain zaharra da. Ez da, bide-batez esan dezagun, ez herri honen eta ez haren ezagugarria: **BESTETASUNAREKIKO GORROTOA UNIBERTSALA DA**. Eta ez da inolaz ere, gizarte-KLASE honen edo haren orbaina!!! Ethnia desberdinekiko herra eta ukatunahia zibilizazio, herri eta klase guztietan loratu da, eta betidanik gaurte arte. Sustrai ekonomikoen bila abiatzea zilegi izan daiteke; baina fenomeno askoz sakonago da, inkontzientea delako.

Bestetasun horrekiko 'aldeko' jokabideetan ere gauza bera aurkitzen da. Izan daiteke, hau errazago da, borondate ona herri edo kultura desberdin horrekiko; baina haren bestetasuna edo desberdintasun funtsezkoa halere onartu gabe. Gizajoa onartzen den gupida bera izan daiteke eragilea! Ez du balio herririk ez izenik aipatzerik. Berehala egin liteke herrenkada ederra. Eta «ezkertar» mota batekoen lerrokada litzake luzeena.

Hots, Levi Strauss-ek ongi dionez, «basatia edo gizon basa, zein da? Basa-tasunean sinesten duena». Alegia: gizonen artean «arkaikoak» eta «modernoak» berezten dituen, herrien artean mailak ikusten dituen: horixe da gizon basa.

Halere, gauza agiria da kulturen bestetasuna eta aniztasuna. Nola ezkon daitezke, beraz, kulturen bestetasuna eta geureari diogun atxikimendu itsua?

Hona hemen intolerantziaren azken jukutria: kultura guztiak eboluzio bakar baten «aldiak» direla esatea. Noski: Ptolomeo-zale garenez gero, guhauren kultura da eboluzio-kate horretan azkeneko eta goreneko maila...

Horrela sortu da Sasi-Eboluzioa, edo eboluziokeria,

gaur arte oso modan: «oso zehatz esateko, kulturen bestetasuna ukatzen da honen bidez, baina itxuraz errespetatu egiten da» (RH, 23). «Zeren-eta gizarte-taldeak, bai antzinakoak bai gaurkoak, bilakaera edo eboluzio bakar baten maila edo aldi gisa hartzen baldin badira, eta denak helburu bakar eta berberaren alde joan arazten, noski: horretara gauza bat ageri da: bestetasuna ez dela itxurazkoa eta alegiazkoa besterik» (RH, 23-24). Iritziz hauen arabera egiten den lana, «ez da kanibalismo sasi-jakintsua besterik» (RH, 30).

Levi Strauss ez da, beraz, Whorf baino leunkiago mintzo. Ez du bruseldar jakitsuak sinesten biologian eta soziologian lege berberak daudenik; eta darwinismoa egokitzat ematen badu ere biologiaren sailean, soziologian gaitzetsi egiten du. «Gizarteari buruzko eboluziokeria ez da, gehiegitan, problema filosofiko zahar bati erantsi zaion makilaje sasi-jakintsua besterik» (RH, 26).

Mendebaldeko kulturaren harrokeria eta intolerantzia maiz salatu da (Brasil-go azken genozidioen garaian, esate baterako, edo-ta Biafra-ko guduan). Baina beti ere arrakasta txikiak. Zergatik? Bestetasuna bera funtsezkotzat hartzen ez delako. Marxistek ez dute gertakari horietan aitortu nahi izaten klase-borrokaren eraskina baizik; eta «kristau zibilizazioa»ren defendatzaileek ez dute bestetasunik somatzen, basakeria eta «bougroul»keria baizik.

Hitz ederrik idatzi dute honi buruz, gonbarazio batzuetan, Pierre Clastres-ek eta Jean Pouillon-ek. «Hilkintzetatik eta eriteetatik at —dio lehendabizikoak— Mendebaldeak berekin daraman basakeria harrigarri horrez gain, gure zibilizazioaren haragi dirudienetz eta haren argia sortzen den 'itzalaren erdialdean', badago Mendebaldeko zibilizazioaren intolerantzia ezin nabarmenagoa zibilizazio desberdinekiko. Bestea bere horretan, bere bestetasunean, ezagutzeko eta onartzeko ezintasuna, eta guztiz bere berdina eta irudia ez denik ezer ezin jasateko eta errespetatzeko joera» (Arc, 26, 76).

Eta Pouillon-ek, batzutan Sartre-ren eta Levi Strauss-en erdi-bidean: «Zer da bestea konprenitzea? Badago

«dijestio»aren ideia... Ulertzea, desberdin agertzen zaiguna berdintzea eta guretzea litzake honen arabera («guretzea» sentidu hertsian hartuz: alegia, geure antzeko egin), liferentzia hori berdintasun bihurtuz... Egiazko konprenierak, ordea, bere bestetasunean eta berezitasunean utzi behar du bestea».

Hauxe da «bestea» errespetatzeko modu bakarra, jakina.

Atzera bihur gaitezen pitin batez garbiago ikusteko: hizkuntzak Logika Bakar eta aurrerazale baten «aldiak» ez diren bezala, kulturak ere ez dira kultura-eboluzio bakar baten faseak. Elkarren «superazioak» eta gaindikundeak mithoak dira: kulturek ez dute elkar gainditzen edo superatzen, IKUSPUNTUA ALDATZEN BAIZIK. Kulturak desberdinak dira osoki; eta, Logikaren arabera, ki-de huts. Niels Bohr Fisika-Nobel-Sariaren ideia bat bereztat hartu du Levi Strauss-ek: «Giza-kulturen arteko liferentziak eta Fisika-fenomenoen eman daitezkeen formulazio desberdinek —denak balio berekoak— oso dirudite elkar alderdi askotatik».

Tekniken aldetik —dio Levi Strauss-ek— dudarik ez dago: harrizko tresna mordoiloetatik harrizko tresna leunduetara, hauetatik burdinazkoetara, eta abar, gauza nabarmena da aurrerapena: tresna horiek gero eta manaiukorrago dira, gero eta hobeak, gizona trebeago egiten dute. «Hastapenetatik gizadiak lortu dituen aurrerapenak hain dira agiri eta dirdaitu, beroiek ukatzeko egiten diren saio guztiak berriketa huts bihurtzen direla».

Badirudi, ordea, aurrerapen hori «mutazioz» obratzen dela, jauziz. Hots, «jauzi eta briska hauek ez dautza helburu berari buruz beti ere urrutirago joan-nahian. Norabide-aldakuntza, direzio-trukea ohi dagokie».

Batzutan, zibilizazio batek, funtsezko helburu berbera gidari, kondaira «metatzaile» egiten du bolada luze batez («histoire cumulative»). Hauxe da Mendebaldeko zibilizazioaren kaso, aspaldi honetan «metatzaile» (alegia: metatu egiten dituela aurkikundeak); eta hauxe izan zen, Levi Strauss-en iritzi, Colon-en aurreko Ameriketako

zibilizazioen kasoan. Bestetan, berriz, ez da hori gertatzen: gaitzetsi egiten da harartekoa, gaitzesten helburuak berak, eta beste bide batetik hasten. Zantzu batzuen arabera aldakuntza nagusi baten hastapenean bide gaude gaur.

Eman dezagun agure zahar bat. Zer iruditzen zaizkio oraingo gertaerak? Seta axalak, garrantzirik gabeko modak, zorakeria anitz eta, hitz batez, funtsezkorik ezer ez. Agurearen iritziz munduak xarma guztia galdu du, berrietasun egiazkoa gauza bera, eta gazteen kezkek «ulertu ezinak» iruditzen zaizkio. Agurearen ustez, hitz batez, kondaira ez da gaur «metatzailea» («cumulative»), «geldia» baizik («stationnaire»). Badirudi erlojua gelditu zaiola. Gertaera «ulergarri» guztiak aspaldian gertatu bide ziren. Gaur deus ez: «Adinetako presunek beren zartzaroan isuritzen den kondaira, kondaira gelditzat daukate eskuarki; baina beren gaztaroko kondaira, alderantziz, kondaira metatzailea iruditu zitzaion» (RH, 42).

Zer da irizkera honen gakoa? Gertaerak guretzako konprenigarri izatea ala konprenigarri ez izatea.

Agureak ez du ulertzen gaur gertatzen dena, eta horregatik «ezer gertatzen ez dela» iruditzen zaio. Gaurkoa ez zaio barnagarri: gaurko mundua ezin dezake barnetik ikus eta bizi.

Era berean, dio Levi Strauss-ek, gure zibilizaziotik ikusirik, geure helburuetaruntz joan ez diren zibilizazioak eta kulturak «aurrerapenik gabeko kulturak» iruditzen zaizkigu: herri horietan ezer gertatzen ez dela ematen digu, ez direla mugitzen, «kondaira geldian» daudela hitz batez. Alderantziz, geure helburuak edo kezkek gutxi gorabehera bederen erakusten dituzten herrietan edo kulturetan, «aurrerapen» bat ikusten dugu (hau da: geure hizkuntzaz mintzo direla, geure helburuak berak iritsi nahi dituztela). Herri baten baloreak eta helburuak gureen antzekoak direnean, aurrerapena aitortzen dugu; eta bestela, gelditasun osoa somatzen.

Hau gauza nabarmena da politikan. Ezkertarrek ez dute ikusten eskuindarretan geldikeria osoa baizik, baita gelditasuna ere; eta, alderantziz, eskuindarrek ez dute aurre-

rapenik batere ikusten «gorrien» arteko saltsa azkengabeetan. Ez dute elkar ulertzen; eta, horretatik, gelditasunaren itxura elkarri salatua.

Kultura bakoitzak, beraz, badu bere «erreferentzi-sistema» berezia. Eta, edozertan, sistema horren arabera irizten dio denari. Sistema oso hori doan alderuntz ez doana, geldirik edo atzeruntz doala iruditzen zaio; trenean doanari, kanpoko zuhaitzak, etxeak, eta beste trenak geldirik edo atzeruntz doazela iruditzen zaion bezalaxe.

«Badago, beraz, kulturen mailan, benetako «Errelatibidade» bat, Einstein-ena baino zabalagoa —dio Levi Strauss-ek— eta noizpait ezagutaraz ahal izango da, bai Fisika-jakintzetan, eta bai Gizarte-jakintzetan batera baliagarri» (RH, 44).

Hartutako argibideari eusten dio. Eta iritzi hau ematen du: balore eta helburu nagusien liferentzia handiago izan bi kulturaren artean, eta are geldiago eta atzerakoia-go deritza batak besteari. Habaila handiagoan goazelarik, gure kontra datorren trena gurutzatzean, zer gertatu ohi zaigu? Batzutan ez dugula konprenitzen ere pasa dena zer ote zen. Hartaraz gero, ez dago trenik eta ez deus: gutzaz bestaldera pasa den horrek «ez digu ezer adierazi», ez dakigu batere nolakoa den, ulertu ezina zaigu osoki. «Beste modu batera esateko: elkarren antzik ez dugulako, eta ez besterengatik, agertzen gatzazkio elkarri interesik gabeak» (RH, 46). Gure helburuen hizkuntzaz ez bait dira beste kulturak mintzo, fitsik ez dutela adierazten iruditzen zaigu. Mundu-taxuketa desberdinak darabilzkigu haiek eta guk; eta horretatixek heldu ohi zaigu «aurrerapena» elkarri ukatzea.

Levi Strauss-ek ez du erantzun erosorik ematen aurrerapenaren teoriez, eta guk ere ez genduke erosoagorik emango. Bai —dio— badago aurrerapena; baina ez aurrerapen absoluturik, kultura guztien balioa eta norabidea errelatiboak direlako. Kondaira metatzailea den mendetan, kultura horren barneko gizonak «aurrerapen» baten segurantzia dute. Eta, horregatik, erreferentzi-sistema aldatu arte, «aurreruntz» doazela sinesten dute.

Baina inpresio hori ez da absolutu bat. Budista batek, esate baterako, edo Polinesiar batek, nekez aitor dezakete gure zibilizazioan aurrerapenik. Aski da, esate baterako, Japon-go Zen-en jarraitzaileek orain dela gutxi eman zituzten iritziak irakurtzea. Benetako «hippy» batek, era berean, oinarritzat dauzkagun baloreak eta helburuak guk izanda, eta harek bereak (denean naturaltasunaren eta hedonismoaren bilaketa, zibilizazioaren ukaera, eta antzinako India-ren mirespena, eman dezagun) nekez aitortuko du gure zibilizazioa «aurreruntz» doanik. Paradisurako bideak ahal dira frigoak, berebilak eta administrazio-txartelak? Ez. Beraz, zer irudi dakiok gure aurrerapena, alienazio eta atzerapena baizik? Marxista batek, aldiz, tibetarra ez bada batez ere, bihotzez txalotuko du Tibet-a maozaleek okupatzea; hango budista erresuma hura ez bait zaio iruditzen ahal alienazio eta atzerakunde zuloa baizik: «Beharrik —esango digu— herri geldi hura, orain abiatu da».

Absolutuki onartu ohi den munduaren aurrerapena, beraz, mithoa da. Hain zuzen, mitho horrek, beste askok bezala, ematen dio gaur Mendebaldeko gizonari «munduaren zentzua». «Ondo goaz —entzun ohi dugu— aurreruntz goaz»... Aurrerapenaren mithoa gure zibilizazioa «azaltzen» duen hizkuntzaren parte da. Ez besterik.

Levi Strauss-ek dion bezala, biharko egunean, guk gaur Ozeania-ko gizarteak etnologi-gintzan aztertzen ditugun bezala gure gizarte hau beste gizonak azter dezatenean, «aurrerapen»aren mitho hau oso kontutan hartu beharko dute. Eta, Sartre-ri buruz ari delarik, hau dio: «Sartre-ren filosofian, eta zehazki gainera, Kondairari mitho baten betekizuna dagokio» (PS, 336).

«Ez 'Tristes Tropiques' liburuan, ezta 'Race et Histoire' delakoan, ez naiz ni saiatu aurrerapenaren ideia desgiten; baina, hau bai, giza-hedakundearen kategoria orokor zena, geronen soziedadeak (eta beharbada beste batzuek) bere burua pentsatzeko modu berezitzat harrerazi dut. Aurrerapenaren ideia honek, gizarte bakoitzaren barnekoa eta trazendentzi-gabea delako, gizonak etsipenera

eraman gaitzakeela uste izateak, beste argudio metafisiko ezagun hura gogorazten dit: alegia, gizonak arima hilezkorra sinesteari utziko balio, ethika guztia koloka geldituko litzakeela» (AS, 368).

4. Lacan psikanalista bide beretik

Eskuarki marxistek ez dute begi onez ikusten psikanalisia. Lacan-ek badaki: «prévention que la psychanalyse rencontre à l'Est», *Ecrits*, II, 198. Eta «La Pensée» marxista aldizkariak gogorazten digu: «risque constant, et l'absence d'une authentique élucidation théorique, d'utilisation idéologique de la psychanalyse» (*La Pensée*, 135 z., 139). Freudismoaz beraz honela gertaturik, galdetu ere ez da egin behar «lacan-ismo»ari marxistek zer deritzaten... Psikanalisiaren erdibiketa gertatuz gero, Lacan-i dagokio bi joeretan «idealisten». Lacan, ordea, bete-betean sartzen da Jakintza berrien hildoan. Harrigarria da, hain zuzen, lerro labur hauetan ohar-araziko dudanez, nola Lacan, Levi Strauss, Whorf eta beste, eman dezagun, guztiz azterkera desberdinetan barrena abiaturik, zenbait arazo sakonetan gogaide diren osoki.

Ene asmoa Levi Strauss-en etnologiaren jakintza bereziaz ezer ez juzkatzea izan den bezala, Jacques Lacan psikanalistaren jakintza bereziaz deusik ez juzkatzea bidezkoa da: ni ez naiz psikanalista ez psikiatra.

Baina Lacan-en ondorioak eta filosofi-oinarriak ezagu-

taraztea oso egoki iruditzen zait, eta liburu honen tesiari eusteko ezin aproposago. Zilegi bekit, beraz, helburu hori gidari izanik, psikanalisiaren joera berri horretaz labur-zki mintzatzea.

Freud-en jarraitzailetzat hartzen du Lacan-ek bere burua: «*école freudienne de Paris*» deritza berak bere taldeari. Baina F. Saussure ere argi-egile gisa aipatzen du lotsarik gabe. Lacan-ek, hitz gutxitan esateko, Freud-en estrukturalismo izkutua bilatzen du; Althusser-ek Marx-en estrukturalismoa bilatu duen bezala.

Bizipidez Lacan psikiatra da; eta honen erakasaldietan, «*Écrits*» liburuan (berriki bi partetan argitaratua, ez osoki), eta «*Scilicet*» aldizkarian, urte askotako midikuntza-esperientzia biltzen du. Freud bezala, Lacan ez da letragizona. Askotan da zaila, bihurritua, korapilotsua; Freud hertsiki azaltzeko deliberoan, alemaneraz beterik datoz haren izkribuak. Freud-zaleen artean, Lacan da, itxura denez, harrigarrienetarik bat; eta gure liburuaren harria argitzeko egokiena.

Argitzapen apur bat egin dezagun, Freud-zaleak bi joeratan zatitu dira. Alde batetik, psikanalista «*klasikoak*» daude, edo «*ofizialak*» (Freud-en teorietan pulsio-joko eta barne indar-sistema antzeman uste dutenak); eta bestetik psikanalista «*estrukturalistak*» daude, Lacan-en inguruan (Freud-engan sinbolismo-eskola eta hizkuntzalaritza berria antzematen dutenak). Denen habe nagusia, hori bai, Freud-en inkontzientea.

Adimenaren sendaketak Freud-i ongi erakutsi zionez, gizona inkontzientearen jopu izaten da, «*kanpoko*» zerbaiten jopu izango litzakeen bezalaxe. Inkontzientearen «*kanpotasun*» hau («*extériorité*», «*exterioridad*») funtsezkoa da. Inkontzientea, guran dagoen «*Bestea*» —dio Lacan-ek— nagusitu egiten da gutzaz; eta atzera eta aurrera eraman gaitzake sofrikario izugarritan, borrero batek «*kanpotik*» lotu eta inarrosiko gintuzkeen bezala. Kaso patologikoetan agertzen denez, beraz, gizonaren gakoa funtsean inkontzientea da. Hots, kaso patologikoak ez du gurearekin nolatasunezko liferentziarik. Ez du horrek

adierazten, beste modu batera esateko, burutik egindakoen ez besterengan dela inkontzientea nagusi. Sustraiaren denok mogitzen gara —zion Freud-ek— geure inkontzientearen nahikunde izkutuen arabera. Gaur arte bederen (eta psikopatak, adimenaren eriak, gero eta gehiago dira!) gehienok geure bizieran topatu ditugun arazoak eta debekuak, ongi xamar jasan ditugu, askotan nahikundeen helburua oharkabean aldatuz; eta ez dute azkenean guran problema larriegirik sortu. Ez da kontradizio nagusirik kokatu eta eritasun baten bidez obratu. Geure nahikundeen eta geure ahalmenen artean erdibidea aurkitu dugu; edo, hobeki esateko, horrelakorik gertatu delarik ere, ihespidea eta berdinbidea asmatu dugu. Gure eragile nagusia, halaz ere, inkontzientea izan da, guran sustraitua dagoen «Bestea». Psikanalisten ustez nahikundea, desira, da gizonaren egiazko egia eta giltzarria; eta nahikundea da inkontzientearen etengabeko dei etengabea. Inkontzientea ulertzea, beraz, gizona ulertzea da; gure nahikunderik sakonenak ez bait dira gureak, «Bestea»renak, gure kontzientziaren argitik at datzan nitasun harrigarri horrenak baizik.

Zer da, beraz, «Bestea» hau? Zer da inkontzientea? Nor mintzo da «hor»? Lacan-ek jakin uste du: mintzo dena SINBOLAKUNTZAREN LEGEDIA DA. Ez arima, edo beste pertsona bat: kasu!

Baina goazen poliki.

Beste jakintza-sailetan Estrukturalismoa laguntzaile eta azterpide berrien emale izan bada, Psikanalisan areago izan bide da. Lacan-en teorian, inkontzientearen «kanpotasuna» sinbolakuntzaren legetan datza. Eta, Freudengan? Nola hurbildu zen Freud inkontzientearen «autonomia» eta «kanpotasun» harrigarri horretara?

1889-an 33 urte zituelarik, Nancy-n zegoen Freud; eta Liébault eta Bernheim osagileen alboan egiten zuen egonaldia. «Introduction à la Psychanalyse» liburuan kondatzen duenez, hipnotismo-fenomeno haiek «très impressionnantes démonstrations» iruditu zitzaizkion, oso hun-

kigarriak. «Ma vie et la psychanalyse» liburuan gauza bera aitortzen du: «Nancy-n hartu nituen inarrosaldirik bortitzenak honi buruz. Hantxe somatu nuen kontzientziatik at, oharmentik at, gugandik kanpo, gerta daitezkeela giza-gertaera nagusiak». Gogora ditzagun.

Lozorro sakonean loak harrerazten zen gizon bat, hipnotismoaren bidez; eta nolana hiko ametsak eta lokamutsak eragiten zitzaizkion loaldian barrena. Gizona esnatu ondoren, Bernheim-ek amets horiek konda zitzan eskatzen zion; eta gizon harek «oroitzen ez zela» erantzun ohi zuen. Bazazkien, ordea; eta, piskanaka piskanaka, Bernheim-ek hartaraturik, dena azaltzen zuen. «Gertaera horiek —dio Freud-ek— iritxi-ezinak zitzaizkion; ez zekien amets-egileak ezagutzen zituenik, ezagutzen ez zituela uste zuen hain zuzen».

Hona hemen Bernheim-ek berak azaltzen zuen gertakari bitxia. «Esnatu bezain laister (Charpentier neure lan-kidearen aurrean azaltzen diot nik hipnosi-aldian gaiso bati), ene lagunaren aterkia har, ireki, eta joan zaitez galerian barrena. Galeriaren ingurua bi aldiz egin zezan agindu nion. Beranduago esnatu egin nuen, beraz; eta haren begiak irekiak izan aurretik, joan gara azkar gu biok, Charpentier eta ni neu alegia. Berehala ikusi dugu hurbiltzen geure gizona, aterkia eskuan, eta galeriari bi inguraketak egiten. Nik galde orduan: «Zer ari zara?».

—Harek erantzun: «Egurasten ari». Nik: «Zergatik, bada? Hotz zarea?».

—«Ez» —harek arrapostu «baina pasean ibiltzen naiz zenbait aldiz».

—«Hortaz» —nik— «zer da aterki hori?». Eta harek niri: «Hara! Ez nuen erreparatu: neurea zela uste nuen! Hartu dudan lekuan uztera noa!» (ikus C. Filloux, *L'Inconscient*, 26).

Are harrigarriagoak dira, nik uste, «idazkuntza automatiko» deritzan fenomenoak («écriture automatique»), historiaren jopu diren eriengan ageri. Hauetako batzuek, besoa anestesiapean dutelarik, aski dute beso soraio horren eskuan norbaitek lapitza jartzea eta hitz bakar bat

idaztaraztea, hortik aurrera historikoak berak, bere buruz, eta beste edozertaz hitzegiteari etengabe eutsi arren, esku soraio horren bidez orrialde osoak idatz ditzan. Gero orrialde horiek historikoari irakurtzen baldin bazaizkio, honek ez daki ezertxo ere orrialdeetan idatzitakoaz. (Ikus Filloux, L'Inconscient, 20).

Gertakari harrigarri hauek ez zitzaizkion Freud-i inoiz ahaztu. Eta teoriaren oinarri bihurtu zitzaizkion: egiten ditugun gauza askoren gakoa *inkontzientea* da. Eragileak ez dira guretzako «ezagunak», inkontzientek baizik; eta inkontzientean dautzalako, psikanalisi-lan baten bitartez, agerira ekar ditzakegu eta ezagu. Badazkigu, bai; baina ez dugu uste dazkigunik. Badirudi, benetan, gugan «nitasun kontzientea» dagoela; baino, atzerago, barneago, sakonago, gure jabe ez-ezaguna, «Bestea». Hitz batez: hipnosi-pean daudenek bezala jokutzen dugu geure bizieran.

Horretatik heldu da gizonaren irudi ezaguna. Gure barnea «iceberg» baten antzekoa da: parte txikia agirian dago, guk «ezagutzen» dugun nitasunaren parte da. Eta, ur azpian, beherago, parte handia, agirian dagoena baino bederatzi hamar aldiz handiagoa: inkontzientea, «ezagutzen» ez ditugun eragile eta desira izkutuen.

Hitz batez: askotan gizonak helburua bilatu uste du; baina inkontzientean «ahazturik» datzan beste bat nahi du. Gizonaren egiazko eragilea, eta bere ustezkoa, bi dira; eta ez bat.

Honek ekarri dituen ondorioak ezin inportanteagoak dira; eta ez daude oraingoz agorturik. Ez da harrizkoa batzuek Freud Kopernik-en parean jartzea.

Lehendabizikoa: gizonaren alienazioa ez da soziala bakarrik. Areago eta sakonkiago, psikologikoa da. Pierre Fougerollas-ek zorrozki dion bezala: «A la différence de celui de Marx, l'enseignement de Freud ne nous laisse pas espérer l'avènement d'un «homme total» radicalement désaliéné. Quoi que nous fassions et pensions, l'aliénation *qui nous constitue* comme homme, demeure et demeurera» (La révolution freudienne, 66). Edo-ta: «la

théorie freudienne de l'inconscient est une théorie de *l'aliénation constitutive* de l'homme» (La r. f., 40).

Lacan, «Ni»a batetik ('Je') eta «Bestea» bestetik ('l'Autre') bereziaz, Freud-en lerroan agertzen zaigu bete-betean.

Baina Lacan-ek ematen duen azalpena (puntu honetan eta bestetan), Freud errespetatuz ere, estrukturalismoaren ideien hildotik egiten du. Argi eta garbi dio Freud-en gakoa Saussure-ren eta Jakobson-en estrukturalismoan bilatu behar dela.

Adibide bat emateko, eta «nitasun»aren arazora bihurtuz, Lacan-en ustez gudan «Ni» esan ohi duguna («ni hau naiz», «ni etorri nintzen», «ni jarri naute», eta abar) «adierazle» bat da («un signifiant»); eta «adierazia» («signifié») gure nitasun *osoa* da. Hots: bi hauek ez dira gauza bera. Bien arteko loturaz gogoratzeko, «iceberg»en etsenploa har dezagun gogoan berriro.

«Adierazia», beraz, gure nitasun osoa izanik (iceberg osoa), «ni» hitzak *idaroki* egiten du gure nitasuna ('iceberg' hitzak bezala, ageri den partea ikusarazten digu); baina ez osoki biltzen.

Zer da «ni» (= «ego») esan ohi duguna? Nitasun osoaren eta egiazkoaren «adierazlea». Ez besterik. *Ez egiazko nitasuna batez ere*. Nitasun osoa, nahasia, korapilotsua, Freud-ek gure begien aurrean jarri duena, kontzientzia eta inkontzientea biltzen dituen, at dago: «ni» horren «adierazia» da. «Ni» esaten dugunean, beraz, gure nitasuna *aipatzen* dugu, bai; baina gure nitasun osoa ez da hori. At dago. Eta geronek ere nekez baizik ezin dezakegu atzeman nitasunaren atzeko aurpegi izkutua, «urazpiko»parte. Hain zuzen, psikanalisiak nitasun osoaren oreka eta osasuna lortzeko, aurrez aurre jartzen ditu gure «ni» hori, eta beti izkutuan gelditu ohi den sustrai gordea, nitasunaren landarearen sustraia den inkontzientea.

Ez hau bakarrik. Lacan-en ekarri nagusia, psikologiariek ahobatez diotenez, gizonaren «ispiluaren aroa» da. Lacan-en ustez haur ttikiak bere irudia ispiluan ezagutzea da gizonak inoiz eman dezakeen urratsik handiena. Sin-

bolamenaren hazia hortxe datza: haurrak banatu egin ditzake bere «nitasuna» eta bere nitasun horren «irudi» bat, halaz ere *biak elkarri datxezkola ulertuz*. «Haurra —dio Lacan-ek— bolada labur batez (laburra, bai, baina luzera batekoa) txinpantze-kumeak gainditzen du tresnatasun-dohainetan. Baina haurrak bere burua ezagutzen du ispiluan, eta txinpantze-kumeak ez» (Ecrits, I, 89). Lacan-ek bezala esateko, lehenengo aldiz konprenitu du irudia zer den eta zer izan daitekeen. Hauxe izango da aurrera-koan gizonaren sinbolamenaren gakoa. Hizkuntzaren funtsa ulermen edo ulerketa horretan datza. Honetantxe datza, beraz, txinpantzearen eta gizonaren arteko lehen life-rentzia. Kulturaren jatorri dena, bestalde, *alienazio-iturri* ere gerta daiteke. Giza-dialektikarik sakonena ispiluaren biketa horretantxe datza. Sinbolamenaren kate zaila hasia da: «C'est l'ordre symbolique qui est, pour le sujet, constituant» (Ecrits, I, 20).

Ispiluaren aurrean gizonak iskilurik perilosena eta jakintza-iturririk nasaiena aurkitu ditu. *Biak batera*. Zeren-eta sinbolamen horrek —dio Lacan-ek— bere lege her-tsiak bait ditu. Bizieran barrena sinbolamen horrek mugatuko du gizonaren ideia-askatasuna. Nola?

Etsenplua emateko, hau proposatzen digu Lacan-ek. Eman dezagun (+) eta (—) sinuak EDOZEIN ILARATAN: txanpon baten bidez idatz ditzagun, esate baterako, txanpona behin eta berriz botaiaz. Eta, eman dezagun, sail hau atera zaigula (neronek ezartzen dut bat):

+++ — — + — ++ — — — + — + — — — +

Jar ditzagun horiek orain, Lacan-ek nahi duen bezala, hirunaka:

+++

++—

+ — —

— — +, eta abar, beti ere beraz, *bat* eskubi aldera aurreratuz.

Bataia ditzagun orain (1), (+ + +) eta (— — —) hirukoteak; (2) simetria-gabeko hirukoteak: (+ — —), (+ + —), (— + +) eta (— — +); eta, azkenik, (3), ondoko bi hiruko hauek; (+ — +) eta (— + —).

Gorago eman dudan ilarak hau ematen digu:

+	+	+	—	—	+	—	+	+	—	—	—	+	—	+	—	—	—	+
1	2	2	2	3	3	2	2	2	1	2	3	3	3	2	2	2		

Eman dezagun beste sorta bat:

+	+	+	—	—	—	+	—	+	+	+	—	—	+	—	—	—	—	+
1	2	2	1	2	3	3	2	1	2	2	2	2	3	2	1	1		

Zer ohartzen dugu? Edozein (2)-mordoren ondotik datozen (1)ak, (2)-mordo PAREKO bati darraizkola; eta (3)-ak, berriz, (2)-mordo DESPAREKO bati. (Aski du irakurleak nik bezalaxe egitea; eta nik bezala ere egia dela aurkituko du). Hitz batez: halabeharra bera, sinbolakuntza baten bidez, *lege-iturri* da. Beste hitz batez esateko: SINBOLAKUNTZAK HERTSATU EGITEN DU GIZONA. Sinbolamenak gizonaren askatasuna mugatzen du; eta KANPOTIK mugatzen du, Freud-en psikanalisiak ederki somatu zuen bezala.

Honen ondorioak ezin larriago dira.

Gizona sinbolamena da funtsean. Baina edozein sinbolakuntzak (eta ezer baino sakonkiago beharbada hizkuntzaren sinbolakuntzak) bere lege hertsia dituzte, GIZONA-GANDIK AT. Gizona, beraz, abere sinbolakorra delako, ez da sinboloei buruz eta hizkuntzari buruz libro. GIZONA SINBOLAKUNTZAREN LEGEEN JOPU DA: «l'homme est, dès avant sa naissance et au delà de sa mort, pris dans la chaîne symbolique» (Ecrits, II, 19). «Il est pris comme un tout, mais à la façon d'un pion, dans le jeu du signifiant» (II, 20).

Jo dezagun orain beste bide batetik.

Esan dudanez, «sagar» hitzak (sagar) ideia *idarokitzen* duen bezala, «ni» izenordeak gure nitasuna *idarokitzen* du. Baina, jakina, adierazia eta adierazlea *bi* gauza dira. Budismoaren tesirik ezagunenak berrituz, Lacan-ek nahasketa horretan ikusi uste du alienazio guztien gakoa: gizonak ez daki «ni» hori ez dela «adierazle» bat baizik; eta «adierazia»-ri ezartzen zaizkion batasuna eta gotortasuna, alegiazkoak direla. «Ez jakite» hau, alienazio hau, orain dela 2.500 urte salatu zuen Budha-k. Freud-engandik, Lacan Budha-gana doa; eta badaki: «Il n'est que de recourir aux données traditionnelles que les bouddhistes nous fourniront... pour reconnaître dans cette forme de transfert *l'erreur propre de l'existence*» (Ecrits, I, 192).

Nola iritsi da Lacan gogoeten iturburu horretara? Erantzuna beste galdera da: nola eta zergatik senda daitezke barne-eritasun psikologikoak elkar-hizketa soil baten bidez? Psikanalisiak ez dio eriarri medikamenturik harrerazten. Hitzegin egiten dio, eta hitzeragiten. Hau da dena. Terapeutika honetan biziera kondarazten zaio behin eta berriz, ahaztuak uste zituen xehetasun atseka-beak xeheki azal-arazten zaizkio. Eta, bapatean, egun batez eriak berak ulertzen du bere nahikunde izkutua, baita inkontzienteak hura jazteko zerabilen sinbolismo harrigarria. Eta gaisorik zegoena, sendatu egiten da: inkontzientearen bide bihurriak argi ikusi ditu azkenean. Hizkuntza arrotz haren mezua konprenitu egin du.

Dudarik gabe —dio Lacan-ek— hemen bada misterioa. Eta nahiz Freud-en teknikak mundu guztian aspaldidanik erabiliak izan, terapeutikaren gakoa ez da garbi agertzen. Hots, zientzia eraikitzekotan, terapeutikatik hipotesietara pasa behar da. Freud-ek ere hau nahi zuen, eta garbi aitortua du midikuntza hutsa ez zitzaiola behin ere axola izan. Terapeutika hau, bestalde, eta Levi Strauss-ek azaldu duenez (ikus, esate baterako, «Anthropologie Structurale» liburuan, 205-227, «L'efficacité symbolique» kapitulu mamitsua, «shaman»-ei buruz) «psikanalisia shamanen teknikaren molde berria da». Sendabideak majia gogorazten du, psikanalistas ez bait du eriaeren gorputza

ukitzen. Zientziak, ordea, zientzia izango bada, muinera behar du; eta pragmatismo hutsetik atera.

Berriz galdetzeko, beraz: zergatik sendatzen du eria psikanalisiak? Zer da, funtsean, gure inkontzientea, honek sortutako barne-kontradizio izkutuak hizketa hutsaren bidez gesal eta osa daitezen?

Lacan-en erantzuna hau da: INKONTZIENTEA 'BESTEA'REN HIZKUNTZA DA. «Hizketa-frutu ekarztea, hizkuntza-estruktura izatea: horra hor inkontzientearen gakoa» (Ecrits, II, 203). Eta errotikago beste batean: «l'inconscient est langage», inkontzientea hizkuntza da (II, 112). Eta beste batez: «la science dont relève l'inconscient est *certainement* la Linguistique»; alegia, gauza zihurra dela inkontzienteari dagokion jakintza-bidea Hizkuntzalaritza dela.

Inkontzientea hizkuntza delako —dio Lacan-ek— eta hain zuzen hizkuntza delako, hizketa hutsaren bidez senda dezake psikanalisiak: psikanalisiak hizkuntza izkutu horren sinbolismoa aurki-arazten digu hizketaren bidez; eta funtsean, bihotzaren ondoan, zer nahi genduen daki-gularik, zer gendukeen hobeki, hizkuntza izkutuaren «hitzak» ulertu ditugularik, gure barne-ezin-egona kito da. ORAIN BADA KIGU: geure burua ulertu dugu! Eta barne-oreka eta bakea berriz datozkigu.

Gogora ditzagun berriz oso laburzki Saussure-ren bi mailak. Hizkuntzari gagozkiolarik, alderdi batetik ideien multzoa dago, hizkuntza baino lehenago zinez nahasia eta azaldu-ezina; eta beste alderditik, ahozko soinuen multzoa, hizkuntzaren aurretik nahasia eta koloregabea ere. Hizkuntza agertzean, berriz, eta hitzak eta abar asmatu ala, taxutu egiten da ideia nahasi haien mundua. Ideiak, hitzen oposizioen bidez, elkarren sistema-barruko oposizio eta mugaketa gisa «garbitzen» eta «zertzen» dira. Ideiak, hortaz, hitzen bidez sortzen dira.

Goazen orain psikanalisiaren mailara.

Zein dira bi sail horiek? Erantzuteko, eta Saussure-ren bidetik jotzeko, ez du Lacan-ek uste Freud-en teoria ezertan aldatu behar denik. Freud-ek berak, ametsen teoriagin-

tzan batez ere, Lacan-en azterpidea idaroki du. Alde bate-tik —dio Freud-ek— badago ametsaren *funts izkutua* (le «contenu latent», irakurtzen dugu frantsesez); eta, beste-tik, badago ametsaren *mami azalekoa* (le «contenu manife-ste»). Psikanalisiaren sortzaileak berak erabili du «hiz-kuntza» hitza Lacan-ek baino aisa lehenago (ikus, esate baterako, *Introd. à la Psychan.*, 151). Eta Freud-ek berak esana du amets batek, bere azaleko itxura horretan, «ez duela batere interesik».

Areago dio Freud-ek. Ametsen sustrai izkutua ez dela ikaragarri oparo edo zabala; baina ametsen azala, berriz, irudien mordo, ezin ugariago. Nola ez oroi giza-esperien-tziaz, eta hau azaltzeko agertua den hizkuntzen mordo ugari-az? Gonbarazio hau ziplo dator gogora.

Neure arazoa ez den eztabaida batean sartu nahi ez arren, beraz, badirudi Lacan ez dela Freud-engandik oso berezten: «(le) problème consiste à traduire le langage symbolique du rêve, dans la langue de notre pensée éveil-lée» (*Introd. à la Psych.*, 154, Freud).

Ekin dizaiogun Freud-en irakurrerari: «Ametsean sin-bolakuntza duten gauzak oso urri dira: giza-gorputza, bere osotasunean; gurasoak, seme-alabak, anai-arrebak, jaiotza, heriotza, biluztasuna». (*Intr. Psy.*, 138). Eta, orai-no ere estrukturalistengandik bertago: «sinbolo oso des-berdinak mami berbera sinbola dezakete. Esate baterako, aitaren sinboloa izan daiteke bai lehoina, bai errege, eta abar, hauek guztiek aitaren sinbolo-sistema osatuz. Baina, alderantziz, amets-irudi bakar batek mami inkontziente diferentek ordain ditzake... Ontzia, esate baterako, gure haurtzaroko sehaska izan daiteke, edo-ta emakumetasuna, edo-ta... ontzia hain zuzen», dio Filloux-ek (*L'Incons-cient*, (80).

Inkontzientea «metafora» eta «metonimia»ren jopu da; ez Logikarena.

«Metafora» zer den azaldu-behar hertsirik ez dago: gutxi gora-behera denek dakite-ta «metafora» zer den. «Zerua» esan beharrean, «urdina» esan dezakegu, zerua urdina delako. Olerkarien irudi-joera ohia denez gero, ez

du balio ekitea. Inkontzienteak, askotan, metafora-bidez, antzak baliatuz, itxuraldatzen du egiazko nahikunde.

«Metonimia» zer den, aldiz, azaldu beharago da. Eman dezagun irudi bat, edozein: gaztelu bat. «Adierazle» bat izan daiteke, jakina. Zer adieraz dezake, ordea? Gauza *asko* batera. Hitz batez, «adierazle» bakar batek «adierazi» batzuk izan ditzake pertsona berberarengan: A, B, C. ... eta abar. Hau dela-ta, inkontzientea A-tik B-ra pasatzen da. Metonimian ikusten da nabarmenkienik, beraz, «hitzaren itsaskortasuna». Hitz luze batek, hortaz (Freud-ek alemanerazko adibide asko dakar) bi partetan zatikaturik beste adierazkizun bat har dezake; eta, hau dela bide, «adierazi» batetik beste batera pasa daiteke. Egiazko «hitz-jokoak» egin ohi ditu inkontzienteak, bide honetatik adierazle bakar bat atxikiz, baina adierazia aldatuz. Badago, beraz, sentidoaren aldaketa bat, baina 'hitza'edo'sintoma' aldatu gabe: «azkeneko elemento *bakar* batek funtsezko elemento *batzuk* itzul ditzake», dio Freud-ek. Ametsetan, beraz, eta inkontzientean, oso ugarriak dira bi sentidotako hitzak eta irudiak. Eta, kasu: batetik bestera igarotzea zilegi da arras. Logikatik at egi-ten dira sentido-lerraketa horiek. Hau oso harrigarria da, jakina: inkontzientearen legeak eta esna gaudeneko psikologiarenak ez dira berberak! Hau dela-ta, Fougeyrollas-ek dion bezala, badago bien artean NOLATASUNEZKO DESBERDINTASUNA, kualitatiboa alegia; eta ez axalekoa bakarrik.

Lacan aurrerago doa. Eta, psikosien *sintometan* ere «adierazle» hutsak ikusten ditu. Eritasun psikologiko baten sintomak —dio— ez dira *berez* ezer; baina nahikunde inkontzienteen «adierazle» dira. «Sintoma hitza da», dio Lacan-ek.

Badaude, beraz, alde batetik gure nahikunde nagusiak. Hauek guztiek «maitasun-eskaera» nagusiaren inguruan mordo nahasia osatzen dute gizonaren barruan. Nahikunde hauek dira inkontzientearen «adierazi»-saila.

Eta badaude,, bestetik, eriarengan azaltzen diren sintomak: temak, ametsak, lokamutsak, kirioetako desorde-

nuak, eta abar. Anitz dira hauek, milaka. Hauek dira inkontzientearen «adierazleak».

Zer da sintoma, Lacan-en ustez? Kontzientzia esnaitik at aurtikia izan den «adierazia»ren «adierazlea»; zokoratua izan den nahikunde ezinaren maskara, mozorroa eta mezua. «Adierazle» den sintoma, eritasunari gagozkiolarik, zegokion «adierazi»tik berezi da; eta, bere buruz iraundurik, eritasun bihurtu da: eri denak ez du bere sintoma *ulertzen*. Hizkuntza arrotz batez iristen zaion hitza da.

Bi multzo-sail horien arteko lotura izkutu eta ahanziak *azaltzea* izango da psikanalistaren betekizuna: psikanalisticak geure hizkuntza izkutua erakatsiko digu. Gure kontzientea *hizkuntza bezalaxe* mintzo zaigulako.

Lehendabiziko oharra, Freud-ek berak hastapenetik oharrarazirik: ez du batere funtsik amets *bakarra* hartu, eman dezagun, eta amets *horrek berak*, besterik gabe, adieraz ote dezakeena asmatzen hasteak. Amets bat amets guztien mordoan begiratu behar da; eta, bestetik, zatikatu egin behar da —zian Freud-ek berak— gero Levi Strauss-ek mitoaz egin duen bezala, eta'ameskin' edo amets-apurren arteko oposizioak eta harremanak bilatzen hasi behar da. Ametsen azterketak estrukturalista izan behar du, ez hermeneutikoa: alegia, elkarren oposizioen bidez argitu behar dira ametsak, ez elemento bakoitzaren sasi-azterketak bortxatuz. Freud-ek berak eskatzen zuen hau. Argiago esateko: (laranja) ideia ez da (l+a+r+...) zatiketa baten bidez bilatu behar, gure Astarloak egingo zukeen bezala; kolore-sailean (gorri) eta (hori) delakoekiko oposizio eta mugaketan baizik.

Horrela jokatzuz, eta ametsa inkontzienteak egindako frase edo esakuna dela kontutan hartuz (nahikunde baten obratzea pasadizu baten itxuran), funtsezko nahiaren *mamia* aurki daiteke.

Zergatik mintzo da horretara gizonaren nitasun sakona?

Psikologiaren mailan gauza batengatik batez ere: gu guztiok *hizkuntzaren ondoko* izakiak garelako. Guk *hi-*

tzen bidez pentsatzen dugu; eta bestela izan litekeenik ez zaigu buruan sartzen. Gure inkontzientea, horretara, bitxi gertatzen zaigu gaur. Jakinduria eta ohitura handiak behar dira izan pertsona baten ametsak xuxen ulertzeko; hizkuntza-aurreko hizkera bitxi horren arrastorik ez bait dugu atxiki. (Freud-ek amets ospatsu batzuez eman duen azalpena, esate baterako, ez da gaur beti ontzat hartua).

Hona hemen Freud-en iritzia: «on a l'impression d'être en présence d'un mode d'expression ancien, mais disparu, sauf quelques restes disséminés dans différents domaines» (Introd., 151).

Nola nahi dugu, bestalde, nahikundeak *agertzea*, sinbolo-bidez ez bada? Ez da erraza, benetan. Edozein problema zuzentzen hasi baino lehenago, «taxutu egin behar dira datoak, arrimatu egin behar dira ezagukiak eta bilakizunak. Hitzez baliatzen garelako ez gara honetaz konturatzen; baina programazioan ari izan direnak badakite ongi hau. Ordinadoreari eman behar zaion lehenengo gauza SINBOLOEN SEGIDA DA.

Nahi-ta-ez dator sinbolakuntza.

Bada besterik ere; eta bigarren hau gizarte-mailakoa da. Askotan —dio Freud-ek—gure «ni» sakonaren nahikundea (sexo-kontuetan, esate baterako) gizartean ez da zilegi. Nola joka dezake orduan inkontzienteak? Ez du irteera bat baizik: nahikundeari eutsi, hau bai, baina *bestela jantziz*. Hau dela-ta, sinboloa ez da sinu bakuna; ez dagokio bere izenari —dio Lacan-ek— kea suari dago-kion moduan. Nahikundeak mozarroa dakar jantzirik, itxuraldaturik dator, eta ez dugu ezagutu ere egiten. Ager ahal izateko, aldatu egin du bere begitartea («metafora» baten bidez, esate baterako); eta analogien jokoa ulertu gabe, ez dago sinboloak ulertzerik. Gizarte-legeak, hitz batez, «mozorro-dantza» bihurtzen du nahikundeen dantza.

Gutziz normala da, beraz, gizonaren inkontzientea hizkuntza izkutua izatea; eta darabilen sinbolakuntza hizkuntza mintzatuaren *aurreragokoa* izatea.

Nolakoa da sinbolakuntza hori? Hemen berezten dira Freud eta Lacan; edo, nahiago bada, aurrerago doa Lacan.

Pasadizu bat kondatuko dut hemen. Joan Mari Torrealdai adiskidearekin orain dela gutxi mintzo nintzelarik, frantziskotarren jazkera zaharraz mintzo ginen (egia esateko ez dut Torrealdai jazkera horrekin jantzirik sekula ikusi!). Eta, jakin gabe, Lacan-ek eta psikanalistek salatzzen duten «hitzen nagusikeria» azaltzen zidan («le pouvoir prégnant des mots», liokete Lacan-ek eta M. Foucault-ek). Frantziskotarren jazkera zaharra, Torrealdai-k azaldu zidanez, erdi-aroko jazkera arrunta besterik ez da. Asis-ko Frantzisko-k, beraz, jazkera hori hautatuz, txirotasun-ikurra hautatu zuen: jazkera hori, *orduan*, probeen soineko ohia zen. Gero, ordea, «adierazi» hori galdu egin da; eta jazkera, «adierazle» soil bihurturik, bere gisara abiatu da.

Soka eten da; eta frantziskotarren jazkera «sintoma» bihurtu da, adierazle» huts. Azalpena bilatu behar (gaurko dato ezagunen arabera, noski!); eta egundoko teologikeriak asmatu omen dira. Jazkera horren gakoa *alienatu* egin da: «adierazlea» atxiki dugu, sustraitikako «adierazia» (teologia-teoria horiek), alienazio-etsenplu dira. Eritasunaren sintomak beren buruz joan, eta alienazio-iturri bihurtzen diren bezalaxe.

Nahi izan gabe, Torrealdai-k oso ederki azaldu zidan psikanalistek (eta Lacan-ek bereziki) aipatu ohi duten «pouvoir des mots» «delakoa zertan datzan»... «Cette dominance que nous affirmons du signifiant sur le sujet» (I, 75, Lacan). Beste batzuek «pouvoir adhérent des mots» dute nahiago: hitzen itsaskortasuna.

Beraz. Gizonak ahaztu egiten du sintoma baten edo amets baten *egiazko adierazia* (= jatorrizko sentidoa); eta, piskanaka, beste bat erantsiz, *gal-erazten* dio benetako lotura. Egiazko giza-alienazioa, horretara, *sinbolakuntzan bertan* datza; eta, sustraitik beretik, errotik benetan, *hizkuntzaren plegukoa da osoki*. Gizona, hitz batez, funtsean bertan eta arras, hizkuntza-tasuna da; «la réalité anthropologique se réduit à une réalité linguistique», dio

P. Fougeyrollas-ek ideia hori ederki azalduz. (La Revolution freudienne, 59).

Hortaz, zer da inkontzientea? Lacan-ekin erantzun ahal izango dugu (eta honetan Freud-engandik urrun gaudela); **INKONTZIENTEA SINBOLAKUNTZAREN BERRAREN DETERMINAZIOA DA**. Horregatik dirudi inkontzientea «beste bat» dela, «Bestea» dela. «Bestea» sinbolamenaren legeen estruktura da. Estruktura hauen frutu da inkontzientea, hizkuntza arkaiko horren molde izkutua. Horretatik ere (eta hau oso inportantea da Lacan-en ideietan) inkontzientearen *ekiera*: inkontzienteak etengabe eskatzen du berbera, barne-lege batek horretaratzen duelako. Horretatik, bai inkontzientea bai sinbolamena gu baino indartsuago eta iraunkorrago izatea: «(il s'agit) de l'omniprésence pour l'être humain de la fonction symbolique» (Ecrits, I, 225). Levi Strauss-ekin bat dator.

Ondorio ezin larriagoak ateratzen ditu Lacan-ek honetatik. Eta Kondairari dagozkionak aipatuko ditugu, bukatzeko.

Lacan-ek erotik beretik baztertzen ditu kondaira-filosofia guztiak. Kondaira-materialismoa ere bai, noski.

Eman dezagun, dio Lacan-ek (ikus Ecrits, I, 138) kondaira-gertaera bat: matxinada bat, esate baterako, Erlijio-guduen garaiko gatazka bat, garbiago ikusteko. Gatazka hori, gonbarazio baterako, (katoliku/protestante) bikotearen «adierazle» bat da-izan: modu horretara jasan zuen, eta sendi, garai hartako herriak. Matxinada haren «adierazia» (kontzientea, bederen) [Lutero/Erroma] oposizioan zetzan bizi izan zutenen aburuz.

Zer gertatu ohi da gero? «Adierazlea» atxikitzen dugula (alegia: honelako eta halako urtetan matxinada bat izan zen; baina «adierazia», Torrealdai-k eman didan etsenpluan bezala, ahaztu egin da: ez dugu gaur ulertu ere egiten urte haietako problematika. Geure baloreen eta kezken arabera, *sinistu-exina* zaigu jatorrizko «adierazia» borrokaren gakoa hura izatea. Eta ez dugu sinesten. Kitto!

Gaurko giza diak ez du gertaera hori ulertzen, funsgabe iruditzen zaio, zozokeria. **BESTE ZERBAIT IZAN ZEN, NOSKI; ETA ZERBAIT HORI GURE PENTSAKERAREN MODUKOA.**

Matxinada, horretara, bere buruz abiatu da, *sintoma bat bezalaxe*, bere buruz, eta adierazi zaharretik ebakia.

Orduan dator kondairagilea (edo kondairaren filosofoa); eta «saltsa zentzugabe» hartan taxuketa eransten du, gertaera bitxiari **BESTE ADIERAZI BAT, BESTE MAMI BAT**, emanez. Eta, geronen baloreen arabera, hau dio: matxinada hartan (burjesia/proletaritzza) edo (aiton-semeria/nekazaritzza) bikotearen gatazka bilatu behar da: *ex da posible besterik izatea*. Gertakariak **BIRPENTSATZEN DITU**, eta «argitzen». Bistan da: argitzapen hau «modakoa» da, eta laister biltzen ditu bere alde populuen txaloak. Orduan «ulertu» egiten dugu gertaera iluna, lasaiago gelditzen gara, eta aurrera.

Baina «argitzapen» hau **ALIENATZAILEA DA** funtsetik beretik. Ezen aspaldiko «adierazle» zahar bati, «adierazi» **BERRIA** erasten bait diogu. Hots, dio Lacan-ek sintomei buruz eman zuen azalpenean. Gertaera hori netatik psikanalisira igarotzeko: bete-betean gaude Freud-ek sintomei buruz eman zuen azalpenean. Gertaera hori «ahaztutako borroka edo liskar baten zantzu da»; eta guk, gaurko ideien arabera, ezartzen diogun esan-nahia gezurrezkoa da: «Ce serait trop dire que nous allions reporter ces remarques sur le champ de la psychanalyse, puisqu'ELLES Y SONT DEJA; et que la désintrication qu'elles y produisent entre la technique de déchiffrement de l'inconscient et la théorie des instincts, voire des pulsions, va de soi». (Lacan, *Ecrits*, I, 139).

Kondairaren teoriak oro, horretara, alienazio hutsa dira. «Leur rôle —dio Lacan-ek gaiztoki— est assez mince pour le progrès scientifique» (I, 138). Alegia: teoria horien ekarria xumea da oso zientziaren aurrerapenean. Edo-ta: «Freud-ek ireki digun bideari eutsi behar zaio. Eta Freud-ek gauza bat erakatsi digu: 'adierazleak' jokatzen duela, eta 'adierazleak' irabazten» (II, 205).

Antza handia antzematen dugu Whorf, Levi Strauss eta Lacan-en artean. Eta gaurko pentsatzaile nagusien arteko bateratasun nabarmen bat dagoela ezin ukatua da.

Ez dira ideia hauek, halere, oso hedatuak; eta are gutxiago sasi-jakintsuen gogokoak. Gisa da. Bejondeiela! Egiak bere bidea irekiko du azkenean.

5. Afasiaren erakaspenak

Hizkuntzaren gakoa benetan ezagutu nahi dutenek, eta giroan eta modan entzun ohi diren leloak besterik gabe ontzat eman nahi ez dituztenek; Zientziari, hitz batez, eta Egiari berari hobeki, benetan errespetoa diotenek, hizkuntzaren izanari buruz jarduterakoan afasiaren erakaspenak behar lituzkete kontutan hartu. Erakaspen hauek, jakina, berri xamarrak dira; eta alferrik bila daiteke XIX-mendeko liburuetan haintzakotzat hartuak dituen ezein filosoforik.

Modako filosofia, gure artean, marxismoa da gaur (berandusko euskaldunak, bestetan bezala...). Gogorazi besterik ez du behar irakurleak Rikardo Arregi zenaren artikulu famatuaren izenpurua: «Marxismoa modan dago». Hots, gorago esan dugunarengatik, marxismoa eskasa da eta hutsa oso hizkuntzaren jakintzari eta arazoei dagokienez. Horretatik heldu da euskarari buruzko iritziak eta jokabideak askotan gure artean erdalzale izatea, errotik marxismoak ukiturik daudenen artean. Baina, hau xe larriago: marxismoa hizkuntza-zapalketaren laguntzaile

bihurtu da horretara; eta guk baino hobeki dakite hau gure etsaiek.

Pontu hau xehetasunez eta ezin hobeki aztertu du Joxe Azurmendik «Hizkuntza, Etnia eta Marxismoa» deitzen saiakera bikainean (laburtu beharrez hemen HEM deituko aipaldietan). Hor esandakoak hemen berriz aipatzea alferra litzake, noski; batez ere Azurmendi-k duen ezaguera sakonaz beste inork egitea oso zaila izaki. Kapitulu honetan, beraz, Azurmendi-ren saiakeran azaldu ez diren puntu batzuk aipatuko ditut; nahiz kapitulu hau, funtsean eta gaiaz, Azurmendi-ren tesiaren osakin izan baliteke ere (1).

Harira aurretik, hortaz, alda dezagun honera «moda»-ko iritzi horietako bat: «La complication des rapports réciproques entre l'homme et la nature aboutit à compliquer les relations humaines. Les hommes travaillaient en commun, il devaient communiquer entre eux; et, à cet effet, le nombre limité des sons dont se contentent les animaux, ne suffisait plus. Peu à peu le larynx se développa et se transforma, et l'homme apprit à prononcer des sons articulés, puis des mots qui constituèrent *le langage sans lequel le travail en commun aurait été impossible*» (Les Principes du Marxisme Léninisme, Kuusinen, Mosku). Alegia eta hitz gutxitara laburtuz: elkarrekin lanegin beharrak eta eztarri-barnearen bilakaerak sortu dukete hizkuntza, naturalezatik lanabesak eta jakiak lortu eta erabili beharrak; hitz batez, eguneroko borroka pratikoak, ekintza material eta konkretuak.

(1) Bestetik ere gainera, Azurmendik berak apur bat azaldu duenez, triptiko edo liburu-hirukotea argitaratzea pentsatuta genduen hiru euskaldunek orain dela bizpahiru urte euskararen arazoari buruz: parte bat, Hizkuntza eta Marxismoa, Azurmendik egitekoa zen; beste bat Rikardo Arregik egin behar zukeen, Hizkuntza eta Politika; eta hirugarrena nik neuk, Hizkuntza eta Estrukturalismoa, eskuartean duzun hauxe. Hiru liburuek elkarren osatzaile egin nahi genituen.

Iritzi hau guztiz ortodosa izan da marxismoan, Schaff arte bederen... eta Schaff bera heterodoso eta «C.I.A.-ren morroin» izango ez den artean. Hona hemen Marx-en eta Engels-en iritzia «Die Deutsche Ideologie» liburuan, 1845: «Kontzientzia bezain zaharra da hizkuntza. Kontzientzia egiazkoa eta pratikoa da hizkuntza. Badago beste gizon batzuekiko, eta badago ere era berean lehenengo aldiz ene buruarentzako. Hots, kontzientzia bezalaxe, beste gizonekiko harreman-beharrak sortua da». Berriz ere beraz: beharrak, elkarrekiko harremanek, beste gizonekin tratatu beharrak ez bestek agerrarazi duke hizkuntza.

Bide beretik azaltzen du Engels-ek hizkuntzaren sorrera: «Lan-banakuntzak gizonek elkarren artean aditzeko premia zekarren, eta lana planegiteko bide bezala sortu zen hizkuntza» (Ikus HEM, Azurmendi, 101).

Materiarekiko borrokak eta produzio-beharrak sortu dukete hizkuntza, beraz, produzioaren ekintzan elkarri mintzatu beharrez.

Zer da beraz hizkuntza marxisten iritziz? «Gaines-
truktura» bat, diote batzuek (ikus Arvon, esate baterako: «la première superstructure», Le Marxisme, 84). «Infras-
truktura» bat, diote beste batzuek, politikan mao-zale eskuarki: «hizkuntza lanaren beraren tresna da». Ez bata eta ez bestea azken batzuek: ekonomiaren beraren mailatik at dago hein batetan, izadia, giroa eta bizi-eskualdea bezala. Zertan gara? Oso ezaguna da honi buruz Stalin-ek Marr-ekin izan zuen eztabaida. Besteak beste, euskal aldizkari batetan eman da puntu hauen berri. Eta xehetasunez aurki dezake irakurleak horren guztiaren bilduma on bat Azurmendi-ren liburuan. «Marxologo»ek diotenez haxe da iritzi ortodosa. Baina marxista askok, neronek irakurria dudanez, «gainestruktura»tzat daukate hizkuntza. Eta Euskal Herrian agertu eta ugaldu diren marxistak iritzi horretakoak direla esan behar da.

Baina hel dizaiogun guk geure gaiari: afasiaren gora-beherak.

Baina eritasun bitxi honetaz mintzatzen hasi aurretik, xehetasun bat argitu nahi dugu.

Etnologiak erakatsi duenez, hizkuntzaren gakoa ez dira materiarekiko borroka xehe edo baliagarritasun hutsa, marxismo klasikoak idarokitzen duenez bestaldera. Alegia: herri arkaiko askotan, EZERTARAKO BALIO EZ DUTEN GAUZA ASKOREN HIZTEGI ABERATSA AURKITZEN DA. Zenbait jakintza-adarretan badirudi giza-izpirituak taxutu egin nahi duela mundua baliagarritasun eta produzitasun xehe guztietatik lekora. Beharbada estetika-joera batengatik. Dena den, mundua taxutu, arri-matu eta estrukturatu-nahi bizi horrek ez du lotura handirik jan-beharrarekin. Landareen hiztegiak hausnartu direnean, gonbarazio baterako, izen berezia duten landare askok ez du deusetarako balio. Taxutu-beharra berezkoa du gizonak: aski dugu zerura begiratzea, jakina denez, hodeien itxuretan konturatu ere gabe aurpegiak edo abereak somatzen hasteko. Hauxe da giza-gogoaren giltzarria. Levi Strauss-en modura esateko: «On classe comme on peut, mais on classe»; ahal bezala taxutzen da, baina taxutu egiten da.

Herri teknikagabe askoren landare-hiztegia zehatza ez du urdailak sortu; eta Levi Strauss-ek egokiro idatzi du, eta gupidarik gabe, Malinowsky-ren kontra, ez dutela ideia-arrimu hori «urdaileko oinaze»ek sortu! Bruseldar etnologilariaren ustez, aldiz, taxutu-behar horrek «adimenaren beharrak ditu oinarri, eta ez sabelaren beharrak». «Taxuketa-hastapen bat erantsi nahi du gizonak inguruko kosmoan; nolana hikoia izanik ere, taxuketarik eza baino gorago zaio beti taxuketa bat: honek badu beti bertute berezkoa» (Pensée Sauvage, 16). Eta aurrerago: «ezagutu-nahiak EZAGUTZEKO ATSEGINA du oinarri»; zeren-eta «ikerketen eta esperentzien parte txiki batek bakarrik eman bait zezakeen ondorio pratikorik eta berehalako baliagarritasunik» (23). Etnologiak idarokitzen duenez, beraz, hizkuntzaren gakoa giza-izpirituaren taxutu-nahia da, ordenatu eta arri-matu-nahia, taxinomi-nahia; eta ez gose arrunta, edo harri-puskak elkarri eman beha-

rra. Gizona ez da sabel-zorroa. Materialista izanagatik ere osoki, Levi Strauss urrun dago Malinowsky-gandik eta gaur guri jasan-arazi nahi zaigun materialismo zabarretik. Ez dakigu zer den giza-izpiritua; baina zer EZ DEN gero eta garbiago dago.

Afasiaren azterketak bide eta irizpide hauetatixek bultzatzen du.

Adimenaren eritasuna da afasia: eri denak ezin deza-ke ongi hitzegin. Edo hitzak falta ditu, edo ez ditu uler-tzen, edo kasu batzutan bai bestetan ez, eta abar. Afasia, hitz batez, mintzamina hondatzen duen buru-eritasuna da.

Bidezkoa da, beraz, hizkuntzaren jakintza eraikitze-ra-koan eritasun-mota honi arretaz so egitea; eta gure men-deko hizkuntzalaririk handienetako batek, Roman Jokob-son, ikerketa luzerik egina du honi buruz, baita horren ondotik liburua argitara eman ere. Bide beretik jokatu du hizkuntzalari ez den Alajouanine jakintsuak Bicêtre-ko bere ikerguan; eta argitara-berria du «L'Aphasie et le Langage Pathologique» (1968) deritzan liburua.

Ez dira afasia guztiak berdinak, eta ez gutxiagorik ere. Badago anartria, badago Wernicke-ren afasia (Ravel-ena), eta badago Broca-ren afasia (Baudelaire-rena). Eta abar. Hemen aipatuko ditugun sintomak «afasia amnesikoa»ri dagozkion ezagugarriak dira; alegia, afasi-mota berezi batenak.

Afasiaren gai harrigarri hau ukitu besterik ez dut egin-go hemen, beste gaiak ukitu ditudan saiakera-mailan. Ezen ene liburu honek azterpideak eta kezkabideak mar-katu nahi bait ditu bereziki, eta ahalik eta laisterrenik; eta ez espezialidade guztietako iritzi ustelak. Goazen be-raz *gertakari* klasiko batzuk aipatzera.

Liburu honetan barrena koloreei buruzko arazoa asko-tan aztertua izan denez gero, azter dezagun orain ere horri buruz afasikoen jokabidea. Nola jokutzen dute? Erantzuna ezin argitsuago da: AFASIKOEK TXIT GAIZKI MOLDATZEN DIRA KOLOREEN ARAZOETAN.

«Eriak, egia esateko —dio Gelb-ek— esan egin zitza-keen koloreen izenak; baita, eskatuz gero, buruz eta ila-

ran zenbait aipatu. Baina ez zekien izen horiek erabiltzen. «Gorri», «urdin», «berde», hitzen adierazkia edo senti-
dua ez zekien. Hori dela-ta, éntzuten eta irakurtzen zuen
kolore-izenari dagokion kolorerik hautatzeko gauza ez
zen» (Adhemar Gelb, Pariente-ren «Essais sur le Langa-
ge», 1969; kapitulu honetan segituko duguna).

Kasu hauetan, beraz, hitza esan dezake eriak; baina
ZERI DAGOKION EZ DAKI. Eta ezin dezake kolore-
rik hauta. Hala ere, berriz diogu, normala da fisiologiaz
puntu honetan, eta koloreak berezten ditu elkarretatik.
Baina ezin dezake kolore-sorta batetan, demagun, «urdin»
bat hauta. Zer gertatzen zaio, beraz?

Ikus dezagun beste jokabide klasiko bat.

Demagun orain afasiko horietako bati koloreak TA-
XUTZEKO eskatzen zaiola. Zer egingo du? «Koloreak
ongi ikusteko gauza izanik, ez zituen behin ere egiten ko-
lore-ikusmenari buruz eritasunen bat duten eriek egin ohi
dituzten hutsak; baina gauza nabarmena zen eria-
ren jokabidea eta gizakume normal batena liferente direla. Eria
ez zen gauza koloreak era batetara taxutzeko: kolore-
doia-
ren arabera, eman dezagun; edo doiaren argitasunaren
arabera, edo doiaren «berotasun» edo «hoztasun»aren
arabera. Ez. Taxu eta elkar zitzakeen koloreak bikotetan,
askotan arta handiz ere, oso kontuz, eta xeheki aukera-
tuz; baina koloreen egokitasun eta elkargaitasun hori
aldian-aldikoa zen, aldakorra, igarokorra, hein bakoitzean
aukera-plegukoa, memento bakoitzean berari nagusitu
izan balitzaio bezala... Hori dela-ta, urdin argia eta urdin
iluna elkartzen zituen, elkarrekin ikusi-berriak zituelako;
baina guztiz segituan urdin horixe ezkontzen zuen larrosa
batekin». Eta Gelb-ek erabakitzen: «Eriak... eten gabe
aldatzen zuen bere taxupidea edo taxukera-legea... ez zeu-
kan taxutzeko jarraipiderik batere, eta ez zen gauza ikus-
puntu bakar batetik koloreen taxuketa bakar bat osatze-
ko» (Essais, 236).

Azalpen berberak eman ditu honi buruz Goldstein-ek
(ikus Essais, 403 eta hurr.) «Horrelako eriei koloreak
taxutzeko eskatzen baldin bazaie... eman zaien gorri mota

batekin ongi ezkon daitezkeenak jartzeko, gonbarazio batez, eri dagoena ez da inolaz gauza, nahiz ikusmen kromatikoa edo koloreen berezmena akatsik gabea izan. Bi kolore-doi edo -doinu guztiz berdinak parekatuko ditu agian, edo arras antzekoak. Eta bazterrean utziko ditu gainerakoak. Gauza agiria da ez zaizkiola hauek elkar-gai iruditzen. Alderantziz, kolore-funtsari dagokionez bati ere antzeko ez diren koloreak elkartuko ditu... Eriak, hitz batez, ezin ditzake koloreak taxu, ezpada aldioro nagusitzen zaion egokitasun konkretu batek eraginik; ez sekulan ere mementoko gertakariak idarokia ez den ideia-arrimabide bakar eta aldagabe baten arabera» (Essais, 304-305).

Fenomeno hau oso inportantea da. Eta on izango du irakurleak kontutan ongi hartzea. Ez koloreak aukeratzeko ez taxutzeko gauza dira afasiko horiek irizpide bakar baten arabera. Gero itzuliko gara puntu honetara.

Afasiko batzuek, hildo beretik, zenbakien izenak ezaguturik ere (bat, bi, hiru, lau, ...) ez dira gauza zenbaki horien ilara botatzeko. «Sieckmann-ek ikertutako Rath afasikoari eskatzen baldin bazaio zenbakien sorta esan dezan, aisia osoan zenbatuko ditu bere eskuetako behatzak edo erhiak, eta goraki esango denak zalantzarik egin gabe. Baina bere erhiok edo beste gauzakirik zenbatzea debekatzen baldin bazaio, ez daki egiten: nekez eman ditzake sortako lehenengo lauzpabost zenbakiak, eta gero gelditu egiten da etsita» (Gelb, 248), Gauza bera Goldstein-ek: «Zenbait erik ez dakite zenbakien zerrenda esaten, ezpada zerrenda hori kantuz lagunduz, alegia, bere horretan oroimenaren ikaspen sendo gotor bat bait litzan. Edo-ta, bestetan, gauzakiak zenbatzen lortzen badute ere, banan-banan ordea ez dakite zenbakiok hutsik ematen. Gauza bera gertatzen zaie aste-egunen zerrendari buruz, edo tankera horretako edo zein sortarekin» (Essais, 279).

Plegu bereko joera erakusten dute afasiko batzuek idazkeraz: «Gizaki normalak horrela edo hala idatzitako edo inprimatutako hizkiak, letrak eta hitzak ezagutzen ditu. Afasikoak, aldiz, oso maiz, ez ditu letrak ezagutzen

idazkera berezi batetan baizik, zenbait aldiz bere idazkera berberaz besterik. Idazkeraren aldaketarik xumeena, hizkien arteko desberdintasunen bat, eman dezagun, gertatuz gero... aski zaie idazkera aldatu eta beraz eria-riren iriziz sentidu gabe bihur dadin» (Essais, 247).

Gauza bera gertatzen zaie afasiko horiei espazioaren taxuketari dagokionez: ez dute afasikoek ulertzen «eskubi alde» den, ezta «ezker alde» zer den ere; eta «goian» edo «beherean» gauza bera (246, 283). Gelb-ek azaltzen duenez afasikoak zenbait aldiz, bazterretik joanez, galderari erantzun dizaioke. Nola, ordea? Jakingarri da oso. «Goian» zer den azal dezan galdegiten baldin bazaio, «eria-riren iriziz sapaia da hori, edo lanpara, edo zerua»; «beherean», era berean, «zorua da»; «eskubi alde», «idazteko edo bizarra kentzeko erabiltzen den eskuaren alderdia da»; eta abar. Alegia: afasikoak ez du galdera zuzenki erantzuten, ez du espazioaren barne-taxukera baten arabera erantzuten, galdera GAUZATUZ BAIZIK.

Zenbakiak ematerakoan bezala.

Ohar hau ezin inportanteago da: «Frogabidearen baldintzak aldatuz —esate baterako— eria-ri debekatzen baldin bazaio, dio Gelb-ek, problema 'konkretuki' garbitzeko aukera, eriak erreka jotzen du, eta etsita gelditzen da» (Essais, 246).

Hitz batez: afasiko horiek ez dira gauza fenomenuen multzoan taxuketa edo estrukturaketa egiteko, eta horregatik galtzen dute mintzamina. Mintzamina eta estrukturamina, beraz, afasiaren aldetik azterturik, elkarri hertsiki loturik agertzen dira. Afasikoen ikertzapenak erakasten duenez, estrukturamina edo mintzamina falta direlarik, gizonaren ulermena maingu agertzen da eta osoki ezindurik, mundua irizpide baten arabera taxutzeko dohan haina gizonari trakestu eta kamustu balitzaio bezala. Gizonaren adimena akabo da mintzamenaren hondaerarekin batera: ez du ezer ulertzen eta ez da ezer adierazteko gauza izaten. Arrotz egiten zaio hizkuntza, eta sentsazioen bertakotasunera igarotzen da. Ez da gauza pentsatzeko: ingurumari konkretuen xehetasunetan itotzen da.

Zilegi bekit hemen ohar txiki hau. Afasiaren erakaspenek garbi utzi bide dute gauza bat: frasearen moldaera, esakuntzaren prestaera, esakizunaren sintasia, hitz batez; eta frase horren betegarriak edo betekinak (alegia: hiztegiko hitzak) *bi mailatako fenomeno direla*. Geroago ere berriz aipatuko dugu puntu nagusi hau. Saussure-ren azterketa-joera eta N. Chomsky-rena, BI MAILATAN agertzen dira afasiaren ikertzapenetan, eta ez maila berean eta elkarren ukatzaile: gauza bat da frasearen «eskema» (Gelb) izatea, eta beste gauza bat «eskema» horretako hutsunean egokiro betetzea. Eta hau pozgarri zait. Zeren-eta Chomsky-k ez bait du, gehienetan bederen, orain arteko estrukturalismoa ukatzenago, Saussure-k ordurarteko filologia eta konparatismoa baino. Afasiaren ikerzapenetan ere, **BESTE MAILA BATETAKO IKERTZAILA** agertzen zaigu Chomsky.

Baina bihur gaitezen geure harira.

*Koloreekiko fenomenua argi-emale ederra da. Afasiakoak koloreak berezten ditu, ez da dudarik; baina ez daki nola taxutuko mordo mugagabe nahasi hori. Batzutan gure artean normala den irizpidea hartzen bide du gidari: gorrista guztiak gorri bide zaizkio aurrenik, berdasakak oro berde, eta abar. Baina segituan, edo tarteka marteka hobe, arrosak eta urdin argiak elkartzen ditu, demagun, kolore «bigun» gisa; eta gorri azkarra eta urdin iluna, gauza bera. Bi taxuketa horiek (eta beste) *batera* eginen ditu, kasu! Ez elkarren segidan biak, ez herronka; ez bata ustiatu eta bestea hasi. Ez. Herronka geuk ere egin dezakegu taxukera berezirik: kolore-doiaren arabera behin, geroago kolore trinkoaren arabera, eta abar. Baina afasikoak *batera* taxutzen ditu honela ETA hala; alegia, taxupide **BAKAR BAT** ezin harturik. Afasikoak ez du taxuketa-erregularik atxematen ahal, eta hartan pausatzen.*

Etnologiak ere fenomeno honen berri eman digu. Conklin, esate baterako, iritzi okerra hartzeko zorian ibili zen Filipinetako Hanunóo-tarrak ikertu zituenean (irakur «Le Pensée Sauvage», Levi Strauss, 75): «Axaleko nahasketek eta kontradizioek zoraturik egon zen (Conklin) hasta-

penetan... Baina oker guztiak zuzendu ziren hanunóo-tarren sistemak bi taxu-ardatz duela ulertu zuenean, biak modu liferentetara finkaturik: koloreak taxutzekotan, alde batetik kolore argiak eta ilunak berezten dituzte berek, eta beste alde batetik segun-eta kolore horiek landare gordinei ala landare iharrei dagozkien. Indioek, horretara, elkarrekin jartzen dituzte berdea eta banbu-kanabera ebaiki-berriaren kolore marroi diztirantea; nahiz-eta guk geronek bigarren hau gorriekin batera jarriko bagenitu ere». Hemen, beraz, Hanunóo-tarrek badute taxukera ALDAGABE bat; baina BIKUNA da. Irizpide bikun hau, jakina, ez da geronena; eta horregatixek pentsatu zuen Conklin-ek lipar batez Hanunóo-tarrek koloreak berezten ez zekitela.

Afasikoen kasoak ez da batere gauza bera. Afasikoak berezi egiten ditu koloreak, baina ez daki *estrukturabide bakar eta aldagabe* baten arabera taxutzen; eta geroago, nahi bada, beste molde batetara, eta abar. Taxupideak nahasi egiten ditu gaisoak, eta inguruko giroaren eta erreparakinen jopu agertzen da. Hemen ageri da ongienik hizkuntzaren liberazio-ahalmen harrigarria; eta behar bada aberearen funtsezko lotura eta itsutasuna zertan datzaten agertzen.

Joera berberak ageri dira aipatu ditugun beste fenomenuetan. Afasikoak badaki eskuetako erhiak zenbatzen; baina zenbakiak berak abstraktuki zenbatzen ez daki. «Zenbakiaren ideia galdua du», dio Goldstein-ek (*Essais*, 283). Eta hau arrunt kontutan hartzekoa da. Gauza ezaguna da ehiztarien teknika: harrapatu nahi duten alimalearen saizulora *batzuk* sartzen dira, eta gero banaka irtetzen dira, denak, ehiztari bat edo bi ezik. Etxera bihurtu nahi duen alimaleak *zenbatzen ez dakienez gero*, «batzuk» irten direlarik etxeratzen da; eta... gatibu gertatzen. Ez daki zenbatzen.

Afasikoak badaki esku ezkerra zein dan, baina ezkerreala zein den ez daki. Afasikoa, hitz batez, abstraziotik at dago. Pentsamen egiazkoa galdu du; eta gizatasunaren funtsa ere bai, hein batez.

Hots, nola galdu ditu? Mundu eta esperentziak taxutzen ez dakielako, hain zuzen; hau da, gertakarien eta ikasien mordo eskerga estrukturatzen gauza ez delako. Gorriak elkartzekotan, guztiz berdinak direnak besterik ez du elkartzen; gainerakoak errotik «beste» zaizkio, eta ez daki beretaz zer egin. Gorri guztien artean ez du funtsezko eta elkartzailerik ezer ikusten. Afasikoak larri-larrian somatzen ditu desberdintasunak. Gelb-ekin esateko (ta badirudi berriz ere Saussure, Hjemslev edo Mounin mintzo direla ene lumaren bidez, eta ez osagile bat) «dato desberdinak erreparatzeko edo alde batera uzteko dohaina» du galdua. Afasikoak ez daki bigarren mailakotzat xehetasunik HAUTATZEN; eta galdu egiten da berberatasunetan, kide hertsien bilaketa etsian eta liferentzien oihan mugagabeen.

Gauza berbera gertatzen zaio letrekin. Hizkiak guztiz berdinak ez badira, ez ditu afasikoak ezagutzen, eta ez taldetan jartzeko zimendurik ikusten. Hitz batez: *afasikoa ez da gauza sinbolakuntzan barrena abiatzeko*. Eta sinbolakuntzarik gabe afasikoak ez du ezer ulertzen. Taxumena galduta, taxinomia egiteko ahalmena hondatuta, gizonak adimena bera galtzen du.

Gelb-ek eta Goldstein-ek «kategoria- ikuspuntua» («attitude catégorielle» frantsesez) bataiatu dute gizonaren jeneraltasun-ahalmen berezi hau orain dela berrogei bat urte. «Kategoria-ikuspuntutik gauza bat ikusteak hau adierazten du —dio Gelb-ek—. Gauzaki bat begiratzean, esate baterako, gauzaki horren antzeko guztien mordoko specimen edo eredu gisa ikus ahal izatea... Sinbolozko mintzairak bi alderdi lotu behar du batera: gauza bat BERE HORRETAN ikus ahal izatea, eta horrekin batera gauza horixe BESTE GAUZA BATEN SINBOLO gisa ikus ahal izatea» (Essais, 285). Ohar bedi irakurlea hau gabe ezina dela egiazki eskuz idatzitako gutunik batere ulertzea, etsenplu bat emateko.

Fenomenu honen gakoa azaldu nahiz, giltzarri izan daitekeen ideia bat idaroki zuen Golstein-ek: «Badirudi eriak izen nagusi edo propiotzat hartzen dituela hitzak

eta izendapenak, eta ez izen komun edo hitz arrunt gisa». Gure «urdin», Urdin da haren ustez (eta Urdin hori haren bizierako sentsazio berezi-berezi bati dagokiona); gure etxe, Etxe zaio; eta gure «haizea», Haize. Afasikoek letra handiz idatzi behar bide lituzkete gauzaki guztien izenak. «L'aphasique n'est pas simplement un homme DONT le langage est modifié, mais UN HOMME MODIFIÉ de façon caractéristique»... «Nous avons caractérisé cette modification essentielle et fondamentale comme une REGRESSION vers un 'comportement moins abstrait, moins rationnel, plus immédiat et plus concret', donc en un sens plus primitif dans tout ce qui concerne le monde extérieur, et spécialement le monde des couleurs» (Gelb, 234).

«Elkarrekiko ezertxo ere berdinek ez zeukaten banakotzat hartzen zituen eriak kolore-doiak... Haren kosmo konkretuak ez zuen, beraz, guretzako eskuarki duen ideia-arrimu ezaguna. Eriak ezin zituen gauzak berberatasunaren arabera baizik taxutu» (313). Eta aurreraxeago: «eriak beti izenda zitzakeen gauzak; baina koloreak sekulan ez» (321). Ohar bekio irakurlea horri: GAUZAK BAI, KOLOREAK EZ.

Honetaraz gero, ohar pisu bat egin behar da afasiko hauei buruz: eri hauek ez dira gauza esakuntza funsgaberik esateko. Areago: ez dira gauza ezta, entzunik ere, esakuntza funsgabe absurdurik birresateko ere! (ikus Goldstein, Essais, 327). «Esaten baldin bazaio, gonbarazio batez, 'zerua beltza da', eriak egiaren arabera erantzuten du: 'ilun dago'. Era berean jokatu du ondoko hau entzutean: 'elurra beltza da'. Errealitateari ez datxekon ezakuntza horiek ez ditu konprenitzen; ezin ditzake ez esan, ez agindupean birresan, ez pentsa. Ezin dezake gauza absurdurik». Hau ere oso inportantea da; eta garbiki erakusten du afasikoa ezin daitekeela abstrazioaren mailara igaro. Sentidurik ez duen esakuntza bota ahal izateko, urrundu egin behar da egiatik eta errealitatetik, deslotu egin behar da inguruko baldintzetatik; eta afasikoa ez da hau egiteko gauza. Honetaz ohartua da Azurmendi zor-

rotza, eta hizkuntzaren ezagugarririk harrigarrietako bat horretan dakus (HEM, 203). Egia gorritik pitin bat urrunaraziz gero —dio Goldstein-ek— afasikoak ez du deusik ulertzen» («dès que l'on exige d'eux qu'ils s'adaptent à un monde tant soit peu abstrait ou hypothétique») (Gelb, 284).

Afasikoen ikerketak erakusten duenez hizkuntzaren gakoa ez da tresnatasun soila, edo gizarte-harremanetan baliagarri izatea, labana edo aizkora baliagarri diren alde-tik. Hizkuntza ez da inondik ere, eta hauxe da agian ondoriorik larriena, mundu *konkretuan*, *gauzen* eta gauzakien giroan, *ekintzarako* beharretan, mamitu den *beste tresna bat*. *Hau, hain zuzen, ez da egia*. Afasikoek badute mundu konkretuan, gauzen artean eta ekintzan moldatzeko eta elkarraditzeko erdi-hizkuntza. Hots afasiko horiek ez dira gauza pentsatzeko. Tresnatasunetik eta ekintza-beharren mailatik *gora* igotzen ez dena da afasikoa. Ez gizon normala; ez gizon gizona, beraz. HIZKUNTZA GORAGO EDO AURRERAGO DAGO TRESNATASUNAK ORO BAINO.

Ekintzari dagokionez, oso gogoan hartzekoa da, hain zuzen, psikologilariak egiten duten berezkuntza: gauza bat dela SINBOLATZEKO HIZKERA (ideien mailakoa); eta beste bat KONDATZEKO HIZKERA (pasadizuen mailakoa). Afasikoak, esate baterako, oso makal ibiltzen dira BEREI GERTATU EZ ZAIEN IPUINIK XUMEENA AZALTZEKO: ez dituzte beharrezko hitzak aurkitzen, haria galtzen dute, eta abar. Ezin omen dute. «Kondatzen zaizkien pasadizuak ez dituzte konprenitzen, ezta istorio labur errazik ere; nahiz zenbait aldiz istorio horietxek irakurtzeko gauza izan» (Goldstein, 283). Bizi izan duten pasadizua kondatze-kotan, berriz, hitzak erruz datozkie, eta aisian azal dezakete dena.

Lehenengoa egiteko ideia-hizkuntzaren jabe izan behar da, ekintzatik berezia, oroitzapenetatik arras beste; bigarrena egiteko, berriz, aski da gertakari bizituen jabe egotea, egintzari itsatsia den hori aski. Lehenengo mintzakerari kategoria-ikuspuntua dagokio (attitude catégorielle); bi-

garrenari pratika-ikuspuntua eta oroitzapenei eratxekia (attitude pratique) dagokio. Bigarrena, beraz abstraziotik honuntz dago. Eta, noski, afasikoek beranduago eta nekezago galdu ohi dute lehendabizikoa baino. Bi maila dago hor.

Eta hau ezin inportanteago da. Berriz ere ageri zaiguta abstrazio-mailako hizkuntza eta mundu konkretuarena BI HIZKUNTZA-MOTA direla, ez bat. Berez: ekintza konkretuak moldatzeko, hain zuzen. EZ DA GIZA-MINTZAMENIK BEHAR. Goldstein-en hitz argitsuak osoki kopiatuz: «Elle (eria) n'avait les mots à sa disposition qu'autant qu'ils s'adaptaient à une situation totale CONCRETE, et dont elle avait l'EXPERIENCE DIRECTE. Les mots ne représentaient évidemment pas pour elle des désignations de choses, mais DES QUALITES DU VECU, attachées à certaines EXPERIENCES, des NOMS PROPRES» (Essais, 311).

Afasiak erakasten duenez, hortaz, gizona SORTU BAINO LEHENAGO ERE, izan zitekeen ekintza-mintzaira konkretoa; baina hori ez da giza-hizkuntza. Aski da horretarako afasikoengan agertzen den hizkera «praktiko» horren karikatura. Marx-engandik urrun gaude. Gizatasuna ekintza konkretutik AT agertu bait da. Horretara garamazki Zientziaren errespetuak, ezen Goldstein-ekin esateko: «Ce monde de l'ACTION est au fond le seul qui existe pour notre malade, le seul qui lui soit proche; tout autre lui est étranger» (Essais, 315). «Pour notre malade il n'y a qu'un seul ordre possible, celui que correspond à l'USAGE CONCRET des choses dans une situation définie» (314). Ekintzaren mundua, eta dagokion hizkera esistentziala: horra hor afasikoaren izpirituan sarera duena. Ez abstraziorako gai den mintzaira egiazkoa.

Hau guztia ongi ulertzea oso garrantzitsua da. Afasikoaren hizkuntza gauza konkretua da osoki. Fraseak erakitzeotan maingu ibiltzen bide da: guk «-tik», «-ko», «-ra», eta abar, galduak bagenitu bezala: «etxe joan ni», edo «harek ikusi etxe», edo tankera horretakoak; alegia, abstraziozko sufijorik gabe, eta «telegrama-mezuak» ema-

ten dutela: lehor, ahul, ilun, perlesiak jota. Eta hitzak hautatzekotan, oso larri ere bai: gauza guztiz konkretuak ez izatekotan, ez du afasikoak hitz egokirik aurkitzen. Ez absurdurik eta ez irudimenezko esakuntzarik eman dezake bestetik; eta errealitate huts eta biziturik at, ezer uler. Afasikoak, esate baterako, ez ditu ulertzen atsotitzak eta zirtoak: «Le malade ne comprend jamais une expression figurée» (Goldstein, 326, 327).

Afasikoak, ordea, badu gauza konkretuak izendatzeko eta hautatzeko dohaina; eta, esan dugunez, ukitu zuten gertakariak hizkuntza aberats eta mardulaz azal ditzake. Afasikoak badu harreman konkretuetarako ahalmena. Besterik falta du: tresnatasunetik at dagoen hizkuntza, hain zuzen!

Eta hori dela bide, afasikoak ez du egiazki pentsatzen. Tresnatasunaren maila, beste modu batetara esateko, **PENTSAMENETIK AT DAGO**.

Eta **HELBURUETATIK AT ERE BAI**. Eta hau ezin ohargarriago da. Ezen Aurel David-ek, Zibernetikaren aukerez eta mugez mintzo delarik, egoki bait dio elektronikazko zelebruak eta gizakumearen pentsamenak liferentzia funtsezkoa dutela: ordinadoreak badakiela operazioak egiten, baina ez problema bera asmatzen; eta gizonak bai: bai problema asmatzen, **BAI HELBURUAK ETA BALOREAK SORTZEN**. Giza-izpirituaren eta makina zibernetikoaren arteko desberdintasun nagusia maila honetan dago, beraz, eta ez axalago: **HELBURUA PROPOSA AHAL IZATEA, ALA EZIN PROPOSATZEA**. Makinak ezin du helbururik proposa, gizonak bai. Makina **TRENATASUNAREN MAILAN** mogitzen da; gizona **HELBURUEN** mailan ere mogi daiteke.

Hots, afasikoek ezin dezakete helbururik asma, ez finka: «Placés devant des problèmes que l'action immédiate, telle qu'elle naît de la situation même, ne suffit plus à résoudre, et qui demandent au contraire de la réflexion et **UNE ORIENTATION VOLONTAIRE VERS UN BUT**, les malades échouent souvent entièrement» (Gelb, Essais, 246).

Aisian balia daitezke tresnak, eta jendeak egokiro elkartu ekintza pratiko bati buruz; eta halaz ere gizatasuna sortu gabea izan. Gizatasunaren gakoa besterik da. Gizatasunaren gakoa, eta egiazko mintzamenaren giltzarria, besterik dira: **ESTRUKTURAMENA DA GIZONAREN GILTZARRIA**. Eta estrukturamen honek, taxumen honek, ez du deusik ikusi behar tresnatasun soilarekin. Lanabesak egokiro erabilirik ere, ekintza bat pitekantropoek edo oreopitekoek taldetan moldaturik ere, **Izadiarekiko** borrokan hiztegi arrunta erabiliagatik ere, afasikoen mailan ginake oraindik. Tximuen mailan beraz. Ez oraindik sintasia eta fraseak moldatzeko dohainik (Chomsky), ez hiztegia eta elkarpedeak taxutzekorik (Saussure) litzake ageri izango. Gizonagandik urrun gengozke produzio bikainak lortuagatik ere, benetan, ezen afasikoek **JAKIN IZAN BAIT ZUTEN HITZEGITEN...** Ez da hau ahaztu behar. Gelb-ek ederki dionez, ez da gauza bera murru zaharrakatua eta murru arkaikoa. Gorago daude eskierki afasikoak, hizkuntza konkretu huts horretaz balia zitezkeen X-pitekoak baino. Eta... halaz ere!

Hizkuntza ez dute sortu, beraz, tresnak baliatu beharrak, edo lana elkarrekin egiteko moldatu beharrak. Hori ez da egia. Estrukturamenak, alegia, mundua «a priori»ko irizpide baten arabera taxutzeko psikologi-dohain bereziak, «attitude catégorielle» delakoak, gauza batetan gauza bera **ETA SINBOLO GISA** batera ikus ahal izateak: horretzek sortu du mintzaira. «Toute perte au toute altération de l'attitude théorique et contemplative (catégorielle) s'accompagne d'une parte ou d'une altération de la fonction 'représentative' du langage» (Gelb, Essais, 239).

Txinpantzeak badaki tresnaz baliatzen: makilaz, kajaz, eta bestez. Baina hiztegi estrukturaduna ulertzetik eta moldatzetik guztiz urrun dago. J. R. Gardner-ek eta honen emazteak Nevada-ko Unibertsidadean egin dituzten ikertzapenek ondorio beretara eraman dute. «Washoe» txinpantze-emeak, gor-mutuentzako erabili ohi den hizkeraren bidez, 30 *sinu* ikasi ditu 22 hilabetetan; eta gehia-

go ikasteko itxura omen du. Baina John Davy-k azaldu duenez, «it seems that she shows no signs of assembling these signs systematically into 'sentences'»... Chomsky eta Chomsky-zaleak pozarren utziz! Alegia: badirudiela sinu horiek sistemakiro LOTZEN ETA ERABILTZEN EZ DAKIELA txinpantzeak. Mintzamenetik honat gelditzen da beraz tximua, zeharo honaindian. Hizkuntza «pratiko» famatu horren maila gorrian besterik ez; eta «pratikoi» idatzi nahi gendukeen...

«Washoe» tximuak «hitz» batzuk ulertzeko gauza dela dirudi. Eman dezagun. Zer du ulertzen? Gauza KONKRETUAK soilki. SINTASIA, eta hiztegi normal bati datxekon TAXUMENA, guztiz ditu urruti. «Washoe» txinpantzeak baluke, agian, LANGINTZARAKO hiztegia, PRODUZIO-RAKO sinu-herrenkada, eta taldetan elkarraditzeko sinu-tresna. Hori ez da ordea hizkuntza, ez estrukturalista klasikoen iritziz ez Chomsky-zaleen iritziz. Hor ez dago SORMEN ARRASTORIK.

Chomsky berriro aipatu dugunez gero, hitz labur batzuz esan dezagun gauzatxo bat halere: «Esakuntzaren eskema hitzen jabegoaren aurretik etorri ohi da —dio Goldstein-ek—. Esakuntza eta hitza elkarretatik berex daude, ez dute elkarrekiko loturarik; eta hain zuzen ere, bietan ximpleena esakuntzaren eskema da: «La phrase demeure indépendante du mot, mais aussi (que) la phrase est de deux le fait le plus simple» (Essais, 299).

Berriz ere bi maila ikusten ditugu hizketan. Hots, hizkuntzari, gramatikaren eta hiztegiaren ESTRUKTURATASUNARI legokioke sakontasunik eta zailtasunik handiena. Afasiko askok, gaizki ala erdipurdi, fraseak egiten ditu... hitz eskasia osoan! Eta galduago bide ditu ideien taxuketa (sufijoak, hitzen oposizioak, soinuen artekoak, eta abar) sintasia nola edo hala ESKEMA GISA sortzeko dohaina baino. Goldstein-en iritziz, beraz, Chomsky-ren azterketa-maila axialagoa da klasikoena baino! Baina «Washoe» txinpantzearen eginek besterik idarokitzen bide dute; eta hobe da horrela...

Langintzak eta mintzamenak, lanabesen produzioa eta giza-gogorik sakonena, hitz batez, «moda»ko iritziek nahi luketen baino deslotuagorik daude. Eta Egiaren ohoretan hala aitortu beharra dago, eta ideia-ondoreak atera.

Goldstein-en hitzak honera birlandatzea bezalakorik ez zait bururatzen: «Eriaren hizkerak erakusten digun izakera konkretua alde batera uzten badugu, baita ekin-tzarekiko eta egiazkoarekiko duen menpetasuna, gauza bat agerrerazten digu honek: gizon helduaren hizkuntzak dituen aberastasun harrigarria eta askabide osoa. Mintzai-rak bere barruan daraman jakinduri-altxor ugaria erakus-ten digu, honen erabilketa baliagarri eta logika-ibilbideen aniztasuna... Baina bestetik ere, biziera-eginkizunen mor-do osotik berezitako eta bakandutako hizkera baten olde-gabetasuna, nagitasuna eta elkortasuna paratzen du gure begien aitzinean. Ez dago afasikoen hizkera hau baino ulerpide egokiagorik, *mintzaira tresna huts gisa hartzea* norainoko okerra izango litzakeen frogatzeko. Ikusi du-guna, hain zuzen, tresna soiltzat erabilitako hizkera baten sorrera besterik ez da. Gizon normalarengan ere gertatu ohi da, jakina, mintzaira tresna soil gisa erabiltzea; eta tresna gisa baliatzeak, hain zuzen, erruz lagundu du giza-zibilizazioaren eraikieran. Baina tresnatasun eta baliaga-rritasun horien funtsean badago besterik, mintzaira berez beste gauza bat delako; eriarengan mintzaira beste gauza bat izan zen bezala, gaisotu aurretik... Gizonak bere bu-ruarekin edo lagunekin harreman bizia eraiki nahi due-nez geroztixek, *hizkuntza ez da tresna hutsa, hizkuntza ez da lanabesa*: hizkuntza giza-muinaren, eta munduare-kin eta geure antzekoekin lotzen gaituen psikologia-lot-kiaren agertzapen eta errebelazioa da» (Goldstein, Essais, 329-330).

Elkarrekin egin beharreko produzioa eta ekintza, ho-rretara, askoz ere atzerago edo axialago jarri behar dira gizakuntzaren kondairan, mintzamen nahimenezkoa baino. Edo, nahiago baldin bada, eta hizkuntzalari ezin-ezagu-nago den Noam Chomsky-k ahitu gabe esaten duena birre-

sanez, ia *mirari* huts eta ulertu-ezina da gizonaren mintzamenena: aztertuago, eta gu mirestenago eta harritzenago.

Apaltasun hau, ziurki, XIX-mendeko zientziakeria harroputz, determinista eta zaharrakatu haiek erakatsi diguten sasi-segurantzia baino askoz korapilotsu eta zailago da.

Egia eta kosmoaren misterioa bezala.

6. Estrukturalismoaz zenbait hitz (1)

Estrukturalismoak hizkuntzaren azterketa du oinarritzat.

Estrukturalismoaren aita hizkuntzalari bat izan da: Ferdinand de Saussure, gaurko Hizkuntza-Jakintzaren sortzailea. Estrukturalismoaren gakoa hizkuntzaren izanean datza. Estrukturalisten ustez, hizkuntza da giza-fenomenurik bereziena eta gizatarrena; eta Giza-Jakintzek aurreratu egin nahi izanez gero, Hizkuntzalaritzaren bidea hartu behar dute. Levi Strauss irakur dezagun: «Sozial jakintzen mordoan (eta honen atala da Hizkuntzalaritza zalantzarik gabe) oso leku berezia dagokio honi: hau ez da gainerakoak bezalako zientzia. Urrundik gainera honexek egin ditu aurrerapenik handienak; hauxe da, dudarik gabe, zientzia-izena eska dezakeen bakarra. Hizkuntzalaritzak lortu du soilik ikaspide positiboa: berak lortu du aztergaiak bere ikaspidearen bidez benetan ezagutzea. Hizkuntzalaritzak bildu behar ditu, beraz, psikologilariak,

(1) Artikulu hau «Jakín» aldizkarian agertu zen (29 zb., 1968).

soziologilariak eta etnologilariak, hauek sozial fenomenuen ezaguera positibora eramán ditzakeen kaminoa gaurko Hizkuntzalaritzatik hartzeko gogoá dutenean» (Anthropologie Structurale, 37 gn. horr.).

Estrukturalismoa zertan datzan ulertzeko, beraz, nahi ta nahiez hasi beharra dago Hizkuntza-Estrukturalismoa zer den ongi ulertzetik.

Hizkuntza-Estrukturalismoa

Azken bolada honetan artíkulu batzuk argítara dira euskaraz Hizkuntzari buruzko estrukturalismoa zertan datzan azalduz. (Ikus, esate baterako, Br.-ren lehenengo zenbakia, 1966). Ideia berberak xehetasunez azaldu beharrik ez dago, ník uste, eta hitz gutxitan gogoraziko dugu hizkuntza-estruktura horiek zer diren.

Saussure'k bere «Cours de Linguistique Générale» delakoa argítara arte, hizkuntzen azterketa atomista zen eta ez estrukturalista. Gauza garbi azaltzen ez bazen ere hitzen arteko lotura eta oreka ez ziren nabarmen agerrarazten. Hitzak banaka banaka aztertzen ziren: gauza edo ideia bati hitz bat, pentsatzen zen; eta hauek hizkuntza guztietan guztiz trukagarri edo itzulgarri zitzaizkien: elkarren kide zehatzak. Gorri = rojo = rouge = red = ...

Har dezagun elurraren fenomenua. Antzinako hizkuntzalaritzan, fenomenu horri guk «elur» esan diogun bezalaxe, inglesek «snow» esan diote, frantsesek «neige», espainarrek «nieve», eta abar. Hitz batez: munduaren taxuketa *bakarra* zitzaien: edozein hitzen kideak, beraz, hizkuntza guztietan aurki daitezke. Hizkuntza ez zitzaien «pentsamentuaren soinekoa» baizik.

Hizkuntza bat ala beste bat, beraz zer axola? Hizkuntza bat hitzegitea tresna batez baliatze hutsa zitzaien, mintzabide soila; ez ideien moldatzaile, eta ez gutxiagorik ere. Hizkuntza herri baten arima dela pentsatzea «erromantizismoa» iruditzen zitzaien. Hizkuntza giza-lanabes gardentzat hartzen zuten.

Iritzi ximple horiek arrastorik utzi gabe suntsitu dira Saussure'k 1916-ean bere teoria azaldu zuenez geroztik. Hizkuntzari buruzko atomismoa gaur Newton eta Galileo' ren aurreko «fisika» haien parekoa da: alegia, ez-jakinen artean onartzen da, eta ez beste inon.

Hizkuntza estruktura-mordo berezia da; ez aldez aurreko hiztegi bakar eta logiko baten itzulpen hutsa. Hona hemen gaurko Hizkuntzalaritzak ahobatez diona. Hizkuntza batetik bestera igarotzean, pentsakera batetik beste pentsakera batera igarotzen gara. Hizkuntza guztiak dira itzuli-ezinak; eta hau sustraitik beretik. Hizkuntza da herri baten arima.

Hizkuntzaren bitasuna

Har dezagun koloreen fenomenua. Nola jokatu du gizonak, hizkuntza sortzerakoan, fenomenu horri buruz?

Edozein hizkuntzak bi mundu lotzen ditu: naturalezarena batetik eta giza-jakintzarena bestetik. Hizkuntzaren bidez gizonak *gizatartu* egiten du *mundua*; lotura edo lotkia bat prestatzen du naturaleza giza-moldeetan sartzeko. Hizkuntzak, hitz batez, *bi mailatan* jokatzen du batera, bi uharteren arteko zubia eraikitzen du. Argi dezagun hau.

Bihur gaitezen koloreen fenomenu horretara. Zer dago hor? Elektromagnetismo-fenomenua batetik, bibrazioak hitz batez. Zenbat motatakoak, zein frekuentzitakoak? Anitz dira, milaka, miloika. Onda elektromagnetikoen zabalera guztia hartuz gero (gamma errainuak eta irrati-errainuak «koloreak» dira funtsean), fenomenu bat dugu begien aurrean: berez nahasia, iluna, taxugabea. Nondik has fenomenu hori gure giza-kulturaren jartzeko? Sail horretan *taxuketa* bat eginez.

Denok dakigu gaur herri bakoitzak, hizkuntza bakoitzak, *bere modura* egin duela bereizketa-lan hori, bere modura taxutu duela koloreen fenomenu hori, eta ez denek modu berberera. Etnia bakoitzak *taxuketa berezia* egin

du. Liburu askotan aipatzen dira hizkuntzen arteko kolore-taxuketa horien gorabehera harrigarriak, eta hau agertu da argi eta garbi: koloreen taxuketa edo eraketa logikorik ez dagoela. Greziarrek, esate baterako, ez zituzten oria eta berdea bereizten: biei «jloros» esaten zieten. Euskaldunok ez bide genituen koloreak gaur bezala bereizten: «berde» hitza erdaratik datorkigu; eta «gorringo»a ez da gaurko gorria, ezta gorriak ere «behi gorriak». Gure koloreen estruktura arrotzu egin bide da azken mendeetan.

Irakurleak aisa eskura dezakeen liburua aipatzekotan, hauxe bururatzen zait orain: Levi Strauss'en «Tristes Tropiques» deritzana, 214 gn. orrialdean: «Hizkuntza-kategoria bakarra osatzen dute (Brasil'go inditarrentzat) horiak eta gorriak... Urdinari eta berdeari buruz, berriz, barazki zimelkorrek zertzen dituzte izadian, kolore hotz gisa; hau dela-ta, bertakoen axolagabetasuna ulertzen da. Beren hiztegian ez dago kolore mota horiei dagokien zehaztasunik: hizkuntzen arabera, batzuetan beltzari eta batzuetan berdeari datxeko urdina».

Hizkuntza bakoitzak, beraz, koloreen *estruktura* berezia sortu du.

Baina hau ez abstrazioetan, *taxutu ahala izenak emanez baizik*.

Saussure'k oso argibide argitsua eman zuen: hizkuntzaren eginkizuna hosto bakar baten bi alderdietan obratzen da batera: hostoa ebakitzen dugunean, alegia, hostoaren bi alderdiak ebakitzen ditugu. Koloreetan taxuketa egite berean, hitzak sortzen ditu hizkuntzak: taxuketa eta izendatzea elkarri datxezko. Ez dago hitzik gabe pentsatzerik edo taxutzerik: mintzamina duelako pentsa dezake gizonak: hitzei esker pentsa dezakegu. Hizkuntza ez da pentsamentuaren soineko, pentsamentuaren hezurra baizik. Hitz batez: sinboloen bidez pentsatzen dugu, eta sinbolo horiek hitzak dira, hitzen multzoak hobe. Hosto bakarraren aurreko alderdian ideiak daude, eta atzekoan hitzak.

Giza-jakintzaren mailan, beraz, aukeraketa egiten dugu ere: gure ahozko soinuen sailean edo mailan beste taxuke-

ta egiten dugu, taxuketa hau fenomenuen taxuketari banan-banan lotzeko. Gizonak ahoz eman ditzakeen soinua asko dira, ez 20 edo 30 soilik; hizkuntza batzuk dakizkitenek ongi dakite hau: hizkuntza batetik bestera igarotzean soinu berriak agertzen dira. Zergatik hau? Giza-soinuen ilara oso luzea eta oparora delako, nahasia, iluna, txugabea, koloreen fenomenua bezalaxe.

Hizkuntza batek, hortaz, eman dizazkigukeen aho-soinuen artean *banaka batzuk* aukeratzen ditu, bere modura hots-estruktura bat antolatuz. Ez dago hotsen banaketa edo taxuketa logikorik, berriz ere: etnia bakoitzak bere gisara hautatu ditu hizkeraren hotsak, eta bere gisara ezkondu ditu silabak eta hitzak sortzeko. Euskaldunok, gonbarazio baterako, «TS» soinua erabiltzen dugu, baina inguruko beste inork ez. Guk, alderantziz, ez dugu frantsesen «eu» bokala (bonheur, émeute...) erabiltzen.

Estruktura barne-oreka

Itzul gaitezen berriz koloreen taxuketa horretara. Taxuketa hori «estruktura» da. Hizkuntza bakoitzak, etnografiak irakatsi digunez, bere moldera «estrukturatu» du koloreen fenomenua; eta berdin denbora, ahaidegoa, aberak, landareak, eta abar.

Eman dezagun orain, esate baterako, gorri mota bati «APX» deitzea erabaki dugula. «APX» hitz berri horrek koloreen *estruktura guztia* aldaraziko du. «Gorri» hitzari semantikazko hedadura (= adieraziaren zabalera, gorri mordoan kopurua) pittin bat urrituko zaio: koloreen espektro-luzeeran tarte txikiagoa izendatuko du, galdutako gorri zaharraren zabalera apurra «APX» hitz berriak hartuko bait dio. «APX» hitz berri hau dela-ta, «gorri» hitza laranja aldera lerratuko da pittin bat; eta laranja «gorrienak», gorri deituko ditugu aurrerakoan. Koloreen hitz-estrukturak, hitz batez, beste barne-oreka hartuko du, lehengo galduz.

Eman dezagun oraingoan, alderantziz, «laranja» hitza

galtzen dela. «Gorri» hitzak, noski, laranja kolorearen espektro-luzeera pittin bat hartuko du: lehen «laranja» deitzen ziren gauza batzuk, «gorri» bataiatuko dira eta, era berean, «hori» hitzak ere laranja horiskenak bilduko ditu. Beste hitzez esateko, «gorri» eta «hori» hitzei semantikazko hedadura handituko zaie, oreka berria lortu arte.

Beraz, hitz bakoitzaren zabalera edo semantikazko hedadura *ondoko hitzek* mugatzen dute. Estruktura batean hitz asko dagoenean, hitz bakoitzak oso hedadura hertsia hartzen du, hitzek zehatz «adierazten» dute «adierazia». Eta, alderantziz, estruktura batean hitz gutxi dagoenean, hitz bakoitzak semantikazko hedadura zabala du; hitzek, beraz, ez dute zehatz «adierazten» beren «adierazia»: hizkuntza laxoa da puntu horretan. Esate baterako: koloreak bereizteko mila hitz dituen hizkuntza, zorrotza da puntu horretan; lau hitz baizik ez baditu, aldiz, hizkuntza kamutsa da.

Hotsen mailan oreka-fenomeno berbera dago.

Har ditzagun bokaleak. Guk gaur (xiberutarrek ezik) *bost* bokale bereizten ditugu euskaraz: A, E, I, O, U. Baina frantseseraz beste barne-oreka bat dago, ingleseraz beste bat, eta abar. Bokale bat agertzeak estrukturaren oreka aldatzen du.

Euskaraz, esate baterako eta neri apalki iruditzen zaidanez, bokaleen estruktura aldatu egin da. Lehen ba bide zegoen beste «u» bat, gaur xiberutarrek bereziki atxiki duten «ü» delakoa hain zuzen.

A-E-I-O-U-Ü estrukturatik A-E-I-O-U estrukturara aldatzeko, «Ü» delakoak «U» emango luke batzutan, eta «I» bestetan. Hots, jakina da hau, U-I alternantzia hori badago euskaraz:

ütsü (S) — itsu (G) — utsi (R)

ützi (S) — utzi (G) — utzu (R) — itxi (B)

üngürü (S) — inguru (G) — ingiru (B) — unguru (R)

ahüntz (S) — ahuntz (L) — auntz (G) — aintz (R)

üthürri (S) — ithurri (L) — iturri (G) — uturri (R)

Bizkaieratik gipuzkeraratzean, hau ezaguna da, «u» anitz «i» bihurtzen da:

urun (B) — irin (G)
 gultzurrun (B) — giltzurdin (G)
 autortu (B) — aitortu (G)
 ule (B) — ile (G).

Estruktura zaharreko oreka *guztia* aldatu zela sumatu daiteke: letren barrutia lerratu egin zen, eta ez «ü» horretan, «u» eta «o» delakoetan baizik.

Hazparne berean, esate baterako, gauza ezaguna da «ontsa» eta «untsa» idazten dutela bertakoek, zein aukeratu ez dakitelarik. Bizkaiko «nagosi», gipuzkeraz «nagusi» esaten da; Bizkai'ko eta Gipuzkoa'ko «nor», «nur» da Xiberua'n. Eta abar. «O»ren hedadura koloka agertzen bide zaigu; eta oso gogoangarria da, hain zuzen, Mitxelena'k honi buruz oharrarazi diguna: «Las condiciones de cierre de O en U, fenómeno no exclusivamente suletino, aunque tenga la máxima intensidad en ese dialecto». (Fonética histórica vasca, 54). Fenomenu berbera nabaitzen omen da biarneraz (ikus Mitxelena'ren liburu berbera), eta ezaguna da Biarri'ko euskal sustratoa (ikus R.I.E.V., Saroihandi'ren lanak).

Hizkuntzalariei dagokie, noski, nik adibidetzat aipatu dudan fenomenu honetaz azken iritzia ematea, ez neri. Baina Xiberu'ko «ü» delakoa zaharra baldin bada, honen galerak euskal bokaleen estruktura guztia dardarazi eta birtaxutu bide zuen, eta hau estrukturalismoak bidezkoztat, beharrezkoztat juko luke. Ezaguna da ere «ü» hau ez dela inondik ere frantsez kutsua (ikus Larrasket, esate baterako; edo entzun xiberutarren beren iritzia: euskal «ü» eta frantses «u» desberdinak dira). Delako «ü» hori, azkenik ez da xiberutarren jatorreria bitxia: erronkariaraz «eskuia» ta «eskuiua» esaten omen zen, gaur Berasgoitzen eta Urketa'n «eskuia» esaten den arabera; eta «esküa» forma Hazparne'n, Ustaritze'n eta Itsasu'n en-

tzun daiteke gaur berean. Lapurdi eta Erronkari ez dira Xiberua.

Ez da ahaztu behar, bestalde, gure ikaskintza betidanik erdaraz egin dugulako, oharkabean erdal letra-estrukturara lotu izan dugula gure idazkera; eta hori lortzekotan, noski, sarritan lardazkatu ditugula euskal fonetika-estrukturak: hor ditugu Etxepare eta Leizarraga, gure idazlerik zaharrenak berak beraz, idazkerari buruz askotan zalantza gorrian, gure fonetika-estrukturak eta erdereak berdinak ez direlako (ikus Mitxelena'ren «Fonética Histórica Vasca», 56).

Bokale bat galtzean, barne-oreka guztia galtzen da, beste taxuketa berezia sortuz.

Honek garrantzi handia du. Behin eta berriz gogorazten du Levi Strauss'ek puntu hau: *noiz* agertu da elemento berria? zertan ziren *ondoko* elementoak kinka horretan?

Estruktura bateko elementoak ez dira *bere buruz* taxutzen eta nortzen, *ondoko* elementoekiko baizik. «E» ez da ezer, «A» eta «I»ren arteko *tartea* baizik. Estruktura bateko atalak *diferentzialak* dira, ez *esentzialak*; elkar mugatzen dute, eta ez bat-bederak bere burua.

Zer da laranja kolorea? Ez da-izan *ezer*. Laranja kolorea *horiak* eta *gorriak* zertzen dute. «Gorri» hitza galduko balitz laranja kolorearen «izana» (?) aldatu egingo litzake, gorriaren aldeko muga mugituko bait litzake.

Beste ondorioa: hitzen mugak estrukturen *barne-orekak* ipintzen baditu (eta ez estrukturatik kanpoko *ezerk*: kasu honi!), hizkuntza batetik bestera igarotzean, taxuketa batetik beste batera igarotzen gara. Hizkuntzak itzuli ezinak dira. Etnia-pentsakeraren berezitasuna hizkuntzan datza. Etnien nortasunak hizkuntza du oinarri. Are gehiago: «De façon générale, les structuralistes contemporaines estiment que c'est la forme de la langue qui tendrait à imposer à chaque peuple ses mythes et ses croyances», dio André Martinet'ek bere azkeneko liburuan (La linguistique Synchronique P. U. F., 1968, 184 gn. orrialdean). Sapir. Whorf, Benveniste, Cassirer, Mounin ez

dira iritzi horretatik urrun. Herri baten pentsakera, hau munduaren ulerkerak den aldetik, hizkuntzan datza.

Hitzen semantika-hedadura, bukatzeko, estrukturako ondokoek finkatzen baldin badute, hizkuntza bakoitza *bere buruz* ari da hein batean; eta ez da ezeren seme, ez da ekonomiaren superestruturak, esate baterako. Estrukturrek bere-gaintasuna badute-ta (ez hizkuntza esturturek bakarrik, ondoko lerroetan azalduko dugun bezala: mitoak, gonbarazio baterako, bere buruz moldatzen dira esturturen modura, eta ez dira ekonomiaren superestruturak). Kultura batetik bestera joatean, beraz, ez dago ebo-luziorik, *jauzia* baizik.

Idea hauetatik sortu dira estrukturalismoaren azken ondorio larriak.

«Adieraziak» eta «adierazleak»

«Sens et sons» esaten dute egoki frantsesek. Gauza eta sinboloa, esan dugu guk gorago, «adierazkia» eta «adieraz-hotsa», «adierazia» eta «adierazlea». Bi maila, bi plano, bi errealidade-mota.

Hizkuntzak, beraz, *beti* eginarazten digu jauzia: hitz batek *idaroki* egiten digu gauza. Zeren truke? Sinboloen mailatik ideien edo gauzen mailara egin behar jauzia. Hizkuntzak (eta hau *berez* gainera, hizkuntzaren izana bera dela-ta) iluntasunean *jauzarazten* gaitu. *Hizkuntza ez da inoiz gardena: beti da arrea*. Hauxe da, hain zuzen, gaurko Zientziaren aurkikunde nagusia. Hizkuntzak idaroki egiten digu errealidadea. Adierazleetatik adierazietara, «significante»etatik «significado»etara, tarte beltza dago. Lainoan ikus dezakegu mundua, eta laino horretatik jaregiterik ez dago: lainoa da ezagueraren baldintza, ezaguera guztiak sinbolikoak bait dira.

Ez da hau dena.

Har dezagun «beso» adieraz-hotsa, adierazlea, soinu-sinboloa. Euskaldunoi «beso» hitzak besoa gogorazten digu: eskubikoa ala ezkerrekoa. Baina gazteleraz «beso» mu-

sua da. Euskal «il» hitzak muino adierazten du ingleseraz; euskal «tanta» ez da gaztelerazko «tanta»; euskal «doi» ez da erdal «doy» delakoa; eta abar. «Adierazle» bakar batek, beraz, «adierazi» asko idaroki dezake, kulturaren arabera.

Alderantziz gauza bera esan daiteke: «adierazi» berberak («zubi» euskal hitzari dagokionak esate baterako, gutxi gora-behera ongi mugatua beraz) «adierazle» asko eta desberdin izan dezake: «puente» gazteleraz, «pont» frantseseraz, «bridge» ingleseraz, eta abar.

Hiz batez: ideiak eta hitzak, «adieraziak» eta «adierazleak», gauzak eta sinboloak, izakiak eta deiturak, ez dute barneko loturarik batere: edozein ideiari edozein hots dagokioke. *Edozein «adieraziri» edozein «adierazle» dagokioke.* «Adierazia»ren eta «adierazle»aren lotura arras libroa da, arras aukerakoa.

Estruktura, azkenik, oharkabean erabiltzen dugu. Euskaldunak ez du bere bokale-estruktura ezagutzen; baina «eu» frantses soinua ez du inoiz erabiltzen. Estrukturak *oharkabeak* dira, inkontzienteak, izkutuak; bainan azterketaren bidez agerraraz ditzakegu. Hauxe da estrukturalistaren eginkizuna. Estrukturek logika dute, sistema-arri-mu hau azpian dago, itxuren atzean. Oharrez, jakinaren ganean, ematen diren azalpenek faltsutu egiten dute egiazko estruktura (puntu honetan, beraz, Levi Strauss'ek Marx gogorazten du).

Estrukturalismoaren hedaera

Idea horiek oinarritzat harturik, Levi-Strauss'ek beste sinbolo-sistemalara hedatu du estrukturalismoaren azterpidea. Gaur estrukturalistek modu horretara aztertzen dituzte mitoak, ametsak, inkontzientea, erlijioak, eta politika. Azken urteotan moda, musika, literatura, eta beste anitz fenomeno ere, estrukturalismoaren arabera aztertu dira. Bada estrukturalista psikiatria (Lacan), estrukturalista marxismoa (Althusser, Godelier), estrukturalista kri-

tika (Barthes), eta beste anitz. Estrukturalismoa modan dago. Levi Strauss'ek aspaldidanik egin zuen Sartre'ren filosofiaren estrukturalista-azterketa (ikus «La Pensée Sauvage», 324-tik aurrera, Plon, 1962).

Zertan datza estrukturalista azterpide berri hori?

Egoki izango da Lucien Sebag zenaren hitzez azaltzea:

«Nous entendons par là (système symbolique) tout système régi par la distinction entre le significat et le signifié, distinction qui pour atteindre toute sa spécificité dans le domaine linguistique n'en possède pas moins un champ d'application plus vaste. Elle implique:

Que le sens ne surgisse jamais d'un terme isolé mais d'une chaîne structurée, la place des différents éléments qui la composent important plus que la nature particulière de chacun d'eux.

Que tout remaniement portant sur certains de ces éléments se répercute sur la chaîne toute entière et que de ce fait le signifié trouve toujours une multiplicité d'expressions qui latentes ou présentes définissent l'horizon au sein duquel un progrès quelconque peut s'opérer dans le développement des significations.

Tout effort pour faire correspondre terme à terme signifiant et signifié apparaît donc comme privé de sens; dans le domaine linguistique il impliquerait que le signifié soit totalement préexistant au matériel dans lequel il se donne, la langue n'étant plus qu'un répertoire, un recueil de corrélations entre des sons déterminés et différents contenus conceptuels. Or le réel n'est pas composé d'unités différenciées auxquelles les concepts viendraient s'appliquer, et la signification de ces concepts n'est pas le miroir de l'onde sonore qui en est le porteur. C'est cette cassure de tout rapport, univoque entre le son et ce qu'il signifie que s'est effectuée dans l'oeuvre de Ferdinand de Saussure; et elle a pour corrélat le hiatus entre ce qui est signifié et les donations immédiates, intuitives de l'objet; à chacun des niveaux considérés, nous trouvons en présence de systèmes, la fonction et la valeur de chaque terme ne pouvant se concevoir que par rapport

à ces systèmes considérés comme des totalités». (Marxisme et Structuralisme, 94-95, Payot, 1964).

Osoki birlandatu dugu Sebag'en azalpen argitsu hau, irakur daitekeen onenetakoa delakoan. (Sebag'en liburua, bestalde, euskaldun intelektual guztiek ezagutu beharko lukete dagoeneko).

Har dezagun, beraz, gizatar fenomeno bat: mito-sistema bat, eman dezagun (mitoak ez dira bukatu, kasu!). Alde batetik mito horien «adierazia» dago, eta bestetik mito horien «adierazlea». Alde batetik, beraz, munduko buru-hausteen sistema dago, soluzio eta sasi-soluzioak barne (mundua nola sortu zen, gizona nola agertu den munduan, heriotzaren ondoan zer dagoen, eta abar); eta bestetik, hizkuntza moduko sinboloak, itxurazko pasadizutan haragiturik (lurraren azpitik bi herensuge atera ziren, elefante batek haur bakarra jan zuen, ugaldeen ondoren izadia eta gizadia adiskidetu egingo dira, eta abar). Mitoen mordoak *bi mailletan batera* aztertu behar da, mitoak *hizkuntza* bat balira bezalaxe.

Hauxe da etnologiar buruz Levi Strauss'ek egiten duen saiakera; eta lan gaitz baten ondoren, mito askoren ahaidetasuna frogatu du, egiazko mito-estrukturak banaka batzutara bilduz.

Mitoetan estrukturak daude, oso izkutuak, guztiz ohar-kabeak. Mitoak itxura desberdinez jazen dira, baina izpiritu-estruktura berberak betetzen dituzte: mitoen «adierazia» uste den baina gutxiago aldatzen da kondairan barrena. Mitoak, beraz, itxuraren aldetik, alegiazko beren ixtorioetatik, azaldu nahi dituztenak, guztiz oker daude estrukturalisten iritziz. Herensugeak ez ziren lurretik atera. Hortik bilatzea zentzugabekeria hutsa da. «Adierazia» bilatu behar da estrukturaren bidez.

Gure ametsetan, era berean, egaz egiten dugunean ez dugu egiazki hegaz egin nahi (Freud laister konturatu bide zen honetaz). Sinboloen *sistema* aztertu behar da; eta ametsen mordoak hitz-mordoen gisa hartu behar dira.

Estrukturalismoak, hitz batez, ez ditu fenomenuak banaka eta beren itxura horretantxe aztertzen: hori atomis-

moa litzake, eta ez lerramake inora. Estrukturalismoak oharkabeko *modeloak* aztertzen ditu, agertzen ez ziren estrukturak agerrerazten ditu; eta hauek itxura mota guztien atzetik aurkitzen ditu. Zuhaitzen hosto eta lore guztiak astindu, beraz, bat ere gabe utzi arte; eta gelditu diren enbor hutsak alderatu. Mezuak baztertu, eta mezuen irakur-bideak aztertu. Sinboloak guztiz larrutu ondoko sus-trai logika gonbaratu eta hausnartu. Estrukturak nabar-menerazi, estruktura-atalen izanaz ahaztuz. Hauxe da estrukturalismoaren bidea.

Etnologia, erlijioa, politika, era horretara aztertuz gero, kondairak balioa galtzen du ia osoki. Kondaira bada; baina estruktura moldeetan obratzen da ezinbestean. Pouillon'ek argiro esan du orain dela gutxi: «la praxis suppose les structures... le structuralisme est la logique de la dialectique» (L'Arc, 26 gn. alea, 59-60). Kondairak ez du «adierazlea» baizik sortzen: «adierazia», gizonaren problematika osoa, kondairatik at dago; edo-ta kondairaren nahi ta ezko hildoa da.

Hizkuntzari buruz aurkitu ditugun ondorioak, beraz, egokiak dira etnologia, erlijioa, politika eta sinbolismo guztiei irizteko.

On luke irakurleak ondorio larri horiek gogoraztea.

Politikaren mitologia estrukturalismoaren arabera

Estrukturarik errazena, noski, oposizioa da:

+, —
BAI, EZ

Sail askotan oposizio bikun hauetako bat aurki daiteke funtsean; eta oposizio honek azal ditzake estruktura-ren orekaren gora-beherak eta axaleko aldakuntzak.

Eman dezagun *politika*, esate baterako, *mitologia den aldetik*. (Alegia: alegiazko mundu baketsu eta anaikorra sinesten duen sasi-politika). Zer pentsa dezake estruktu-

ralista batek? Lehenengo hurbilbidea oposizio hutsa izan daiteke.

Alde batetik politikaren problemak daude, eta problema horien soluzioak edo sasi-soluzioak. Hauek osatzen dute politikaren «adierazia». Bestetik, aldiz, politikaren sinboloak daude: teoriak, hitz batez. Politika-teoria hauek dira, beraz, «adierazleak», hitzen kideak.

Soziedadearen problemak eta soluzioak *taxutu* egin nahi ditu gizonak, eta hau pentsatu aurretik ere: ezinbestean nahi ditu argitu eta banatu. Gure eginkizunik sakonena munduan eta problemetan *banaketa eta ordenua* asmatzea da. Hizkuntza taxuketa den bezalaxe, politika-teoriak *taxuketa* dira.

Taxuketa-nahi horretan, teorien esanak eta itxurako arrazoinak alde-batera utzita, oposizio bat agertzen zaigu nabarmen: eskuindarrak batetik eta ezkertarrak bestetik.

Zein da hauen arteko borroka amorratuaren gakoa? Estrukturalista batek ez ditu politika-liburuak aztertuko, ezta ekonomia-arazoak soilki ere: hori atomismo litzake. «Adieraziek» eta «adierazleek» ez dute loturarik batere: politika-mito bati (gizadi zoriontsu bat) teoria *asko dago kioko*. Politika-teoriak ez dira *exer berez*: oposizio horretan teoria horiek zein lekutan dauden aztertu behar da.

Oposizioaren gakoa, oharkabean, inkontzientean, hau xe da, nik uste: eskuindarrek aspaldiko denboretan ikusi uste dute gizadiaren soluzioa («haiek garai ederrak!»); ezkertarrek aldiz etorkizunean.

Oposizio nagusia hau da, beraz:

IRAGANA - ETORKIZUNA

Eskuindar mitokoiek atzera egin nahi dute, eta aldakuntzak aurrerago eraman nahi dituztenak hondamendi-iturritzat dauzkate. Ezkertar mitokoiek, itzuletara, aurrea egin nahi dute, eta aldakuntzari tenkegin nahi duten guztiak hondamendi-iturritzat dauzkate. Fazisten ustez komunistak dira gaitz guztien errudunak, eta komunisten

ustez fazismoa da gaitz bakarra. Indarraren bidez «egia» legetzea beti izan da muturren zirikaldia, ukaera osoa nahi izateko «beste mundu bat» sinetsi behar bait da.

Baina oposizioa horretan baldin badago beti (beti izan da munduan aurrerakoien eta atzerakoien arteko dialektika) oposizioaren *sinboloak* aldatu egiten dira muturretan. Politika-muturren estruktura ez da aldatzen: IRAGANA-ETORKIZUNA. Baina sinboloak, «adierazleak», bai: Rousseau'ren ondoren Marx etorri da (nahiz Babeuf, Proudhon, Bakunin, eta beste asko, «adierazi» berberari egokitu).

Teoria liferentek («adierazle» desberdinek, beraz) leku berbera hartzen dute oposizio nagusian. Rousseau eta Marx, beraz, MITO DIREN NEURRIAN (mesianismo diren neurrian, beraz) gauza berbera dira: etorkizun zorientsu eta zoragarri mitokoi horren sinboloak. Estrukturalismoaren aldetik, beraz, Robespierre eta Stalin gizon berbera dira. Beren arteko gorabeherak hizkuntza desberdinetako hitz kideen gorabeherak dira. «Ogi» eta «pain» en mailako antza dute: alegia, elkarren itzulpenak dira, kide izan daitezkean neurrian.

Eman dezagun orain oposizio horretan teoria bat edo partidu bat («adierazle» bat, beraz) kondairan obratzen dela: hobeki esateko, partidu hori aginteaz luzaz jabetzen dela. Momentu horretatik partidu horrek bere izana bere galtzen du mitoa izendatzeko; «adierazle»tik (partidutik) «adierazi»rako tartea (soziedadearen taxuketa orbangabe eta osoki zuzena) ezabatzen bait da. Partiduak mistika guztia galtzen du, ezer *adierazten* ez duelako: mitoa kondairan ez gertatzean, teoriak zekarren mezua galtzen du: hizkuntzaren izana edo sinbolotasuna galtzen du. Beste «hitz» bat behar da, beste «adierazle» berri bat, «ezker-tarrago»; beste «adierazle» bat, etorkizun zorientsuaren mitoa sinbolatzeko. Brejnev alde batera utzi, eta Che Guevara nagusitzen da. Moskuzaleei mao-zaleak eta OLAS-koak darraizkie. Politikaren estruktura-lekugunea hutsik zegoen ezkerreko muturrean, eta lekugune hori bete egin behar zen.

Eskubi aldetik azterketa bertsua egin daiteke.

Mistika izan dadin *tartea* behar da: «adierazle»tik «adierazi»ra dagoen *tartea* hain zuzen. Mistika agor ez dadin *planoz aldatu* behar da: soluzioa *idaroki* egin behar da, *ez obratu*. Hizkuntzatasuna *bi* mailetan batera jokatzea da.

Tartea, horregatik, muturretan gorde daiteke soilik, gaurko soziedadea guztiz, goitik behera, aldatu nahi duten taldeetan. Gisa da, horrela, mistika muturretako mitoetan ez bestetan aurkitzea: agintzen duten gobernariak ez dute mistikarik sortzen. Ez dira hizkuntza.

Rousseau'gandik Marx'engana joateko, halere (hau oso kontutan hartu behar da estrukturalismoa ulertzeko), ez dago eboluziorik. Batak ez du bestea osatu, *bere orde*z jarri baizik.

Hain zuzen ere eboluzioa mitoa iruditzen zaie estrukturalistei, kondaira ez bait zaie hazkunde bakar baten gertaera. «Herri arkaikoa ez da atzeratutako herria»; ez dago guri buruz gu baino atzerago. Eboluzionismo baikor eta harroputz hau (gu bait ginake kondairaren branka!) «gainditua» dago, *périmé*» (ikus Levi Strauss'en «Anthropologie Structurale», 114»).

«Le communisme comme l'abolition positive de la propriété privée, de l'auto-aliénation humaine, signifie l'appropriation réelle de la nature humaine par et pour l'homme, donc le retour complet de l'homme lui même en tant qu'être social, c'est-à-dire en tant qu'être humain; retour complet, accompli en pleine conscience en sauvegardant toute la richesse du développement antérieur.

Ce communisme, en tant que naturalisme achevé, s'identifie à l'humanisme et en tant qu'humanisme achevé il s'identifie au naturalisme. Il est la véritable solution de l'antagonisme entre l'homme et la nature, entre l'homme et l'homme. Il est la vraie solution du conflit entre l'existence et l'essence, entre l'objectivation et l'affirmation de soi, entre la liberté et la nécessité, entre l'individu et l'espèce. Il est l'énigme résolue de l'histoire et il sait qu'il

en est la solution» (Marx, Economie politique et philosophie, 1844). Zer pentsa mesianismo nabarmen honetaz?

Barnetik aztertzea edo iriztea zorakeria litzake estrukturalismoaren aldetik: marxismoaren teoriak eginkizun bat izan dute politikaren mitoetan, ezkertar mitoei «adierazle» berria ematea. Maila hau galduz gero (agintera iritxiz gero, berrogei-ta-hamar urte honetan beraz), mesianismo hori obratzen ez dela agertu ahala, marxismoaren mesianismoa eta mistika suntsitu egingo dira. Hasiak dira iraungitzen eta suntsitzen.

Henri Lefèbvre'k kezkatu idatzi du berriki, beste marxista askoren iritzia bilduz: «XX-gn. mendeko bigarren erdi hau itsuski hasi da benetan... ideologia honen (estrukturalismoaren) arrakastak nihilismora garamazki». (L'Homme et la Société). Gauza bera dio Furet'ek: «Une gauche intellectuelle déçue, démoralisée par l'histoire, s'est tournée vers l'homme primitif, non pour déchiffrer l'enfance de l'homme — ce qui ramènerait encore à l'histoire — mais pour y trouver la vérité de l'homme». (Esprit, 1967-V, 773).

Marxismoaren indarra *diferentziala* izan da, ez *sustraietza*: marxismoak azkeneko ehun urteetan etorkizuneko mitoa «adierazi» du. Gehiago bilatzea oker egotea litzake. Levi Strauss'ek berak dio honi buruz: «L'homme dit de gauche se cramponne à une période de l'histoire contemporaine qui lui dispensait le privilège d'une congruence entre les impératifs pratiques et les schèmes d'interprétation. Peut-être cet âge d'or de la conscience historique est-il déjà revolu» (La Pensée Sauvage, 337).

Hizkuntzak mundua taxutzen duen bezalaxe, mitoei ere taxutu egiten dute, munduaren iluntasuna argitu uste dute, nahasketa handia zegoen desordenuan, ordenua agerrarazten: mitoei ikurra, sentidua, ematen diete gizonaren izateari eta mentura hitsari. Mesianismoa den aldetik marxismoa mito nabarmena izan da.

Politika-mitoei, halere, garrantzi handia izan dute kon-dairan, gainerako mitoei bezala: gizona *mito*z elikatzen da *betidanik*. Gizonak mitoen bidez jokatu behar du, mi-

torik gabe ez da eskuarki asaldatu ohi, eta zuzentasunik ezaren kontra borrokatzeko ere, «politika hizkuntza» egokia behar du. Levi Strauss'ek dion bezala 1789'ko erreboluzioa politika-hizkuntzak ekarri zuen. Entzun dezagun Sebag: «Zergatik? Hizkuntza bat bazegoelako; eta hizkuntza horrek funtsezko ikur edo sentidua eman dizaikeelako erreboluzioaren aintzindari» (Marxisme et Structuralisme, 124). Estrukturalisten ustez, beraz, erreboluzioa ez dute ekonomia-gorabeherak ekartzen, mito hizkuntza berria gertu egoteak baizik. Gizonak «adierazle» bat behar du politikaren mailan bere bizia emateko: 1789-an enziklopedismoa izan zen «adierazle» hori. 1917-an marxismoa, XXI-gn. mendean beste «adierazle» berri bat zailantzarik gabe.

Zenbait gogoeta bukatu aurretik

Estrukturalismoa oso beltza da, egia bezain beltza beharbada: prometeokeria guztietatik oso urrun gaude. Estrukturalismoa oso ukakorra da, eta hauxe da sasi-intelektualek onartu nahi ez dutena. «Bidea bagenduen, eta dena hankaz gora berriz», esateko gogoia dute batzuek. Erosoagoa da, noski, kondairan sentidua ikustea. Baina Levi Strauss'en hitzez esateko, kondairak ez du sentidurik *geure mitoen* arabera taxutzen ez dugunean. «Une histoire vraiment totale se neutraliserait elle même: son produit serait égal à zéro». Hau, noski, baikortasunetik urrun dago oso.

Levi Strauss, beraz, budismotik hurbil xamar dago (ikus «Tristes Tropiques», 371-etik aurrera); eta, alde honetatik, esistentzialismoaren beltzuratik ez urrunago. Aspaldidanik agertu zen JAKIN'en nere artikulo bat izenpuru honekin: «Levi Strauss'engandik Unamuno'rengana» (ikus 20-garren zenbakia, 1965). Izenpurua egokia zen. Lucien Goldman neomarxistak argiro esan du azkeneko hilabeteetan: «Bihurrera bat dago, bai, ez kristautasunera, baina bai irrazionalista pentsakera batera. Pertsona

gaindituko lukeen zerbaiten behar berriari lotua agertzen da; zerbait horren falta biziki, sakonki senditzen da, esistentzialismoarekin gertatzen zen bezalaxe».

Antz hauek, beraz, ezagunak dira Europa'n, eta nik hemen aipatzea ez da miragarria.

Estrukturalismoa da gaurko ideia-mogimentu nagusia. Honetaz oraindik konturatu ez diren intelektualek, XIX-gn. mendeko intelektual «aurrerazaleak» (?) dirudite. Azken hilabeteetan, aldizkariei gagozkielarik, *zenbaki berezi* hauek agertu dira frantseseraz estrukturalismoari buruz:

Esprit — 1963-eko Hazila

1967-ko Maiatza (ezkertar kristaua)

Diogène — 1965-eko 51 gn. zenbakia (joera garbirik gabea)

L'Arc — 26-gn. zenbakia (monografiak izaten dira)

Temps Modernes — 1966-eko Hazila (Sartre'rena da)

La Pensée — 1967-ko Urrila (marxista)

Estrukturalismoa baikorkeria guztien kontra ari da, eta sasi-zientzia askoren kontra: hau egia da. Estrukturalismoak kosmo-larridurara eraman gaitu berriz; eta beharra bazegoen: gizonari buruzko xarekeriaz aski genduen. Lacan'i buruz ari delarik, garbiki esan du André Jacob'ek: «Grazia'ko Presokratikoen eta Tragikoen giroa sortu da». Badago horrelakorik.

Andre Malraux'ek ideia bera azaldu du Grenoble'n egun hauetan. Malraux'en ustez gure zibilizazioa guztiz alienatua da, hilobiak eraikitzen ez dakielako. Ez dugu hemen Malraux'en jokabideen defentsa egingo. Nola ukatuko, ordea, kolore guztietako intelektualen artean estrukturalismoaren etorrera, funtsean ez bada agirian, oso zinez eta kezka handiz hartua izan dela?

<i>Hitzaurre</i>	5
1. <i>Euskara estrukturalismo klasikoaren argitan</i>	13
Saussure-ren ideia nagusiak	13
Sinkronia eta diakronia	15
Hizkuntza eta hizketa	16
Adierazkizuna eta adieraz-hotsa	16
Etnia bakoitzak hautaketa edo taxuketa desberdinak egiten ditu	20
Beste ohar batzuk semantikari buruz	24
Estrukturen barne-oreka edo plomua	26
Elementoen balioaz	28
Euskararen bokale-estruktura	29
Kontsonanteen euskal estrukturak	33
Euskarazko kolore-taxuketa	35
Hizkuntza etnia-olerkimenaren ekarri berezia	39
Unibertsaltasunaren mugak	40
Hizkuntza pentsamentuaren arau eta funts-emaile	42
Martinet-en iritzi batzuk	44
2. <i>Whorf-en errelatibitate-oinarria</i>	49
3. <i>Levi Strauss ethnologilariaren iritzi nagusiak</i>	65
Levi Strauss-en oinarriak	66
Estrukturak eta kondaira	72
«Arraza eta kondaira»	77

4.	<i>Lacan psikanalista bide beretik</i>	85
5.	<i>Afasiaren erakaspenak</i>	103
6.	<i>Estrukturalismoaz zenbait hitz</i>	123
	Hizkuntza-Estrukturalismoa	124
	Hizkuntzaren bitasuna	125
	Estrukturen barne-oreka	127
	«Adieraziak» eta «adierazleak»	131
	Estrukturalismoaren hedaera	132
	Politikaren mitologia estrukturalismoaren arabera	135
	Iragana-etorkizuna	136
	Zenbait gogoeta bukatu aurretik	140